goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2013-02-22
EGUBAKOITZA
542. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Esklerosi anizkoitzaren aldeko partidua

Natra-Oñatiko jokalari batek dauka gaixotasun hori | 29

## Poesia, musika eta marrazkia saio bakarrean | 15



MIREIA BIKUÑA

'Egunkaria'-ko bi debagoiendarren oroitzapenak, 10 urtera bizirik | 2

Egunkaria aurrera!

Aretxabaletan ere atez atekoaren aldeko apustua | 22



Aramaioarrak txapelketaren jabe egingo dira bihar, Aramaion | 32



# EROSKETA EKOLOGIKOAK

Eguneroko erosketetan erabiltzen den paper edo plastikoa gutxitze aldera, ontziak eramateko ohitura zabaltzen dabil Eskoriatzan | 10

Leibar arrandegian arraina ontzian entregatzen, eguaztenean . | JON BEREZIBAR

# Inoizko birgaitze handiena Makatzena auzorako da

Eusko Jaurlaritzak 1.815.000 euroko dirulaguntza emango du Arrasateko Makatzena auzoko etxe multzoa birgaitzeko. 15.000 euro emango du etxebizitza bakoitzeko. Hezetasun eta irisgarritasun arazoak konpontzea da helburua. Aurrekaririk ez duen esku-hartzea izango da. | 12



Makatzenako etxeak. | JOKIN BEREZIARTUA

## SINADURAK



JOXEMARI MUXIKA | 6
6 | LEIRE KORTABARRIA


LOREA DIAZ DE GEREÑU | 24
25 | PATXI KORTABARRIA


IDOIA ETXEBERRIA | 40

DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 6
IRITZIA 7 | HERRIAK 11 | KIROLA 30
KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38


## "Hizkuntzak munduko altxorrak dira; denok gaude babestera behartuta"



**Mikel Ozaita** | Gizarte antropologoa eta Topagunekoa | 6

## Saneamendua eta berritze lanak dira lehentasun Aramaion

Udalak iaz baino %20 gehiago izango du herrirako | 26

☎ 943 71 48 45
Hemen GARBIKETAK
www.hemen-garbiketak.com
Zure konfiantzako garbiketa enpresa
Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:
• Bulego eta lokalak
• Jabeen erkidegoak, garajeak
• Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
• Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.
Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

# 'Egunkaria'-ko bi debagoiendarren oroitzapenak, 10 urtera bizirik

## Mikel Lizarralde kazetariak eta Fermin Lazkano kontseiluko kideak itxiera gogoratzen dute



Mikel Lizarralde, *Berria*-ren erredakzioan. | LEIRE KORTABARRIA



Fermin Lazkano bergararra,

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Joan den eguaztenean, otsailak 20, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean ekitaldi baten gogoratu zuten hainbat lagunek *Euskaldunon Egunkaria* Juan del Olmo epailearen aginduz itxi zutela 10 urte betetzen zirela. Ekitaldian izan zirenetako –politikariek, euskalgintzako eta kulturako ordezkariek...– bakoitzak bere erara gogoratu zuen otsailaren 20 hura. Baita orduan *Egunkaria*-ri lotuta ziharduten bi debagoiendarrek ere, Mikel Lizarralde kazetariak eta kontseiluko kide zen Fermin Lazkanok.

### "Larritasunaren barruan, ohiko injustizia zen"

Fermin Lazkano atxilotuetako bat zen, eta honela gogoratzen du une hura: "Gauerdia zen, ohera sartu berri nintzen. Bat-batean txirrina, kolpeak...". Lehenengo momentu haietan, honako burutazioak: "Herri honetan bizi izanda eta zenbait gauzatan ibilita, badakizu askori geratzen zaiola eta injustizia arrunta dela. Bere larritasunaren barruan, ohiko gauza bezala hartu nuen. Gero hasi nintzen arrazionalizatzen". Atxilotu zuten une berean "testu bat irakurri" zioten, "terrorismoa aipatuz, baina *Egunkaria*, behin ere ez", gogoratzen du.

Mikel Lizarraldek aste gutxi zeroan *Egunkaria*-ko kultura sailean. "05:40 aldera etxean Bergarako lagun baten deia jaso nuen, irratian entzun zuela albistea. Hortik aurrera, gertuko lankide batzuei deitzen eta berria ematen hasi nintzen", esaten du.

Burura etorri zitzaion lehenengo gauza hauxe izan zen: "*Egin*. Hura bost urte lehenago itxi zuten, indarrez hura ere, eta ikusi nuen berriro sekulako erasoa zela".

### "Hemendik aurrera, zer egin behar dugu?' pentsatzen genuen"

Gertatzen zebilenaren inguruko informazio eskasa jaso zuten, atxilotuek bereziki, baina baita kanpoan zeuden langileek. Lazkano inkomunikatuta egon zen. Hauxe diosku: "Lehen momentutik oskol handi bat ipini nuen gainean: *pasatuko dituk hainbat egun hemen, igual ohiko gauzak gertatuko zaizkik, eta eutsi*. Parkera ekarri ninduten eta orduan konturatu nintzen *Egunkaria*-ren inguruko kontua zela eta, alde batetik, lasaitua hartu nuen; kulturgintza aldetik bazen, hain larria ez zen. Baina tratua ez zen ona, eta, Madrilera bueltan, oskola ipini nuen: ixo, entzun eta erne".

Langileek ere "ezjakintasuna" zuten eta horretxegatik "oso gogorrak" izan ziren lehenengo momentuak, Lizarralderen arabera: "Kanpoan elkartu ahala, negar eta besarkada asko egon ziren, eta egunak martxa hartu zuen neurrian, *hemendik aurrera zer egin behar dugu?*, pentsatzen genuen".

### Hurrengo egunean bertan atera zuten egunkari bat

Baina lehenengo egunetik lanean hasi ziren *Egunkaria*-ko langileak, Mikel Lizarraldek esaten duen moduan: "Erabaki zen hurrengo egunean egunkari bat kalean egon behar zela; hemen gertatu zenaren berri eman behar genuela. Erabaki zen *Egunero* izeneko Tolosaldean egiten zen egunkaria ateratzea. Baina beste hamaika lan egon ziren: elkartasuna lortu behar zen, eta egun horretan telefonoari lotuta egon ginen; deiak egin komunikabideetara, kulturako eta kiroleko jendeari, politikariei... Egun horretan bertan kale agerraldia deitu zen Donostian, eta horrekin ere lan handia zegoen".

Lazkanok eta gainerako atxilotuek ez zuten horren berri: "Ez genekien *Egunkaria* itxita zegoenik; bagenekien atxiloketen gunean gaizki irtengo zela, baina itxierarena ez genekien".

### "Herria kalera irteteak nolabaiteko indarra eman zigun"

Segituan piztu zen *Euskaldunon Egunkaria*-rekiko babesa, leku guztietan eta Debagoienean ere bai. Mikel Lizarraldek honela gogoratzen du: "Euskal Herri osoan, herria kalera irten zen; ikusi zuen izugarrizko erasoa zela, eta nik uste dut *Egunkaria* -ren irakurle ez zena ere erasotua sentitu zela. Euskal Herriko herri guztietan egin ziren kontzentrazioak, manifestaziorako autobusak... Horrek, nolabait, indarra eman zigun".

Fermin Lazkanok honen berri txikia jaso ahal izan zuen: "Auzitegi Nazionaletik kartzelara bidean, urrats batzuk zeuden eta jende mordoa ikusi genuen plazan, deiadarka; agur egin nien, eta orduan konturatu nintzen tentsio bat zegoela eta larria zela kontua. Nik irteterakoan ikusi nuen hori dena, eta zerbait handia egiten genihardulea konturatu nintzen. Bai, kulturgintzan zenbait urrats egin genituen, baina herrigintzan zelan sartu zen eta zelan maite gintuzten ondoren jakin genuen; laztu egiten zait ilea orain ere, hori gogoratzerakoan".





10. urteurreneko ekitaldian. | L.K

## "Berriz halakorik ez dadila gerta, hori eskatzen dut"

Bi bergararrek ez dute uste orain 10 urte gertatu zena errepikatu daitekeenik. Baina zenbait eskaera dituzte: "Nik eskatuko nuke orduan egin ziren tortura salaketa guztiak benetan ikertzea, baina badakit dela hori gertatuko. Eskatuko nuke orain 10 urte hau dena bultzatu zuten batzuek, edo isilik egon ziren beste batzuek, onartzea zer egin zuten. Bestalde, beste operazio bat egon zen eta hor oraindik jendea dago inputatuta, eta izugarrizko zigorrak eskatzen dituzte eurendako. Bada ordua erabat ixteko", esaten du Mikel Lizarraldek.

Fermin Lazkanok hau erantzuten du: "Berriz halakorik ez dadila gerta. Ni prozesatua ez nintzen izan, baina bezperara arte egon nintzen zigortua, eta astero epaitegira joaten, diru kontuak geldirik, pasaporterik gabe… sei urte eta erdiz. Eta gero jakiten dut ez nagoela prozesatuta".

## "Tokiz toki, denok makal gabiltza; ez da askorik aurreratu"

Gertakari haiek Fermin Lazkanok "atzo bezalaxe" ikusten ditu eta ezkorra da: "Nik uste dut Madrildik ez gaituztela desberdin ikusten. ETA geldi dago, hainbat urrats egin ditu, kulturgintzan aurrera egin dugu, giza mugimenduek ere bai; baina presoek hor jarraitzen dute, independentzia aldarria gauza arraro bezala ikusten da, eta oraindik krisi larrian gaude. Hedatu egin da herrigintza eta Euskal Herria bere izaera independientean indartu da; baian tokiz toki, puntuz puntu bazoaz, denok makal eta erdizpurdiz gabiltza. Ez da askorik aurreratu".

Mikel Lizarraldek hauxe erantzuten digu: "Momentu hartan, Aznarren gobernua oso tematuta zegoen euskararen kontra, abertzaletasunaren kontra… dena zaku berean sartu nahi zen eta lotsarik gabe eta inolako mugarik gabe itxi egin zuten *Egunkaria*. Aurrera egin genuen, baina oraindik zauri hori hor dago".

## "Euskarazko komunikabideendako mugarria izan zen"

Euskal komunikabideek izan duten eraginaz, hau dio Lizarraldek: "Egunkari bat ixtea lehenengo kaltea da. Neurri baten, euskarazko komunikabideen artean ere elkarlana bultzatzeko mugarri bat izan zen hura. Orain beste proiektu batzuk ere badaude, elkarlanean sortuak".

Lazkanoren iritziz, "egun euskal komunikabideak batuta gaude, oihartzuna daukate, onartuta daude; orain badago esparru komunikatiboa euskaraz, profesionala eta ganorazkoa. Beraz, lagundu badu, ongi etorria. Esparru komunikatiboan asko aurreratu da, eta nire etsipen hori asko erlatibizatzen dut zentzu horretan".

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Joan Mari Torrealdai (eskumatik bigarrena), ekitaldian. | L.K.

## Auzi ekonomikoa zabalik dago

Joan Mari Torrealdaik 10. urteurren ekitaldian gogora ekarri zuenez, ez dago Egunkaria auzia itxitzat emateko, "harik eta auzi ekonomikoa amaituta ikusi arte". Auzi hori Donostiako epaitegian zabalik dagoela eta zortzi lagunendako "zigor eskariak beste auzian baino askoz handiagoak" direla esan zuen.

Bestalde, esan zuen "oso gogoan" dituztela euren alde egin duten erakundeak "eta euskaldungoa, gizartea bera".





Oñatiko Udaleko, Aranzadiko, Diputazioko, Elkar Hezi ikastetxeko eta Kristau Eskolako ordezkariak, Oñatin. | GOIATZ ARANA

# 'Zero zabor' tailerren lehen esperientzia Oñatin izan da

Atzo, eguena, egin zuten Elkar Hezi ikastetxean; hiru tailer egingo dituzte

**GOIATZ ARANA** | OÑATI

Aranzadi zientzia elkarteak, Ikastolen Elkarteak, Kristau Eskolak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Hala, *Zero zabor* filosofia oinarri hartuta, Aranzadi elkarteak sekuentzia didaktiko bat eta tailerrak egiteko konpromisoa hartu zuen; Ikastolen Elkarteak eta Kristau Eskolak Zero Zabor programa euren jardunean txertatzekoa eta Gipuzkoako Foru Aldundia diruz laguntzekoa.

Hain justu ere, hiru tailer egingo dituzte Gipuzkoako ikastola, eskola eta Kristau Eskoletako Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako ikasleek, eta Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean abiarazi zuten atzo esperientzia, kontuan izanik hondakinen trataera dutela aurten gai nagusi.

## Konposta eta beste

Oñatiko lehen tailerrean birziklapen, berrerabilpen, beheratze edo murrizte eta birpentsatze kontzeptuak landu, hamaiketakoarekin sortutako hondakinak neurtu eta aztarna hori gutxitzeko konpromisoak hartu dituzte.

Konpost tailerra izango da bigarrena. Datorren astean egingo dute: konposta zer den eta prozesua nolakoa den azalduko diete ikasleei eta konpost-ontzi bat muntatuko dute. Eta ekimena borobiltzeko, ikasturte amaieran, hirugarren eta azken tailerra egingo dute, ikasitakoak errepasatu eta ondorioak ateratzeko. Guztiak ere, saio praktikoak izango dira.

## Ekimen "eredugarria"

Ekimena eredugarritzat jo du Foru Aldundiko Ingurumen zuzendari Ainhoa Iraolak ere, ingurumenarekiko kezka eta hondakinen arazoari aurre egiteko jarrera arduratsua daudela erakusten duelako, bere esanetan. Hondakinen arazoaren gakoetako bat ohitura aldaketa dela adierazi du, eta tailer hauek etorkizuneko belaunaldien kontzientziazioa areagotzen lagunduko dutela azpimarratu du.

## Bigarren fasea

Eskoletako Zero Zabor tailerren lehen fasea martxan jarrita, bigarren fasean, DBHko lehen eta bigarren mailetara hedatuko dute ekimena. Aurten diseinatuko dituzte edukiak, jarduerak eta material didaktikoa, eta datorren ikasturtean hasiko dira ezartzen. Asmoa da hirugarren ikasturte batean, ekimena Gipuzkoako ikastetxe denetara zabaltzea.

# Debagoieneko II. Artzain Eguna martxoaren 2an egingo dute Oñatin

XIII. jardunaldi gastronomikoen ekimenetako bat da hori; Aste Santura bitartean, martxoko aste guztietan izango da ekitaldi bereziren bat

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

Bildotsa, Debagoieneko ardi esnekiak eta peiak izango dira oinarri XIII. jardunaldi gastronomikoetan. Eguaztenean aurkeztu zuten aurtengo proposamena, baina asteburuaz geroztik daude martxan, apirilaren 7ra arte.

## Menu bereziak

Arrasateko Hilarion eta Santa Ana; Bergarako Lasa eta Zumelaga; Elgetako Maialde; eta Oñatiko Etxe-Aundi, Goiko Benta eta Soraluzek parte hartzen dute jardunaldietan; zortzi jatetxe horietan eskainiko dituzte menu bereziak, 32 eta 46 euro arteko prezioetan. Menu horietakoren bat dastatzen dutenek, gainera, 2x1 delako txartela jasoko dute, Debagoinean egin daitezkeen bisitetako bat prezio berezian egin ahal izateko.

Azken batean, Debagoienean dauden baliabide gastronomikoak balioan jartzea du helburu ekimenak, lehen, bigarren eta hirugarren sektoreak elkartuz, eta aitzindari da Gipuzkoan eta Euskal Herrian.

Horrez gain, bisita gidatuak ere jasotzen ditu eskaintzak, bertako produktuen jatorria eta ekoizpena lehen eskutik ezagutzeko: nekazaritza ekologikoko Antzuolako Lapatza baserria, Aretxabaletan bertako okela ekologikoa ekoizten duen Mendibitzu baserria eta Arantzazuko Gomiztegi kooperatiba bisitatu ahalko dira, aurrez izena emanda betiere. Eta Leintz Gatzako Jakion barazki eta fruta kontserbagintza enpresa eta Gatz Museoa bisitatzeko aukera ere bada.

Eta horrez guztiaz gainera, martxorako azoka eta dastatze bereziak iragarri dituzte. Lehena martxoaren 2an izango da: II. Debagoieneko Artzain Eguna, Oñatin.



Mankomunitateko eta inguruko jatetxeetako ordezkariak. | JULEN IRIONDO

# Etxeko konpostatzearen inguruko jarraipena egingo du Mankomunitateak

Konpostatzearen eta haren funtzionamenduaren datu bilketa eta balorazioa egitea da helburua

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Datozen asteotan, etxeko konpostatzearen gaineko jarraipena egiteko kanpaina abiaraziko du Debagoieneko Mankomunitateak. Atzo, eguena, jakinarazi zuenez, "telefono deien bidez lehenik eta bisita eginez ondoren" informazioa batuko dute.

Hain justu ere, herriz herri egingo dute hori: "Antzuola, Bergara eta Oñatin hasi, eta ondoren, gainontzeko herrietan", xehetasunen arabera.

Izan ere, informazioa, Debagoieneko Mankomunitateko udaletxeek 2005-2012 urte arteko kanpainetan hasi eta aurtengo Aste Santua bitartean banatutako konpostagailua duten bizilagunen artean batzeko asmoa dute. Bestela esanda, Antzuola, Oñati eta Bergarako bizilagunez gainera, Arrasatekoek, Aretxabaletakoek, Eskoriatzakoek, Elgetakoek eta Leintz-Gatzagakoek ere parte hartuko dute Mankomunitatearen kanpaina horretan.

Bestalde, kanpaina Mankomunitatearena izan arren, kanpo -lana (telefono deiak zein bisitak) konpostaje arloan diharduen Vermican enpresa nafarrak egingo duela ere jakinarazi dute.

## Norbere kabuz dihardutenak

Orain abiarazi duten kanpaina honen berri emateaz gainera, Debagoieneko Mankomunitateak norbere kabuz konpostagailua duten ibarreko bizilagunei dei egin gura die, jarduera "honen berri norbere udaletxean eman dezaten. Jarraipena burutu, eta hala balitz, dagokien hobaria aplika diezaieten".

## Protesta ekimenak erresidentzietan eta egoitzetan

ELAk eta LABek hiru eguneko greba eta mobilizazioak deitu dituzte Gipuzkoako erresidentzia eta helduen eguneko egoitzetan. Otsailaren 27 eta 28 eta martxoaren 1erako deitu dituzte protestok. Orokorrean, "lan baldintzen kaskartzea eta okertzea" salatu gura dute. Besteak beste, salatzen dute urteotako lan baldintzen eskasteari "Raxoik egindako lan erreforma" gehitu behar zaiola: "Patronalari ahalbideratzen dio soldaten 400 euroko murrizketa egitea eta 200 orduko lana gehitzea". Gogora ekarri dute Diputazioaren proposamena ez duela "onartu nahi izan patronalak".

## Euskara ikasteko ia 400.000 euroko dirulaguntzak

Euskara ikasteko 394.543 euroko dirulaguntza emango du Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako Zuzendaritzak 2013an, eta hala eskatzen duten udalen bidez bideratuko dira laguntzak. Horri esker, euskalduntze ikastaroen matrikulazio kostua eta barnetegi moduluetako kostuak txikiagoak izango dira euskara ikasten dabiltzanendako. Lanik ez dutenek lehentasuna izango dute; "modu honetan lan bila ari diren herritarrei lagundu nahi die Aldundiak, formazioa osatu eta euskara gaitasuna hobe dezaten", esan du Zigor Etxeburuak, Euskara zuzendariak.

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




## ADI EGON!

**Astelehenean, hilaren 25ean, OTSAILEKO SARI hauen guztien IRABAZLEAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak aditzera emango ditugu.**

- **Aisia Deba** hotelean:
  - 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala (3 bonu)
  - 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua). 2 bonu.
- Nafarroako (Lizarra) **AROA upategian**.
  - Bisita gidatua eta bazkaria 4 pertsonarentzat (2 sari).
  - 12 kaxa ardo ekologiko.
- **Arrikrutz** kobetarako 10 sarrera.
- **Peter Pan** musikalaren 15 DVD.






**MARTXOAN SARI GEHIAGO**

- Baserrisareari esker otarreak.
- Arrikrutz kobetarako sarrerak.
- Aisia Deba hoteletako bonuak.

ADI EGON

## IRABAZLEAK

Espaloia Kafe Antzokiko Dani Mateoren monologo saiorako bina sarrera.

**Aloña Mondragon** (Antzuola)

**Igor Oskoz** (Aretxabaleta)

**DESKONTUAK:** *www.goienakluba.com*



## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

**Mikel Ozaita** | Gizarte antropologoa eta Topaguneko teknikaria

# "Hizkuntzak munduko kultura altxorrak dira eta denok gaude behartuta horiek babestera"

- Hizkuntzen teknologiaz eta aniztasun kulturalaz jardun du Ozaitak, Jardunek gonbidatuta
- Gure ekarpen kulturalean "hizkuntzak berebiziko garrantzia" daukala dio

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Hizkuntzen ekologia geroago eta gehiago erabiltzen da soziolinguistikan-eta. Gai hori hartuta berbaldia eskaini du Bergaran Mikel Ozaita Topaguneko teknikariak. Oro har, munduko hizkuntzen harremanak eta hizkuntza aniztasunaren balioa izan ditu berbetagai gizarte antropologoak.

**Euskara Elkarteen Federazioak, Topaguneak, kongresuak egin ditu Bilbon azken bi urteotan. Ze ondoriotara ailegatu zarete?**

Euskara elkarteak sortu ziren txanpinoiak bezala eta orain arte ibili dira nor bere txokoan lanean. Aurrerantzean, gizarte mugimendu batean egituratu dira, orain arte egindakoa birpentsatu da, gaur egungo egoeretara egokituz. Bestalde, ahalegin berezia egin behar dute elkarteek bulegotik plazara jaisteko, eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak bultzatu behar dira.

**Hizkuntzen ekologia geroago eta gehiago entzuten den eta erabiltzen den kontzeptua da. Zer da, zeri buruz dihardugu hizkuntza ekologiari buruz dihardugunean?**

Munduko hizkuntza aniztasuna oso aberatsa da; 6.000 hizkuntza ezberdin daude munduan, baina bi astetik behin hizkuntza bat galtzen da. Hizkuntzak gure ekarpen kulturalean berebiziko garrantzia dauka. Horregatik zaindu eta errespetatu behar dugu hizkuntza aniztasun hori. Bestalde, hizkuntza ekologia hiru ildotan banatzen dugu: ezagutza zientifikoa (hizkuntzak eta bere ingurunea…), etika (balioak, hizkuntzen arteko bizikidetza bermatzeko gakoak) eta, azkenik, ekintza (egoera gutxituan dauden hizkuntzak normalizatzeko ze prozesu, ze ekimen, antolatzen den).

**Hizkuntza aniztasuna aberasgarria, onuragarria eta eraginkorra da?**

Bai. Ikuspegi globaletik begiratuta, kultura bakoitzak mundu ikuskera bat dauka, berezia, berea, propioa. Horregatik, gizaki bizidunen zaintza onartuta daukagun moduan, gizakiak sortutako adierazpen kultural bat, hizkuntza, ezin dezakegu galtzen utzi. Zaindu, bermatu, egin behar dugu haren iraupena.

**Zeintzuk dira hizkuntzen ekologiaren, hizkuntza aniztasunaren, oztopo nagusiak?**

Hamahiru aipatzen ditugu guk. Esate baterako: estatuak sortu zirenean, ez ziren aintzat hartu kulturak, hizkuntza komunitateak… Eta estatu bakoitzak bere hizkuntza aldarrikatu zuen, beste hizkuntza batzuen kaltetan. Bestalde, kolonialismoak ere kalte handia egin zion hizkuntza edo kultura aniztasunari… Eta aipatu behar da, era berean, hainbat hiztun komunitateren lege babesik eza, bere kultura propioa garatzeko; edo botere ekonomikoak, guduak, migrazio mugimenduak, kultura asimilazioak…

**Mundu globalizatu honetan, nazioarteko hizkuntza handien gehiegizko erabilpena zelan saihestu daiteke?**

Gakoa da hizkuntza konkretu batzuen, indartsuenen, gehiegizko erabilpena. Eta hori saihesteko modua da hizkuntza bakoitzaren esparrua, funtzioa… zehaztea. Demagun, Donostian, nazioarteko kongresu bat egiten bada, logikoa da ingelesez egitea. Baina, egiten bada Euskal Herriko kontuen gainekoa, euskal eragileekin, euskaraz izan beharko luke. Hegemonia guneak zehaztea eta hizkuntza txikiek hegemonia gune horiek irabazten joatea da gakoa. Hizkuntzen ekologiaren ikuspegitik, munduko aniztasuna zaintzeko guk egin dezakeguna da geurea zaintzea, euskara zaintzea. Eta, horregatik, esaterako, Goiena euskaraz da, eta Debagoieneko hizkuntza komunitateari egiten dion oinarri oinarrizko ekarpena oso garrantzitsua da. Arrisku egoeran dagoen euskara, normalizazio egoeran jartzea izango litzateke geuk munduko hizkuntza aniztasuna bermatze aldera egin genezakeen ekarpen nagusia.

**Mundu mailako erakundeek, estatuek, zein erakunde lokalek, hizkuntza aniztasuna bultzatzeko ahaleginik egiten dute, tresnarik jartzen dute?**

Nazioarteko tratatuak badaude, Europako Hizkuntzen Legea eta beste, baina errealitatea da lege edo tratatu horiek ez dituztela aintzat hartzen estatuek.

**Hizkuntzen aniztasuna bermatzeko eta hizkuntza txikiak biziraupeko, zer da garrantzitsuagoa, estatuen edo erakundeen borondatea eta neurriak, edo hiztunen euren borondatea eta hizkuntzaren erabilera?**

Biak dira ezinbestekoak. Norbere eskuetan dagoena egin behar du bakoitzak. Eta erakundeek ere beren zeregina dute. Ekologismoa, feminismoa… hasieran, bazterreko edo muturreko aldarrikapenak ziren. Gerora, botereak asimilatu ditu. Batzuetan gertatzen da botereak herri mugimenduaren proposamenak hartu eta edukiz husten dituela eta horrekin kontuz ibili behar da. Europan 60 hizkuntza daude, baina bertako hizkuntza ofizialak 20 dira. Europako erakundeek eurek ere errespetatu behar dute duten altxorra, ze ez gabiltza hizkuntza kolonizatzaileez hitz egiten, bertakoez baizik. Hizkuntzak munduko altxorrak, aberastasun kulturalak, dira eta behartuta gaude zaintzera eta horretarako neurriak jartzera, bai pertsonok eta baita erakundeek ere.

**Hizkuntza txiki asko desagertzeko joera hori saihestezina da?**

Globalizazioarekin, industrializazioarekin eta botere ekonomikoen garapenarekin, hizkuntza batzuk desagertzen doaz. Zer egin? Guk geuk, euskaldunok, geurea zaindu eta gure esperientzia zabaldu. Garabidek egiten du hori, esaterako, hizkuntza indigenekin.

**Internet, teknologia eta hedabide berriak, har ditzakegu hizkuntza aniztasunaren etsai moduan?**

Inprenta izan zen hizkuntza txikien galerarako tresna, hizkuntza boteretsuenen alde. Baina teknologia berriekin jarraipen eta irekidura bat eman daiteke eta jakin behar dugu teknologia berriak erabiltzen, hor egoten. Mundu aurreratu honetako baliabide ahalik eta gehienak baliatu behar ditugu euskal hiztunen komunitatea puntan egon dadin.

**Gizakiaren joerak kezkagarriak dira hizkuntzen biziraupenerako eta hizkuntza ekologiarendako?**

Behar dugu baikortasun kritikoa, ekintzarako egokiena delako. Ezkortasunak etsipena dakar. Euskara arriskuan dagoen hizkuntza da, baina arrisku bigun egoeran dago. Ezin gara erlaxatu. Munduko hizkuntza aniztasunari egin diezaiokegun ekarpenik onena da geure bultzatzea. Unibertsaltasuna etxetik hasten da. Mundura irekia, baina etxekoa babestuta.

**Amaitu berri da *Badu bada* erakusketa, euskararen gainekoa. San Telmo museoko bisitatuena izan da…**

Erakusketaren oso balorazio positiboa egiten dut. Beste hizkuntza batzuetako jendea ere etorri da erakusketara eta aukera eman digu euskara ze egoeratan dagoen ezagutzera emateko. Laburbiltzen diu ondo azkeneko urteotan denok egin dugun lana eta azpimarratzen du oraindik ere gutxiengoan gaudela. Beste dohain bat ere badu erakusketak eta da geure hizkuntzaren gaineko erakusketa geuk egin dugula, geure, euskaldunon, ikuspuntutik. Bazen garaia!




Mikel Ozaita, Topaguneak Andoainen daukan egoitzan. | TOPAGUNEA

**"Errealitatea da lege edo tratatuak ez dituztela aintzat hartzen estatuek"**

**"Euskarak jakin behar du teknologia berriak erabiltzen, hor egoten"**

**"Unibertsaltasuna etxetik hasten da: mundura irekia, etxekoa babestuz"**

**"Badu bada'-rekin, geure hizkuntzaren gaineko erakusketa geuk egin dugu"**

ZABALIK



**JOXEMARI MUXIKA**
http://goiena.net/iritzia/

# 25 urte indarrean

Google Analytics eta CIESen, eta lehenago Aztiker-en, azterketek baieztatzen dutenez, jendearen oniritzi berezia daukate Goienaren komunikabideek eta azken urteotan nabarmen hazten ari da Goienak gizartean duen zabalkundea.

Datu hauek aztertzean, galdera hauxe sortu zait: nondik dator Goiena? Izan ere, indartsu ikusten da egitasmoa, baina komunikabideen egoeraz irakurtzen denak, berriz, zalantza asko sortzen ditu izango duten etorkizunari buruz. Goienak izan duen 25 urte hauetako (1988-2013) hazkunde prozesuan sorrera garaian hartutako erabakiek eragin zuzena dutela irizten diot.

**"Sorrera garaian hartutako erabakiek eragin zuzena dute"**

Egungora iritsi den Goiena komunikazio zerbitzuaren hasiera 1988an izan zen, AED Elkarteak sortu zuen *Arrasate Press* aldizkariarekin. Handik bi urtera *Berrigara* sortu zen. Bi aldizkari hauek bidea erakutsi diete ondoren etorri diren beste tokiko aldizkari askori. Baita *Euskaldunon Egunkaria* argitalpena sortzeko lanean zebiltzan Egunkaria Sortzen-eko bultzatzaileei ere, proiektu hura aurrera eramateko adorea emanez. Honetaz gain, 1990ean jarri zen martxan lehen euskarazko tokiko telebista, ATB (Arrasate Telebista), aurrerago GoienaTBren sorreran bultzatzaile izan zena.

Sortzetik gaur egun arte lau ezaugarri daude komunikabide proiektuaren oinarrian: asteroko erritmoarekin argitaratzea aldizkaria; behar finantzarioa betetzeko bi iturri erabiltzea, merkatarien iragarkiak eta diru laguntza publikoa; multimedia ikuspegia aplikatzeak dituen abantailez baliatzeko gaitasuna izatea eta informazioa batzeko irizpide argia erabiltzea, tokiko gertakizunei eta iritzi guztiei lekua ematea elkarrekiko errespetuarekin. Horri guztiorri Debagoieneko Euskaldunen Elkarteek egindako apustua eta elkarlanean emandako sostengua erantsi behar zaio.

Egitasmoarekin bete-betean asmatu zuten sortzaileek eta begi-bistan dago ez direla alferrik galdu 25 urte.

USTEAK USTE

**LEIRE KORTABARRIA** | lkortabarria@goiena.com

# Auto bako bizitza... Oñatin

Berriz Oñatiko autobus faltarekin? Bai, berriz. Eta behar den aldi guztietan. Protesta egiten gabiltzan urte guztietan, oraindik arazoa ez delako behingoz konpondu. Oñatin ezin garelako bizi izan autorik ez badugu edo edozein premia edo larrialdi agertuta, edozein momentutan, autoz eroango gaituen norbait ez badugu. Bada, horrelako jende asko dago Oñatin. Denok ez dugu autoa edo ezin dugu autoz edonora joan, edozein momentutan. Eta Arrasatetik Oñatira etortzeko 35 minutu itxoin beharra –edozein ordutako autobusa hartuta ere– ez da bizi-kalitatea; ez, gure zerga-ordainketa mailari dagokiona. Bidegorria, garrantzitsua? Bai; garraio publiko duina, are gehiago.

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




HANDIK ETA HEMENDIK

# Nolakoa izango da Durangoko 48. azoka?

**Mikel Iturria**
http://eibar.org/blogak/iturri/

Bai, nolakoa izango da 48. azoka? Eta 49.a? Eta 50.a? Eragile guztiak elkar ulertzera kondenatuak daude.

Euskadi Irratia izan zen Gerediaga Elkarteak Aiert Goenagaren lan-kontratua eten egin zuela iragarri zuen komunikabidea. Nik *Zuzeu*-n irakurri nuen: *Aiert Goenaga proiektutik kanpo utzi du Gerediaga Elkarteak.*

Kanpotik ez da erraza jakitea zer gertatu den. Zuzendaritzan giroa nahasia zegoela entzuna nuen, baina gehien harritu nauena izan da Gerediaga Elkartearen komunikazio-politika. Egun batzuk lehenago jakinarazi omen zioten Goenagari albistea, baina kosta egin zitzaion Gerediagari oharra argitaratzea (kontratuaren ez berritzea, pdf lotura).

Berandu eta gaizki ibili ziren, albistea plazaratu ondoren, atzetik: "Aiert Goenagak Azokaren eredu berria finkatzen ahalegin handiak egin ditu baina, zoritxarrez, ez du zintzo jokatu Gerediaga Elkartearekin" (pdf loturan ikusten da hutsuneak daudela hitzen artean, berridazten ibili izan balira bezala). Normala denez, kaltetuak bere burua defendatu behar izan zuen eta Ahotseneako arduradunak, Gotzon Barandiaranek, pazientzia galdu.

Bere garaian esan zen oso arrakastatsua izan zela 2012ko edizioa. Hala ere, hemen ere baina: "Aurtengo Azoka arrakastatsua izan da bisitarien aldetik, milaka etorri dira geurera, baina uste baino galera ekonomiko handiagoa eduki dugu". Nola neurtzen da Azokaren arrakasta?

Aitortu behar zaio Gerediaga elkarteari urte hauetan guztietan egindako lana, baina elkarteak ere zintzo jokatu behar du bere buruarekin eta gainerakoekin eta ondo pentsatu zein izan beharko lukeen bere papera hemendik aurrera.

Karmelo Landaren proposamena dago igandeko *Berria*-n: *Gerediaga, Goenaga eta eragileen alde.* "Gerediaga, praktikan, 'instituzioen Instituzioa' bihurtu da 47. Azoka honetan", dio Landak.

Alberto Barandiaranek *Azoken ereduak* izeneko artikulua sinatu zuen larunbatean *Berria*-n. Gune ezberdinek zer-nolako arnasa eman dioten Azokari berari aipatzen du bertan Barandiaranek. "Ahotseneak aurpegiak erakutsi zituen. Tokia eman zien idazleei, musikariei".

Hori guztia ez omen dago ezbaian. Irakurri dugunez, osteguneko bilera tiraberatsua izan bazen ere, gustura eta itxaropentsu atera omen ziren guneetako arduradunak. Espero dezagun gauzak baretzea eta konponbidea aurkitzea, euskal kulturarentzat, are gehiago industriarentzat, plaza ezinbestekoa baita Durango.

Ezinbestekoa bada, baina indartu beharra dago antolakuntza. Askok aipatu izan dute plan estrategiko bat egina dagoela. Nik ez dut ezagutzen, baina pena ematen du ikusteak euskal kulturaren (industriaren) erakusleiho den azokak zein zutabe ahulak dituen.

Goenaga berriro hartuko dute? Haren ordezkoren bat izendatuko dute? Ez dute inor hartuko? Erantzunik gabeko galderak oraingoz.

Eragile guztiak elkar ulertzera kondenatuak daude. Ez dago beste aukerarik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Eskerrik asko!

**Patricia Prats, Malen Gurrutxaga eta 'Yul' txakurra**
Arrasate eta Bergara

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu pasa den ostegunean (otsailak 7) Urkuluko urtegian izandako ezbeharrean laguntza eskainitako guztiei.

Geure txakurrak paseatzen genbiltzala, beraietako bat uretan sakonegi sartu zen, ur korronteak direla eta. Irten ezinean zegoela ikusita, gutako bat uretan sartu zen txakurra ateratzeko asmoz (besteak larrialdietara deitzen zuen bitartean, laguntza eske). Baina txakurra orduko nahiko urrun zegoen, eta, horretaz gain, ura hain hotza zegoen, itotzen hasi zen bera ere.

Momentu hartan laguntza eske garrasika hasi ginen, eta, zorte onez, gure oihuak entzun zituzten hiru mutil gazte agertu ziren eta biak onik ateratzea lortu zuten.

Une hartan ez genuen aukerarik izan egindako guztiarengatik eskerrak emateko, eta, gazte horien izenak ez dakizkigunez, lerro hauekin egin nahi izan dugu. Beraz, zuen laguntza dela eta, jaso itzazue gure eskerrik beroenak.

Mila esker, hiru gazteei, eta baita laguntza eskainitako gainontzeko guztiei ere.

## Eñaut Portuondori erantzuna

**Isabel Zabarte Arregi**
Arrasate

Ezagutzen ez zaitudanez, Eñaut, zure gutuna irakurri ondoren sentitu dugun min eta amorrua gutun honen bidez helaraziko dizut, nahiz eta ez den gure estiloa.

Lehenik eta behin, errespetu falta ikaragarria iruditzen zait guztiz errespetagarriak diren zure iritzi politikoak borobiltzeko gure ama zenaren izena erabiltzea. Ez duzu inongo zilegitasunik gure amaren izena modu horretan erabiltzeko, are eta gutxiago berak irakurri ezin duenean, erantzun ezin dizunean. Jakin, gure amak Jesus Mari jaio aurretik ere zapalkuntza jasan izan zuela, sufritu zuela. Jakin ere, zure ustez hain eskuzabala izan den "sistema demokratikoak" sekulako sufrimendua eragin ziola gure amari eta eragiten digula guri, preso eta iheslari politikoen senideoi. Eta jakin, gure ama oso harro egon dela beti bere semearekin, gure anaiarekin. Eta orain ere, dagoen lekuan dagoela duintasunez defendatuko duela bere semearen izana.

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Ander Lizarralderi erantzuna

**Aintzane Oiarbide**
Bergara

Joan den otsailaren 1ean nik idatzitako gutun bati bi astetan erantzuna eman diozu.

Nire idatzian jartzen nuena berretsi egiten dudala esan nahi dizut. Ez dut uste errauskailuari aurka egiteko minbizia bezalako gaixotasun bat une oro ahotan ibiltzeak eta "bosgarren edukiontzia = kantzerra" jartzeak errealitatearekin zerikusirik duenik. Jakizu jende asko ari dela gaixotasun hau sufritzen eta kalean horrelako kartelak eta pankartak ikusteak sufrimendua areagotzen diola. Halaxe esan dit bergarar batek baino gehiagok. Zuek ikusiko duzue zer lortu nahi duzuen kanpaina hauekin.

Europa osoan herrialde aurreratuenetan egiten dituzten hondakin tratamenduek, itxura denez, ez diote osasunari horrelako kalterik egiten, baina hemen erabat demonizatu duzue gaia. Esan nahi dizut Europako zenbait herrialde aurreratutan atez ateko sistema badutela, baita beste sistema batzuk ere, baina, halere, birzikla ezin daitekeena errausta egiten dute. Zer egin behar duzue zuek birzikla ezin daitekeenarekin? Gipuzkoa osoan zabortegi berriak eraiki harrobietan, edo gure zaborrak esportatu? Zabortegiak dira gehien kutsatzen duen sistema, zalantzarik gabe, eta horregatik debekatu ditu Europako Batasunak. Zer deritzozu horri?

Nik ez dut nahi belaunaldietarako, gure seme-alaba eta bilobentzako erreka, mendi eta basoak kutsatzerik. Horrela dio Europako zuzentarauak, hondakin gutxiago sortu, berrerabili, birziklatu eta birzikla ezin daitekeena balorizatu (errraustu) eta energia edo argindarra atera.Ez dut nik esaten, Europako zuzentarauek baizik. Hortik aurrera muntatu duzuen zirkua, atez atekoa errauskailua ez jartzeko aitzakiarekin (eta batak ez du bestearekin zerikusirik), kantzerraren izena herriari beldurra sartzeko eta antzeko kanpainek zuen urduritasuna ezkutatu nahi dute. Bularra atera eta "gu inor baino ekologistagoak gara" eta "guk beste inork baino indar gehiago daukagu jendeari beldurra sartzeko", "gu gara herriak kartelez betetzeko gehien mobilizatzen garenak" pentsatzeak ez dizue arrazoia emango.

Bergaran nabarmena da atez atekoaren aurka dagoela herriaren gehiengoa. Ia 5.000 sinadura eta balkoiak zintzilikatutako poltsaz beteta. Jende horrek guztiak ez al du eskubiderik atez ateko sistema baztertzeko eta birziklapena bosgarren edukiontziarekin egiteko? Ez al zaizue axola Herriaren hitza? Fragarekin konparatu nauzu zure azken erantzunean, eta ez diot inolako komentariorik egingo honi. Edonor konturatuko da zure noraeza noraino iristen den. Niri erantzutera prestu eta azkar ateratzen zara. Nire pertsonarenganako gorroto puntu batekin beti. Gaur egungo arazo ekonomikoak, politikoak eta edozein gaitakoak elkarrizketaz konpondu edo, behintzat, hobetzen dira.

Badira hilabete batzuk kafea hartzera gonbidatu zintudala aurrez aurre hitz egin eta eztabaidatzeko. Kafearen gonbita indarrean dago oraindik.

## Bizilagun zabor zintzilikatzaile

**Goizane Gabilondo Markes**
Eskoriatza

Eskoriatzako herritar naizen honetan, harrituta nago azken egunetan balkoietan agertu diren zabor poltsekin. Suposatzen jarrita, atez atekoarekin ados ez daudela ulertu dut. Honetara, nire bizipena kontatu nahiko nioke bizilagun horri.

Zaborren gaia borborka hasi zenean, nire buruan sortu zen lehenengo galdera zera izan zen: eta zergatik ez bosgarren edukiontzia?

Galdera honekin buruan, hitzaldi batera jo nuen. Hara non zeharo txundituta atera nintzen bertatik eta galdera erantzunda. Birziklatzen dugunok beste guztiek ere birziklatzen dutela suposatzen dugu. Inuxentea ni! Eskoriatzarren %30ek bakarrik birziklatzen dugu. Bosgarren edukiontzia, beraz, gutxi batzuek erabiliko genuke, eta hemen dator arazoa.

Orain arte ez dut jakin zehazki zer egiten den nire zaborrarekin (ez nintzen kontziente). Zuk badakizu? Sorpresa! Bailara txiki antzeko batean pilatu, ondo zapaldu eta gehiagorik kabitzen ez denean, belar berdez jantzitako mantoia jartzen da gainean. Ederto! Lur azpiko ur guztiak kutsatzen doaz sortzen diren milaka erreakzio kimikori esker.

Hitzaldi ostean zera dator nire burura: ene, ama! Gure Lur planeta ederra kakaz betetzen ari naizela eta ni enteratu gabe! Zer utziko diet nire oinordekoei, "kakaz"-ko mundu bat? Ez, ez, ez, hori ez!

Honen aurrean zeintzuk dira aukerak?

1-Bosgarren edukiontzia jarri. Herritarren %70ek erabiliko ez dutena. Horrentzat lasai, errauskailu bat eraikiko dugu eta kito. Lehenengo lurra eta orain airea kutsatu?

2-Ahalik eta zabor gutxien sortu eta atez atekoarekin birziklatze tasak igo. Askotan, haurrei zer dagoen ongi eta zer gaizki esaten diegu arriskuez kontziente ez direnean. Behartu egiten ditugu gauza batzuetara. Haurrak modukoak gara zaborren aurrean.

Antzuolara joateko gogoz nabil atez atekoaren errealitatea ikustera. Animatzen? Bidaian gustura hitz egingo dugu honetaz guztiaz.

Zure zain gelditzen naiz, bizilagun zabor zintzilikatzaile.

## Xalanan egunerokua (15 urte)

**Ainhoa Narbaiza eta Irene Larrañaga**
Bergara

Bigotia. Bekainak. Granuak. Ile plantxaua. Bularretakua. Titi perfektuak. Mitxelinak. Izardixa. Usaina. Garbixa. Hilerokua. Hanketako iliak. Eskaparatetako erropia. Panpina. Superneskia. *Naranja-erdixa.* Zu barik ez naiz ezebe. Printzipia. Dana eman. Sexua. Zeluak. Inbidia. Superlaguna. Etsaia. Argazkixak. Imitaziñua. Bildurra. Ridikulua. Lotsia. Nekatu ein naiz idazten, ta oindiokan jarraitxu ein biot? Askatasuna. Ausarta izatia. Akatsak. Indarra. Saiakerak. Konfiantzia. Naturala. Ni naiz.

## Bigarren mailako herritarrak?

**Josu Leturia**
(Bergara Garbia Herri Plataforma)
Bergara

Egunotan prentsan irakurri dugunez, Bilduk Donostian –Udala gobernatzen du han– hartu-emanak hasi ditu gainerako alderdi politikoekin, eta haiei proposatu die birziklatze-maila %60ra igotzea.

Proposamen horren oinarrian ez dago zabor-batze sistema konkreturik, eta, hortaz, sistema guztiei zabalik dago. Alderdi guztiak ados daude proposamenarekin, eta, horren harira, aurrera egitea erabaki dute; eta Bilduk dio hartu-emanak "oso positiboak" izaten ari direla.

Bergara Garbia Herri Plataformakook gure buruari galdetzen diogu, harrituta, ea Donostiako Bilduk ez dakien bosgarren edukiontziak arazo kantzerigenoak ekar ditzakeela, hura izango balitz aukeratutakoa. Ala sinetsi egiten dute Alduntzin jaunak esandakoa, "errauskailua ez dela txarra berez"? Ala badakite Holanda, Alemania, Austria, Belgika, Danimarka eta Suedia bezalako munduko herrialde aurreratu eta konprometituenek ekologiarekin eta ingurumenarekin zer egiten duten?

Bada, harriduraz ikusten dugu Bergarako Bilduk hori guztia kontuan hartzen ez duela eta atez atekoa inposatzen digula! Gure alkateak ez du uste Donostiarako eta Europarako ona dena bergararrendako ere ona izan daitekeela? Ala alkateak, agian, bigarren mailako herritar moduan hartzen gaitu, eta, hortaz, atez atekoaren zigorra merezi dugula?

Donostian zergatik uste dute "oso egokia" dela %60 birziklatzea, inolako aurre-baldintza barik, eta hemen, berriz, hasieratik exijitzen zaio %80koa (gero %70era murriztua) atez atekoa ez den edozein metodori?

Erantzunak nahi ditugu, alkate jauna. 4.691 sinatzaileok eta zabor-poltsekin –gehienak, zuk gobernatzen duzun herrikoak– protestatzen dugunok erantzunak exijitzen ditugu. Ez zaizkigu interesatzen atarteetako pantomimak, populismo mozorrotua eta berba hutsala. Zer da hori? Atez atekoaren beste modalitate bat?

Bergararrek uste dutena benetan jakin nahi baduzu, Bergara Garbia Herri Plataformakook aspalditik eskatzen ari garen eta behin eta berriz zure aurkaritza izan duen herri-kontsulta egin ezazu.

Oso erraza da.
Herri-kontsulta orain!

**Rosa Sarabia** | Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

# "Obesitateari aurre egiteko irtenbide mediko eraginkor eta segurua da"

## Sarabia doktoreak, Pronokal metodoan espezialista, kontsulta ireki zuen iaz Arrasaten

Rosa Sarabia doktoreak kontsulta inauguratu zuen iaz Udalaitz Zentro Medikoan, Arrasaten. Medikuntza estetikoan eta obesitatearen eta gizentasunaren gaineko tratamenduetan esperientzia dauka. Hala, bezeroei Pronokal metodoa eskaintzen die.

Metodo horren gainean konfiantza osoa dauka doktoreak; izan ere, emaitza eraginkorrekin demostratuta geratu da obesitate handia dutenen kasuan eta arrakasta barik askotariko dietak egin dituztenen kasuan. Metodo zientifikoa eta medikalizatua da. Pazientearen dietari, lan multidisziplinarra duen talde batek jarraipena egiten dio hasieratik bukaeraraino; baita bukatu ostean ere. Horrela lortzen da pisua eraginkortasunez galtzea eta, gainera, epe luzean mantentzea.



Rosa Sarabia doktorea, Sarabia klinikako zuzendaria Bilbon eta Pronokal metodoan medikuen formatzailea.

**Sarabia doktorea, zertan datza Pronokal metodoa?**

Medikalizatutako metodo pertsonalizatua da. Proteina oinarri duen dieta bat da eta helburua da, pazienteak galdutako pisua ez berreskuratzea. Gure asmoa da tratamendu hau bizitzan behin egitea eta metodoaren hiru etapak bukaeraraino eramatea. Koipeak eta azukrea murrizten ditugu, baina, gorputzeko masa muskularra gal ez dadin, proteina nahikoak mantentzen ditugu..

**Nori zuzendutako metodoa da Pronokal?**

Pisua galtzeko beharra dutenendako eta protokoloaren deskribapenean kontraindikaziorik ez dutenendako da. Bereziki, gizentasun maila handia dutenendako, eta pisua galtzeaz gain honi lotutako patologiak hobetu nahi dituztenendako: bigarren mailako diabetesa, arterietako hipertentsioa, kolesterola… Horregatik, oso garrantzitsua da proteina dieta jarraitzeko, betiere, medikuaren kontrolpean egitea.

**Sarabia doktorea, zein da zure lana?**

**"Galdutako pisua berriro ez berreskuratzea da helburua"**

Paziente bakoitzaren segurtasuna eta osasun egoera ona bermatzeko ardura daukat. Horretarako, pertsona egokia den erabaki behar dugu metodoarekin aurrera egin ahal izateko: zenbat pisu galdu behar duen eta fase bakoitza zein momentutan gainditu duen ebaluatu behar dugu. Mediku analisian oinarritzen gara, eta pazientearen azterketa fisikoan. Gainera, etengabeko jarraipena egiten diogu, eta, bere dietan gabeziarik egon ez dadin, beharrezko osagaiak errezetatzen dizkiogu.

**Diabetesa dutenendako zergatik da baliagarria Pronokal metodoa?**

Bigarren motako diabetesa eta obesitatea lotuta dauden bi patologia dira. Oso garrantzitsua da diabetesa duen pertsonak bere pisu orekatuari eustea, arazoak eta bihotzeko arriskuak saihesteko. Pronokal metodoa oso eraginkorra da, betiere, medikuaren kontrolpean eta multidiziplinarra den talde batek lagundutako ohitura osasuntsuak jarraitzen badira; luzaroan mantentzea da asmoa. Une honetan, Espainiako hamar ospitaletan Diaprokal izeneko ikerketa egiten ari dira. Proiektu klinikoa, irekia eta kontrolatua. Obesitatea duten paziente diabetikoen tolerantzia eta segurtasuna ebaluatzea da asmoa. Horretarako, proteina oinarri duen dieta kaloria askoko dietarekin alderatzen dute.

**"Eraginkorra eta pertsonalizatua da Pronokal metodoa"**

**Sarabia doktorea, zu medikuak formatzen zabiltza. Zer esan nahi du horrek?**

Mediku batek Pronokal metodoa errezetatzeko, oso kurtso zehatza egin beharra dauka. Oso harro nago nire lagun eta lankide diren medikuei pisua galtzeko aparteko tresna baten berri emateaz; gure pazienteen egoera hobetzeko denok jakin beharreko metodoa dela uste dut. Proteina oinarri duen dietak nire lanbideak eman dizkidan poztasunik handienak eman dizkit. Metodo horrekin 80, 40, 20 kilo... galdu dituzten pazienteak ikusteak, intsulina injektatzeari utzi diotela ikusteak edota metodo horri esker gazteek hondartzara joateari, dantza egiteari berriro ekin diotela ikusteak profesionalki bete eta konpentsatu egiten nau.

**Interesa duen pazienteak nora jo dezake informazio eske?**

Sarabia klinikak doakoa den lehen kontsulta eskaintzen dizue. Bertan, metodo honen gaineko informazio guztia emango dizuegu; betiere, modu pertsonalizatuan eta zientifikoki garatua izango dena. Gure esperientzia zabalaz, pazienteari segurtasun eta eraginkortasun osoa eskaintzen diogu.

Orain Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?


Rosa Sarabia doktorea
CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.
PronoKal® metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia
Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa
Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.
PSE: 37/04

# HERRIAK

ESKORIATZA

# Etxetik dakarzun ontzian eraman, gero konpostagailuan amaitzeko

- Poliki-poliki, arrain edo okela bila joateko ontziak erabiltzea sustatzen dabil Udala
- Esperientzia pilotua da, auzo-konpostarekin batera; biak erantzun onarekin

JON BEREZIBAR | ESKORIATZA

Eguneroko ohiturak aldatzeak ahalegina eskatzen du eta Eskoriatzan horretan dabiltza. Eguneroko erosketetan, harategian eta arrandegian, xerra edo sardinak biltzeko erabiltzen den paper eta plastikoa gutxitze aldera, erosketarako ontzia bera sustatzeko kanpainarekin dihardute, duela hilabete. *Ontziratu zaitez* ipini zioten izena kanpainari eta proba pilotuan bost denda –harategiak eta arrandegiak –sartu dira. Bezeroak konbentzituta bai, baina oraindik, ematen duenez, ideietatik akziorako urratsa falta da askoren kasuan. Poliki-poliki, ohitura zabaltzen dabil, halere.

**Lehen hilabete "balekoa"**

Bultzadatxoa emateko sustapenean dabil Udala: dendara ontzia daroatenen artean zozketa egin eta 50 euroko erosketa-txartela zozketatu du. 220 txartel banatu dira hilabetean. Hala, kanpaina, behintzat, ezaguna dela diote arrandegi eta harategietan. Pagaldaynean, esate baterako, Arantxa Igartua harakinak dio jendeak ezagutu bai, baina ohitura ez duela guztiz hartu. Hark azaltzen duenez, bezero asko lanetik etortzen dira erosketak egitera eta deserosoa suertatzen zaie "ontziarekin gora eta behera" ibiltzea. Jabi Altuna harakina ere uste berekoa da; hark azpimarratzen du jendeak zalantza asko duela, "ea zenbat ontzi eraman, gai ezberdinak nahastu egin behar diren... Asko jota, egunean bezero bat" joaten zaio hari ontziarekin.

**Arrain bila, ostera, bai**

Baina bai harakin eta baita bezeroak ere ideia ona dela konbentzituta daude; trabak traba eta ohiturak ohitura, bezeroek diote "esfortzuak merezi" duela. Arrandegietan galdetuta, ostera, erantzuna beste bat da: "Jende dezente" dabilela honezkero ontziarekin erosketa egiten. Aranburuzabala kaleko Leibar arrandegian diotena da hori, eta jendea prest joaten dela etxetik, "harrera ona" izan duela "lehen egunetik". Aurrera begira ogia batzeko paperik gabe erosteko kanpaina eta handizka ontziki berrerabilgarrietan erosteko kanpainak hasiko dituzte. Udalak, ildo honetan, 2012ko maiatzean hartutako konpromisoekin jarraituta, herriko kaleetako zakarrontziak aldatuko ditu, gaika banatuta, eta informazio bulegoa zabalduko dute.



Bezero bat, harategian, ontziekin prest. | JON BEREZIBAR



Dorletako bizilagun bat, konposta mugitzen. | J.B.

**Udala ere baikor**

Udalaren asmoak dira horiek, epe ertainera ezarritakoak, *zero zabor* helburuaren atzetik. Udaletik pozik agertzen dira emandako pauso "garrantzitsuek" izandako erantzunarekin. "Oso balorazio" positiboa egiten dute, Igor Lezeta Ingurumen zinegotziaren hitzetan. "Auzo-konposta" egiteko 32 familiak eman zuten izena Dorleta auzoan. Han, antza denez, "zoriontzeko modukoa" da auzotarrek izan duten inplikazioa, Saioa Altzua Ibarraundiko langileak azaltzen duenez, ze "bai kopuru zein kalitate aldetik oso ondo" baitabiltza auzo horretan. Zaharren egoitzako beste gunean "polikitxoago" dabiltza, antza, hondakin kopuru handia pilatzen da-eta, eta Altzuak berak dio hor ikasten eta laguntzen dabiltzala. Orokorrean, baina, egitasmoak baleko erantzuna izan du, proba pilotuak baitira. Honekin lotuta, Udaletik bertatik aurreratu dute auzo zein autokonpost kanpaina berriak egingo dituztela, eta auzoetan gune berriak egokitu. "Prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena" dira iparrak, Lezetak berresten duenez.

**Dorletar finak**

Itsaso Villar Dorleta auzoko erabiltzaileetako bat da eta hura ere pozik dago konpost-gune kolektiboarekin, bai hondakinak botatzeko sistemarekin eta baita konposta erabiltzeko aukerarekin ere. Orturako erabilko dute Villarren etxean, eta kontatzen du ohitura berrietara ohitzea ez zaiela kostatu. Bizilagunekin batera hilabetean ia kutxa osoa bete dute. "Astean behin edo birritan" joaten da Villar Dorletako gunera. "Hondakin organikoa bota eta nahastu egiten" dutela azaltzen du Villarrek, eta ikastarotxo batekin nahikoa dela, "benetan erraza" dela prozesu guztia. Egitasmoa herri osora zabaltzea erraza ikusten du.

**ESANAK**

"Jendea konbentzituta dago, baina ohitu barik"
JABI ALTUNA | HARAKINA

"Zero zabor' da helburua eta balorazioa oso positiboa da"
IGOR LEZETA | ZINEGOTZIA

"Bai kopuru eta kalitate aldetik Dorletan oso ondo dabiltza"
SAIOA ALTZUA | IBARRAUNDI

"Ikastarotxo batekin nahikoa izan zen, erraz ohitu gara"
ITSASO VILLAR | ERABILTZAILEA

**DATUA**

**220**
TXARTEL

Hilabete honetan 50 euroko erosketa txartelaren zozketan banatutako txartel kopurua.

GORBEIAN 3 ASTE

1.500€!

IRABAZTEKO EROSKETA TXARTELETAN

500 EURO ASTERO
OTSAILAREN 22TIK
MARTXOAREN 14RA BITARTEAN

Martxoaren 1ean 2 zozketa 250€-ko sari bakoitza

Martxoaren 8an 2 zozketa 250€-ko sari bakoitza

Martxoaren 15ean 2 zozketa 250€-ko sari bakoitza

Otsaila | Martxoa 2013

| LUNES astelehena | MARTES asteartea | MIERCOLES asteazkena | JUEVES osteguna | VIERNES ostirala | SÁBADO larunbata | DOMINGO igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | EROSI ETA PARTE HARTU 22 | EROSI ETA PARTE HARTU 23 | EROSI ETA PARTE HARTU 24 |
| EROSI ETA PARTE HARTU 25 | EROSI ETA PARTE HARTU 26 | EROSI ETA PARTE HARTU 27 | EROSI ETA PARTE HARTU 28 | 1 | EROSI ETA PARTE HARTU 2 | EROSI ETA PARTE HARTU 3 |
| EROSI ETA PARTE HARTU 4 | EROSI ETA PARTE HARTU 5 | EROSI ETA PARTE HARTU 6 | EROSI ETA PARTE HARTU 7 | 8 | EROSI ETA PARTE HARTU 9 | EROSI ETA PARTE HARTU 10 |
| EROSI ETA PARTE HARTU 11 | EROSI ETA PARTE HARTU 12 | EROSI ETA PARTE HARTU 13 | EROSI ETA PARTE HARTU 14 | 15 | 16 | 17 |

IMAGEN21

Parte hartzeko, egizu gutxienez 10€-ko erosketa bat eta sartu webgune honetan:

centrocomercialgorbeia.com

Sustapen honek 2013ko otsailaren 22tik martxoaren 14ra balio du. Oinarri osoak ikusteko sartu webgunean.

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Carrefour | Gorbeia | DECATHLON | Norauto | BRICO DEPOT | I'm lovin' it | merkal calzados | YELMO CINES | CIMER el outlet del electro | SAMIRA | CÓCTEL | CORTEFIEL | asian center | Mr. Wok asian bistro | Carrefour Viajes

# Makatzena auzoa zaharberritzeko, aurrekaririk ez duen esku-hartzea

- Hezetasun eta irisgarritasun arazoak konpontzeko plan berezia jarriko dute martxan
- Proiektua idazten dihardute orain eta hiru hilabete emango dute lan horretan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Makatzena auzoa zaharberritzeko plana aurrera doa. Proiektua zein puntutan dagoen azaltzeko prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean Mankomunitatearen egoitzan. Han izan ziren Inazio Azkarragaurizar alkatea, Luis Laskurain Suradesako arduraduna, LKSko Xabier Gezalaga eta Makatzenako komisioko kide Mikel Lopez de Arkaute eta Aritz Murua.

Zaharberritze-planean auzoko zortzi atarte sartuko dira eta horietarako Jaurlaritzak 1.815.000 euroko dirulaguntza emango du; hau da, 15.000 euro etxebizitza bakoitzeko. Hezetasun eta irisgarritasun arazoak konpontzea dira helburu nagusiak.



Makatzena auzoaren ikuspegi orokorra, Altamira auzotik asteon ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

**17 atarteetatik, zortzi aurrera**

60ko hamarkadan eraikia, Makatzena 17 eraikinek eta 225 etxebizitzak osatzen dute. Kontuan izanik egin nahi zenaren dimentsioa, aurrekontua 4.000.000 eurora ere irits zitekeela aurreikusi zuen Suradesak. Hala, Jaurlaritzako Etxebizitza Sailera jo zuen, dirulaguntza bereziak eskatzeko. Laguntza interesgarriak proposatu zituen Jaurlaritzak 2011ko udan aurkeztu zuen zirriborroan: %50eko laguntza itzuli beharrik gabekoa eta, gehienez ere, 15.000 euroko laguntza etxebizitzako. Beste erdia bizilagunek ordaindu beharko lukete. Hasieran, jabeen %75 baino gehiago ados zeuden proposamenarekin. Arazoa sortu zen 2011ko irailean argitaratu beharreko dekretua 2012ko uztailaren 27an argitaratu zenean.

Atzerapen horren ondorioak azaldu ditu Inazio Azkarragaurizar alkateak: "Horrek ekarri zuen planaren edukiaren aldaketa eta, ondorioz, auzotarrek sinesgarritasuna galtzea; frustrazioa sortu zen bizilagunen artean". Proiektuaren sustatzaileak komunitateetako jabeak izan direla argi utzi ostean, honakoa gaineratu zuen alkateak: "Azpimarratu gura dugu Udalak ahal izan duen neurrian lagundu duela, auzoan egindako bilera guztietan parte hartu duela eta aurrerantzean ere laguntzen jarraitzeko asmoa duela".

**Kostu beragatik, askoz gehiago**

Esandako moduan, 17 atarteetatik zortzi izango dira proiektuan sartuko direnak; 120 etxebizitza inguru. Honako lanak egin beharko dira, besteak beste: C energia ziurtagiria lortzea, oztopo arkitektonikoak kentzea, auto-aireztatzea eta isolamendua bermatzea hezetasun arazoak konpontzeko eta kontsumoak kontrolatzeko monitorizazioa gauzatzea. Hasieran, fatxada eta isolamendu lan txiki batzuk egitea aurreikusten zen: "Orain C energia ziurtagiria lortuko da, gai garrantzitsua dena, eta kasu askotan ezinbestekoak diren teilaberritze-lanak ere egingo dira. Bestalde, oztopo arkitektoniko guztiak kenduko dira. Hori argitu gura dut, hasieran egin behar zutena baino askoz gehiago egingo dela orain kostu beragatik", dio Luis Laskurainek, Suradesako arduradunak. Hala, Jaurlaritzak abiatutakoa aurrekari bako esku -hartzea izango da.

Auzotar batzordeko Mikel Lopez de Arkautek Suradesaren lana goraipatu du: "Udalak jartzen duen tresna hori gabe proiektu hau ez litzateke martxan jarriko". Orain proiektua idazten dihardute; hiru hilabete beharko dituzte.



Hainbat fatxadatan kalteak erraz antzeman daitezke. | J.B.



Irisgarritasun arazo nabarmenak ditu auzoak; eskailerak nonahi. | J.B.

**DATUA**

**15.000**

EURO ETXEBIZITZAKO

Jaurlaritzak 1.815.000 euroko dirulaguntza emango du, 15.000 euro etxebizitza bakoitzeko.

**ESANAK**

**"Udalak ahal izan duena lagundu du eta laguntzen jarraituko du"**

INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA

**"Hasieran egin behar zena baino askoz gehiago egingo da kostu beragatik"**

LUIS LASKURAIN | SURADESA

**"Udalaren tresna hori gabe proiektua ez litzateke martxan jarriko"**

MIKEL L. DE ARKAUTE | AUZOTAR BATZORDEA

## Revive planak %50 ordaindu

Bizilagunek orokorrean fatxadetan isolamendu lan txiki batzuk egin gura zituzten eta horren kostua 13.000 eta 14.000 euro artekoa zen. Suradesak, beharrezkoak ziren beste lan batzuk egin behar zirela–eta, 30.000 euro arterako kostua aurreikusi zuen etxe bakoitzeko. Jaurlaritzaren Revive planak %50 ordaintzen du; gehienez 15.000 euro etxebizitzako. Beraz, kostu berarekin beste hainbat lan ere egingo dira.



**TEOFILO MONTES**
AUZOTARRA

"Dirua guk jarri behar. Ez dut uste beste auzoren baten halakorik egin denik, nahiz eta inbertsio handiak egin. Konfiantza falta handia dago hemen egin gura dutenari begira".



**AMPARO BRASA**
AUZOTARRA

"Oztopo nagusia diru falta da. Familia asko egongo dira inork ez duena lanik egiten. Horrela nola egingo diegu aurre gastuei? Guk hezetasun arazoak ditugu bereziki".



**FELIX ARGUELLO**
AUZOTARRA

"Plana ondo dago ordaindu ahal duenarendako. Egoera ez da bizilagun bakoitzak 14.000 euro jartzeko modukoa. Arazo nagusia hezetasuna da".



**TOMAS ANTON**
AUZOTARRA

"Plan hau erortzeko zorian dauden eraikinei dagokie eta nik ez dut halakorik ikusten. Arazoren bat egon daiteke, baina... Bizilagun guztiak zaku berean sartu gaituzte".



Emakume talde bat agur frankista egiten Bergaran, 1938ko apirilaren 24an. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOA: TORIBIO JAUREGI FONDOA

# Emakumeek 36ko gerran egindakoa azaltzeko erakusketa

Ekin elkarteak Martxoaren 8ari begira antolatu du; argazkiak lortzeko bailarako artxiboetara jo dute

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Ekin Emakumeak elkartea erakusketa interesgarria antolatzen ari da Martxoaren 8ari begira: *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan* izenburu duen argazki erakusketa, hain justu. 2012ko irailean hasi ziren antolakuntza lanetan; adin askotariko pertsonek lantaldea osatu dute eta buru-belarri dabiltza argazkiak sailkatzen, aukeratzen eta erakusketa osatzen. Debagoieneko udal artxibo eta elkarteetara jo dute garaiko argazkien bila, eta, adierazi dutenez, "erantzun ona" jaso dute haiengandik.

**Emakumeak omentzea helburu**

1936ko gerran eta osteko diktadura frankistaren garaian emakumeek bizi izan zuten errealitatea ezagutzera eman nahi du erakusketak argazkien bidez, garaiko emakumeen bizipenak berreskuratuta eta ezagutzera emanda. Bestetik, gerraren eta diktaduraren ondorio latzak jasan zituzten emakumeei omenaldia egingo diete, gerra garaian eta frankismoan egindako lana goraipatuta. Martxoaren 8an irekiko dute erakusketa, Kulturateko klaustroan; martitzenetik domekara bisitatuko ahal izango da, 17:30etik 20:30era.

Irekiera ekitaldia arratsaldeko seietan egingo dute, eta, Ekin elkartekoek aurreratu dutenez, Arizmendi Ikastolako antzerki taldeak emango dio hasiera, kale antzerki batekin.

# Bi arrandegi itxi dituzte, langileei egun batetik bestera jakinarazita

**U.M. / J.B.** | ARRASATE

Olarte kalean eta San Andres auzoan zeuden Basoarte izeneko arrandegiak itxi egin dituzte asteon. Hala, zazpi arrandegi izatetik bost izango ditu Arrasatek. Langileek salatu dutenez, astelehen arratsaldean jakin zuten martitzenerako arrandegiak itxi egin behar zituztela. Ondarroako Basoarte katearen enpresariak, baina, ez du adierazpenik egin. Arrasaten orain dela zortzi urte zabaldu zituzten saltokiak eta orain arte bost langile zituen.

Mertxe Baglieto San Andresko saltzaileak adierazi duenez, abenduko pagatik hasita, orain arteko soldatarik ez dute kobratu. Eta joan den abuztuaz geroztik jakinekoa zuten enpresa ez zebilela ondo: "Ez dago arrainik, baina, ez du adierazpenik egin... eta ezta dirurik ere arraina erosteko". Langileak denda barruetan egongo dira, harik eta euren kaleratzeen gaineko dokumentazioa jaso arte. LAB sindikatuak jakinarazi du enpresariak asteon bidaliko duela kaleratze gutuna.



Baglieto eta Gartzia. | UBANE MADERA

## Ferixalekuko igogailuak itxiko dituzte: lehena datorren astean eta bigarrena martxo hasieran

Ferixalekuko igogailuak berriro itxi beharko dituzte, ezinbesteko konponketa lan batzuk direla-eta. Oraingoan, igogailuetako junturetan herdoila agertu dela da arazoa, eta Udalak adierazi du arazo horri konponbidea eman behar zaiola. Hala ere, ez dituzte bi ibilgailuak aldi berean itxiko: hilaren 25ean, 26an eta 27an, Ferixalekutik pasealekura doan igogailua itxita egongo da eta pasealekutik Altamirarainoko igogailua, berriz, martxoaren 4an, 5ean eta 6an itxiko dute.



**Josu Pereda** | Arrasateko Ingurumen zinegotzia

# "Atez atekoa ez dago zalantzan, osokoaren erabakia izan zen haren alde egitea"

- 300 lagun dabiltza auto-konpostatzea egiten
- Udazkena ezkero beste 150ek eman dute izena



Josu Pereda zinegotzia Arrasate Irratian. | U.M.

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Arrasateko Udalak hondakinen inguruko hausnarketa bultzatu gura du herritarren artean, eta haien kezka eta lehentasunak ezagutu. Horretarako, galdetegi bat banatu du asteon. Arrasate Irratian eman ditu xehetasunak Udaleko Ingurumen batzordeburu Josu Peredak.

**Zelako galdeketa egingo duzue?**

Etxe guztietara bidali dugu. Anonimoa da, laburra eta betetzeko erraza. Helburua da ezagutzea herritarrek zein kezka eta lehentasun duten hondakinen inguruan. Galdeketak bai eskatzen duela gogoeta txiki bat egitea, eta hori bultzatu gura dugu: herritarrek zer pertzepzio maila duten, guk ondoren komunikazio lan egokiagoa egiteko.

**Noiz hasi zarete galdeketarekin?**

Martitzen-eguaztenean banatu da, eta martxoaren 22ra arte erantzun daiteke. Arrasateko Udaleko webgunean ere linka dago Internet bidez bete eta bidali ahal izateko, eta jarriko ditugu postontzi batzuk udal eraikinetan (BAZen, Kulturaten, kiroldegian…), galdetegia behin beteta bertara bidaltzeko.

**Erantzunekin zer egingo duzue?**

Lehentasun-kezka-zalantzen emaitza guztiak jaso eta erantzuna emango du Udalak herritarren iritzien berri emanaz.

**Agertuko balira atez atekoaren kontrako erantzun asko, zalantzan legoke atez atekoa Arrasaten?**

Ez. Joan den urteko ekainaren 7an Udalak osokoan hartutako erabakia izan zen atez atekoaren alde egitea. Horren arrazoia da, behin eta berriro esan dugun moduan, guk (udalok) dugula hondakinen bilketaren eskumena; orduan, gure ahalegin guztiek joan behar dute bilketa selektibo hori ahal den eta efektiboena izatera, handiena izatera. Bidaltzen diren mezu batzuetan bilketak eta tratamenduak erlaziorik ez dutela esan arren, erlazio oso estua dute: bilketa nola egin, tratamendua hala egin beharko da, eta bilketa beste modu batean eginez gero, tratamendua beste bat izan daiteke.

> "Martxoaren 22ra arteko epea dago galdetegia erantzuteko"

**Datarik badu atez atekoak?**

Ez. Datorren urtea izango da, data konkreturik gabe, proiektua garatzen doan heinean orduantxe ezarpena egingo delako. Horrek lanketa teknikoa eskatzen du, eta aurre data jarri arren, batzuetan ez da izaten erraza teknikoki data horretara heltzea.

**Gazte Bulegoan bada zabalik herritarrei azalpenak emateko gunea. Zelako erantzuna izan du?**

Joan den eguaztenean egon ginen, baina lehen eguna eta Aratuste ostekoa izanda (egun nahiko triste eta euritsua), ez zuen harrerarik izan. Baina normal ikusten dugu hori lehen egunean, akaso ez delako iritsi bulego horren berri…Edozelan ere, eguaztenero egongo gara Gazte Bulegoan udal ordezkariak (18:30-20:00), eta animatu nahi ditugu herritarrak bertara joateko inongo beldur barik, lasai asko dituzten zalantzak, kezkak, galderak egiteko eta esateko dituzten guztiak esateko. Asmoa da informazioa zuzenean ematea. Ez dugu jarri data mugarik. Eskaeraren arabera egongo gara bertan.

> "Datorren urtean ezarriko da, proiektua garatzen doan heinean"

**Orain badiharduzue batzarrak egiten konpostatzearen inguruan. Zeintzuk dira hurrengo hitzorduak?**

Konpostatzearen kanpaina hasi berri dugu. Helburua da Arrasaten konpostatze komunitariorako hiru gune martxan jartzea, ahal den eta azkarren. Gura dugu haiek izan daitezen, era berean, erakusleiho, herritar gehiago anima daitezen euren organikoak modu honetan kudeatzera. Asteon hirugarren batzarra egin dugu, erdialdeko auzotarrekin. Autokonpostatze kanpainak 2005ean hasi zituzten Mankomunitatetik. Ordutik hona Arrasateko 300 lagunek ikastaroa jaso eta autokonpostatzea egiten dabiltza. Baina autokonpostatzerako eta konpostatze komunitariorako aukerak eman izan ditugun azken kanpainan, udazkenetik hona 150 pertsona inguruk eman dute izena, eta horietatik 60 inguru dira konpostatze komunitariorak izena eman dutenak.

# Badator Takarraran herri lasterketaren bosgarren edizioa

Martxoaren 9an, zapatua, izango da eta iazko ibilbide berbera izango du

**MAIALEN GONZALEZ** | ARRASATE

Aurkeztu da Takarraran herri lasterketa. Bosgarren edizioa izango da aurtengoa. Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, martxoaren 9an, zapatua, izango da, 12:30ean, Seber Altubetik abiatuta.

Ostegunean izan zen aurkezpena, Emakume Txokoan, eta bertan izan ziren, besteak beste: Maider Morras, Berdintasun zinegotzia; Joserra Askasibar, Aukeako lehendakaria eta Kirol zinegotzia; eta Maite Barreña, Berdintasun teknikaria.



Joseba Askasibar eta Maider Morras zinegotziak. | AMAIA TXINTXURRETA

## Ibilbide bera

Antolatzaileek adierazi zutenez, aurreko urteko ibilbide berbera egingo dute lasterkariek. 2.800 metroko ibilbidea izango da. Seber Altuben hasi eta Maalan behera joango da. Otalorari bueltа osoa eman eta alde zaharrera bueltatuko da berriro, San Frantziskotik. Ibilbide horri hiru bira eman beharko zaizkio.

Berdintasun Sailetik eta Aukeatik emakumeak lasterketan pare hartzera animatu dituzte. Maider Morras Berdintasun zinegotziaren esanetan, "urtetik urtera geroz eta arrakasta handiagoa duen lasterketa da eta parte-hartzaile kopurua goraka doa". Izen-ematea Emakume Txokoan, Aukean eta egunean bertan egin ahal izango da.

Parte hartzen duten korrikalariei, gainera, kamiseta bana opărituko diete. Horiez gain, bestelako sariak ere egongo dira; besteak beste, lehenengo hiru lasterkariak eta parte-hartzaile nagusienak eta gazteenak ere sarituak izango dira.

## Prestakuntza-plana

Aurten ere, Aukeak lasterketarako entrenamendu programa bat eskainiko du. Otsailaren 25ean hasi eta lasterketa egunera arte, bi astez. Musakolako kiroldegian izango da eta eguneroko entrenamendua eskainiko du Aukeak. Eskaintza zabalik dago nahi duten parte-hartzaile guztientzat. Bide batez, gainera, lasterketa egunaren ostean ere kirola egiten jarraitzeko dei egin nahi izan dute antolatzaileek.


MAIALEN GONZALEZ

## Sahararen egoera salatzeko

Nubi elkarteak deituta, herri sahararrak bizi duen injustizia salatzeko elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Herriko Plazan. Duela bi urte Aaiun hirian gertatutako istiluetan atxilotutakoen kontra ezarritako hogei eta hogeita hamar urteko eta bizi osorako kartzela-zigorrak "arrazoi gabeko sententzia" direla azpimarratu eta salatu dute.

## Gimnasia erritmikoko eskolarteko B mailako lehen fasea izango da bihar, zapatua, Uarkapen

2012-2013 denboraldiko bigarren txapelketa izango da gimnasia erritmikoko eskolarteko B mailako lehen fasea. Uarkape pilotalekuan izango da, 10:00etan hasita. Gimnastak benjamin, alebin eta infantil mailetan lehiatuko dira, bakarka zein taldeka. Arratsaldean, bestalde, benjamin topaketa izango da eta Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko 38 gimnastak hartuko dute parte. Arratsaldeko bostetan hasiko da bigarren topaketa. Egun osoz, beraz, gimnasia erritmikoa izango da nagusi Uarkapen.

# Ikasbidea den ikuskizuna

- 'Pedro eta otsoa' ikuskizuna domekan, 12:30ean, Amaia antzokian izango da
- Poema musikatuan, Musika Bandako 65 bat kidek hartuko dute parte; sarrera doan da

MAIDER ARREGI | ARRASATE

*Pedro eta Otsoa* poema sinfonikoa alegia bat da; hau da, fabula bat. Gaztetxo zein helduei zuzendutako ikuskizuna. Helburua, gainera, zerbait irakastea da. "Ez daukagu gogoan horrelakorik hemen inoiz egin izana", azaldu digu Mikel Markiegik, Arrasate Musikaleko zuzendariak.

Musika, narrazioa eta marrazketa, hiru eremuak bat eginda ikusiko ditugu domekan, 12:30ean, Amaia antzokian. Baina nolatan otu zitzaien Arrasate Musikaleko kideei horrelako ikuskizun bat aurkeztea?: "Aratusteetan, urtero, gai bat aitzakia hartuta mozorrotuta kalera irten izan gara. Aurten, baina, kalejira horren izaera aldatu gura genuen eta kontzertu bat ematea erabaki genuen. Eta, hala, umeei bideratutako ipuin bat egitea erabaki genuen".


Mikel Markiegi, Julu Lopez eta Oier Balbas, Arrasateko Musika Eskolan. | MIREIA BIKUÑA

ESANAK

**"Guretzako ere erronka izango da horrelako ikuskizun bat"**

MIKEL MARKIEGI | ZUZENDARIA

**"Musika eta testua bateratzea ez da lan erraza izan"**

JULU LOPEZ | NARRATZAILEA

**'Pedro eta Otsoa'**

Markiegik azaldu digu eskura etorri zitzaiela *Pedro eta Otsoa* lanaren istorioa eta partitura ere gertu zutela moldaketa egiteko. "Sergei Prokofieve-ren partituretan oinarrituta dago; guk partitura jarraitu dugu eta pertsonaiak aurkeztuko ditugu. Ipuina kontatzen joango gara irudiekin eta esatariarekin". Hala, marrazkilaria marrazten doan heinean, ipuina garatzen joango da. Sinkronizazio lana eskatzen du honek, ordea: "Nire lana da egokitzapenak egitea eta dena sinkronizatzea. Kar-kar. Musika zati bakoitzarendako beharrezko denbora neurtu dugu; horren bueltan egin dugu lan guztia". 65 lagun inguru ikusiko ditugu agertokian. Askotariko erritmoak entzungo ditugu: "Pertsonaia bakoitzari musika bat dagokio. Aitona, esaterako, beti haserre dago; beraz, musika ere sendoa eta irmoa da. Pedro, aldiz, alaia eta arina da; txoria oso azkarra eta urduria da; katua bigunagoa da". Ikusleek berehala identifikatuko dute pertsonaia. Marrazkiak kontzeptuaren gainean marraztuko ditu Oier Balbas gazteak. "Arkatz markatzaile berezi bat erabiliko du. Ondoren, ikusleek marrazki hori pantailan ikusiko dute proiektatuta. Eszena bakoitza paper batean islatuko du". Finkatu gabeko marrazkiak dira; ikuspuntuaren arabera egokituko dituenak Balbasek. "12 bat marrazki egingo ditut momentuan; eszenaren arabera, baliteke aldaketaren bat ere izatea".

**Euskarazko bertsioa**

Narratzaile lanak Julu Lopezek egingo ditu. Saxoa jotzen du bandan, baina oraingoan, euskaraz, narratzaile lanak egingo ditu. "Animaliak eta bi gizaki dira pertsonaiak: aitona eta Pedro. Animalia bakoitzak paper bat egiten du, eta, fabula guztietan moduan, animaliek gizakien bizioak eta bertuteak islatu gura dituzte. Ikasbide bat egoten da. Ez da umeentzako soilik". Zailena musika eta testua uztartzea dela esan digu bandako saxofoi tenorrak. "Oso polita izango da. Umeei bideratuta dagoen arren, Prokofieve-ren musika erraza da entzuteko eta barneratzeko".

Bada, taldearendako erronka dela adierazi digu Mikel Markiegik.

OIER BALBAS | MARRAZKILARIA ETA MUSIKARIA

## "Oso marrazki sinpleak egingo ditut"

Oier Balbasek 13 urte ditu eta klarinetea eta gitarra elektrikoa jotzen ditu Arrasateko Musika bandan. Oraingoan, baina, marrazkiak egiteko zeregina dauka.

**Zelako marrazkiak izango dira?**

Oso marrazki sinpleak dira, gertukoak. Musika jotzen duten bitartean, horren araberako marrazkiak egingo ditut: Pedro, otsoa, txoria eta katua, hain zuzen ere, dira margotuko ditudan pertsonaiak.

**Marrazteko teknika berezirik prestatu duzu?**

Egingo ditudan marrazkiak takerrarekin egingo ditut; grafitilariek erabiltzen dutenaren antzera. Pantaila bati esker, DIN-A2an egindako marrazkiak ikusgai izango ditu ikusleak zuzenean.

**Marrazkirako zaletasuna noiztik izan duzu?**

Oso txikitatik; eskolan beti marrazten nenbilen eta nire musikako irakasleak, Arantzazuk, hori jakinda, animatzeko proposamena egin zidan. Gitarra elektrikoa, klasikoa eta klarinetea ere jotzen ditut.


Arrasateko Musika Eskolan, Oier Balbas. | MIREIA BIKUÑA

MEDIKU PSIKIATRA kontsulta berria ARRASATEN

ELISABETH LAZPIUR doktorea
Mediku psikiatra-psikoterapeuta
202005123 elkargokide zenb.

Helduentzako psikiatria eta psikoterapia kontsulta
Osasun mentalean prebentzioa eta orientazioa.

Aurretiko hitzordua telefono honetan
Tel.: 628 66 64 37

Arrasate: Palacio Mendia zentro medikoa. Erdiko kalea 22.
Gasteiz: Ortiz de Zarate Kalea 1, 1.a, 4-5 bulegoa.
Donostia: San Martin Kalea 15, 1.a, 3. bulegoa.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

# Ikurrinari gorazarre egingo diote bihar herriko plazan

## Ekitaldira joateko dei egin die Gobernuak herritarrei

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Bergarako alkate Jesus Elortzak eta hainbat zinegotzik, Leire Iruinek, Jaione Isazelaiak eta Piti Madariagak, esaterako, bihar, zapatua, ikurrinari egingo zaion omenaldirako prestatu duten manifestua irakurri zuten martitzenean hedabideen aurrean. Agerraldian, ondoan izan zituzten ezker abertzale inguruko hainbat herritar. Haien artean, Enara Minguez, aurreko agintaldian EAEko zinegotzi izan zena, eta Rafa Santxez, Aralarko kidea.

**Toki ikusgarrian**

Alkateak irakurri zuen manifestua. Adierazi zuen Bergarako Udalak ere, Hego Euskal Herriko beste hainbat udalek bezala, Espainiatik agindua jaso duela Espainiako bandera udaletxean, toki ikusgarrian eta lehentasunezkoan jartzeko. Hori egin ezean, udal ordezkariak gogor zigortuak izango dira kargugabetze eta zigor ekonomikoekin.

**"Borroka gogorra"**

Espainiako bandera udaletxean jartzeko aginduaren aurrean, bestalde, hauxe esan zuen: "Esaldi sinple batekin erantzuten diogu: inposaketarik ez, gurea ikurrina". Eta, horrekin batera, erabakitzeko eskubidea aldarrikatu zuen: "Euskal Herritarrak gara eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Gure etorkizuna eta gure nortasun ikurren gainean libre eta demokratikoki erabaki nahi dugu".

**Nazionalitate guztiak**

Gauzak horrela, herritarrei dei egin zien egubakoitz, zapatu eta domekan ikurrina jar dezaten "etxeko balkoi, komertzio, lokal eta abarretan". Hori baino gehiago, jatorri askotariko bergararrak animatu zituen euren jatorriko bandera ere jartzera asteburuan: "Jakin badakigu ikurrina denon naziotasuna adierazten duen ikurra dela, baina Bergaran beste hainbat nazionalitateko herritarrak ere bizi gara. Guk nortasun, kultura eta nazionalitate guztiek munduan eta Bergaran bere lekua eduki behar dutela aldarrikatzen dugu. Horregatik dei egiten diegu bergararrei ikurrina edota bere herrialdeko ikurra balkoian jartzeko".

Bada, alkateak aurreratu zuen Bergarako Udalak ere gauza bera egingo duela: "Gure naziotasuna adierazten duen ikurrinari lehentasuna emango diogu, plazan bertan. Eta honekin batera, Bergaran dauden nazionalitate guztien banderak jarriko ditugu udaletxean".



Martitzenean osoko bilkuren aretoan egindako agerraldia. | ENEKO AZKARATE

Azkenik, "inposaketari erantzuteko", bihar 12:00etan, ikurrinari egingo zaion omenaldira joateko gonbita egin zien bergara guztiei Elortza alkateak.

**12 metroko ikurrina**

Bihar, besteak beste, udaletxe ondoan jarritako mastan kokatuko dute 12 metroko ikurrina. Horrez gain, ikurrinaren legeztapenean protagonista izan ziren herritar ugari ere bertan izango direla aurreratu zuen Jesus Elortza alkateak. Haien lana "gogoratzeaz gainera, ikurrina omentzeko txalapartari, dantzari eta bertsolarien laguntza izango dugu", amaitu zuen.

**Ezker Abertzalea deiarekin bat**

Bergarako Ezker Abertzaleak ohar baten azaldu du Espainiar Estatuaren "inposaketak" min egin diola, gure herrian jende askok "lan eta borroka" asko egin duelako ikurrinaren eta aberriaren alde. EAJri, bestetik, elkarlanean jarduteko gonbidapena egin dio: "EAJrekin elkarlanean aritzeko borondate osoa dugu eta gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu beste eragile batzuekin egin dugun bezala".

### EAJ: "EAJk ez du parte hartuko ikurrinaren omenaldian"

Bergarako Udalean bandera espainola jartzeko "inposaketa" dela-eta, Udal Gobernuak antolatu dituen ekitaldietan ez du parte hartuko EAJk: "Udal Gobernuak antolakuntza guztia beste inorekin kontatu gabe publiko egin du, eta ez du hasieratik gurekin eta beste alderdiekin proposamenik landu eta adostu".

Bergarako EAJk gogora ekarri du EAJ "mehatxatua, jarraitua eta iraindua" izan dela urteetan zehar, eta "ez bakarrik Espainiako ejertzitoaren eta poliziaren" aldetik. "Gogoan ditugu oso urrun ez dauden urte haiek, non ezker abertzaleak 'PNV español' esaten zigun. Orain, Espainiako bandera Udalean jartzeagatik historia egingo duena Bildu–Aralar gobernua izango da. Bilduk eta Aralarrek Madrilgo mandatua beteko dute".

Bergarako EAJk hedabideetara bidalitako oharrean, gogoratzen du EAJren "bandera bakarra ikurrina izan dela eta hala izaten" jarraituko duela eta EAJren sortzaile Sabino Aranak sortu zuela ikurrina: "Sabino Aranak 1894an gure alderdia fundatu ondoren, sortu zuen ikurrina, eta 1936an, lehenengo Eusko Jaurlaritzak bere ikurrin ofizialtzat hartu zuen berbera".

Era berean, Espainiako gerran bergarar askok ikurrinaren alde bizia eman zutela ere ekarri du gogora: "Gudari askok eman zuten bizia ikurrina eta gure Herriaren alde, hauen artean bergarar askok. Bihoakie gure omenaldirik sakonena". Francoren diktadura ondoren, ikurrina legeztatua izan zenean, "Bergarako Alkate Taldeak ikurrinaren aldarrikapen historikoa" egin zuela ere nabarmendu dute.

# Mbaye Ndiayeren familiari laguntzeko, 17.000 euro

## Ndank Ndank elkarteak eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten guztiei, eta, bereziki, soraluzetarrei

A.B. | BERGARA

"Benetan izugarria izan da jendeak Mbaye Ndiayerekin erakutsi duen elkartasuna", kontatu digu Ndank Ndank elkarteko Eli Dominguezek. Sinetsi ezinda daude oraindik ere. 17.000 euro batu dira Ndiayeren familiari laguntzeko. "Gorpua Senegalera bidaltzeko gastuak Euskal Herrian bizi den familiak hartu zituen bere gain, eta, horrez gain, 17.000 euro batu ziren".

**Soraluze eta Elgoibar**

Ndank Ndankeko ordezkariek Soraluze eta Elgoibarren martxan ipini diren herri-ekimenekin elkarlanean dihardute. "Elgoibarren, eta batez ere Soraluzen, lan handia egin dute eta hainbat bilera izaten ari gara haiekin.

ESANAK

**"Diru asko da batu duguna eta ondo pentsatu behar da hori nola kudeatu"**

ELI DOMINGUEZ | NDANK NDANK

**Dirua nola kudeatu**

Batutako dirua nola kudeatu aztertzen ari dira orain: "Bileretan hainbat proposamen egin dira. Arriskutsua da kolpera diru guztia ematea. Aukera bat da hilero 300 euro inguru bidaltzea".

Dena dela, Ndank Ndank elkarteko kideak martxoaren amaieran Ndiayeren familia bisitatzera joango dira Senegalera, besteak beste, emaztearekin hitz egin eta egoera bertatik bertara aztertzera.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Mujika
gozotegia

Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisautza eta tradizioa.
Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

AMAIA ZABALETA IRAZABALBEITIA
Abokatua

HELBIDE BERRIAN:
Artekale 16, behea - BERGARA - Tel.: 943 76 21 71

# Kataluniako gaikako bilketa sistema ezagutzeko hitzaldia

## La Planako mankomunitateko lehendakari Lluis Verdaguerrek hitzaldia emango du hilaren 28an



Lluis Verdaguer. | LLUIS VERDAGUER

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Lluis Verdaguer (CIU) Taradell (Bartzelona) herriko alkatea da eta La Planako mankomunitateko lehendakaria. Mankomunitate horrek hamabi herri batzen ditu eta hondakinak gaika biltzen dituzte atez ateko sistema erabilita horretarako.

Debagoieneko Mankomunitateak eta Bergarako Udalak La Planako esperientzia konta dezan Bergarara gonbidatu dute. Hilaren 28an, eguena, hitzaldia eskainiko du udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Verdaguer 18:00etan iritsiko da Bergarara eta alkateak eta Udal Gobernuko kideek harrera egin ostean hitzaldia emango du. Ingurumen zinegotzi Leire Iruinek azaldu du herritar guztiak gonbidatu nahi dituztela hitzaldira: "Katalunian martxan daukaten sistema ezagutzeko aukera paregabea da. Uste dugu, gainera, herritarrek dituzten zalantza asko eta asko argitzeko balioko duela".

**Hondakinen bilketa puntuak**

Hondakinen bilketaren gaiarekin lotuta bestetik, hurrengo astelehenean, hilak 25, erakusketa irekiko du Udalak osoko bilkuren aretoan. Bertan argazkien bitartez gaikako bilketa sistemak herrian izango dituen bilketa puntuan erakutsiko dira. "Proposamen bat da, lehenengo zirriborroa, alegia. Asmoa da prozesu parte-hartzailea hasten denean herritarrak bileretara etortzea bilketa puntuak gutxi gorabehera non egongo diren jakinda", adierazi du Iruinek.

Aurrez abisatu dute, baina, Bergarako alde zaharra ez dagoela jasota erakusketan. Gune historikoa izanda tratamendu berezia izango du eta Diputazioarekin elkarlanean dabiltza alde zaharrean nola jokatu zehazteko.

# EAJ: "Herritarrak kanpora joaten direnean jarriko dute atez atekoa"

## Atarteetan herritarrekin egindako batzarrak "bergarar guztiei egindako iruzurra" direla diote

**M.B.** | BERGARA

Udal Gobernuak atarteetan herritarrekin egindako batzarren balorazioari –14an egin zuten prentsaurrekoa– erantzun egin dio EAJko Udal Taldeak ohar bidez: "Iruzur hau salatu nahi dugu, bergarar guztioi egindako iruzurra", diote. Eta honela zehazten dute: "Gogoan dugu Gabonen aurretik alkateak ateratako bandoa 'bergarar bakoitzarekin' egongo zirela esanez. Prozesu 'parte hartzailea' deitu zion honetan 400 bat bergararrekin egon omen dira. Bada, galdetzen diogu alkateari non geratzen den bere hitza bando bidez egindako adierazpenari dagokionez eta ea nori eta zergatik esaten dioten *ardi beltza"*.

EAJk berretsi egiten du "Udal Gobernuari ez diola axola bergararren iritzia", eta "egin dituzten bilera 'parte hartzaileen' helburua zein den" galdetzen diote. Jeltzaleen ustez, "erabakita dute sistema, baina ez dute ez EAJko zinegotzioi ez bergararroi azalpenik emateko asmorik", eta helburua bakarra dela gehitzen dute: "Udan, bergarar asko oporretan kanpoan dagoenean atez ateko zintzilikarioak, 4 alturakoak, 6 alturakoak edo ez dakigu ze motatakoak ipintzea. Eta hori esaldi batekin labur daiteke: aurrez pentsaturik eta arriskurik gabe".

**"Garbi hitz egin dezala"**

EAJko Udal Taldeak ez du ulertzen, "herriaren protesta leiho eta balkoietan hilabeteetan ikusi eta etxe atarietan jasotako oposizioa entzun eta gero, Udal Gobernuaren jarrera". Eta gehitu dute: "Bergarar gehienak birziklatzearen alde daude, baina ez atez ateko sistemarekin, ez eta atez ateko ontziekin ere". EAJko kideen ustez, "argi eta garbi adierazi dute ia 5.000 bergararrek sinaduren bitartez bosgarren edukiontzia gehitu birziklatu nahi dutela". Eta galdetzen dute: "Urnieta, Urretxu, Beasain, Zarautz eta Donostian ez dute atez ateko sistemarik ipiniko. Zergatik Bergaran bai?".

Hala, eskatzen diote Udal Gobernuari "gardentasun osoz, intentziorik ezkutatu gabe, garbi hitz egin dezala, behingoz, eta azal dezala 97 atariak nola aukeratu zituen, zergatik 97 bakarrik...". Atarietan egindako bileren aktak "lehenbailehen udaletxean eskuragarri jartzeko" ere eskatu diote. Martxoaren 4an abian jarri nahi dituzten auzokako bileren kasuan, berriz, "iruzurrarekin jarraitzeko bilerak izango direla uste dute" eta auzi honi "amaiera lehenbailehen emateko aukera bakarra dagoela uste dute: herriari kontsulta egitea".

**ESANAK**

**"Auziarekin azkar bukatzeko aukera bakarra kontsulta da"**

EAJ-KO UDAL TALDEA



POL-POL

# Bergarako mugarrien bueltaren bigarren etapa

Pol Pol Mendi Taldeak antolatuta, joan den domekan egin zuten Bergarako mugarrien bueltaren bigarren etapa eta 60 lagun inguruk hartu zuten parte bertan. Aspaldian ez bezala, gainera, eguraldi ona lagun izan zuten, eta gustura ibili ziren Bergarako inguru horiek ezagutuz. Hurrengo etapa martxoaren 10ean izango da, domeka. Itxumenditik pasa zirenean talde argazkia atera zuten.

ESPOLON
School of English
Ibargarai 31. Barruko Plaza
BERGARA
Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65
espolon@euskalnet.net

INGELES KLASEAK
Maila guztiak
• CAMBRIDGE-EKO UNIBERTSITATEKO AZTERKETARAKO PRESTAKETA (KET,PET,FIRST CERTIFICATE, ADVANCED,PROFICIENCY)
• H.E.O.
• Talde txikiak
• Goizez eta arratsaldez

CLINICA DENTAL
BERGARA
Bidekurutzeta 36 behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 05 77
ZERBITZU INTEGRALA
Behar duzun espezialitatearen araberako lantalde profesionala.
• Odontologia orokorra
• Protesiak
• Inplanteak
• Endodontzia
• Hortz-estetika
• Ortodontzia (Doako azterketa)
• Periodontzia
ESTREINATU IRRIBARREA
Inplante tratamendua:
• Azterketa eta aurrekontua doan.
• Inplante unitario osoa, gehienezko prezioa 112 €/ hilabeteko*
* Urte baterako finantzaketa
ASEGURUAK
DKV / Previasa • Aegon • Mapfre
Adeslas / IMQ / Iquimesa • Santa Lucia
Previsora Bilbaina • Ocaso
Mutuak
PADI Haurren hortzak zaintzeko Osakidetzaren programa
Hirugarren adinekoentzako deskontu bereziak!
PSE 99/94

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Seminarioan jarriko du tenis kantxako estalkia Udalak

## Udalaren ekitaldietarako eta umeek babesean jolas egiteko balioko du

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA
Udalak Labegaraietako kiroldegian dagoen tenis kantxaren estalkia Seminarioko jolastokira eroango du; hango berdegunera. Duela urte batzuk kanpoko igerileku txikia estaltzeko erosi zuen Udalak, igerileku berriko lanak egin bitartean, eta handik Labegaraietara eroan zuen, teniseko kantxa estaltzeko. Kantxa horretako erabiltzaileek, baina, behin baino gehiagotan kentzeko eskatu dute, tenisean egiteko altuera nahikorik ez duelako, eta, eskariari erantzunez, udal arduradunek kendu egingo dute eta erabilera berria emango diote.


Labegaraietako tenis kantxaren estalkia. | MONIKA BELASTEGI

**Erabilera hirukoitza**
Piti Madariaga Gobernazio zinegotziak azaldu duen moduan, hiru erabilera izango ditu estalkiak, nagusiki: "Batetik, Udalak egiten dituen ekitaldietarako erabiliko da; finko jarriko dugu Seminarioan, eta gaur egun Munibe plazan jartzen den estalki txikiagoaren funtzioa beteko du". Munibeko estalkia muntatu edo kendu behar den bakoitzean lau langilek goiz osoa ematen dute lan horretan, "eta hori koste handia" dela azaldu du zinegotziak. Bestetik, "erdigunean, eta batik bat Irala kale inguruan gurasoekin batera batzen diren umeek jolasteko gunea ere izango da, bereziki eguraldi txarra egiten duenean. Umeek jolas egiteko, gainera, saskibaloiko saski txiki batzuk eta lurrean margotutako jokoak jarriko dira", Madariagak gehitu duenez. Azkenik, Aranzadi ikastolako ikasleek ere segurueNik erabili ahal izango dute, "errekreo orduetan, ikastetxearekin dagokion hitzarmena sinatu eta gero".

**Gunea egokitu egingo dute**
Seminarioko berdegunean jarriko dute 30x15 metro neurtzen dituen estalkia, eta horretarako gunea egokitu egingo dute. Bi fasetan egokituko dute: gutxi barru abiatuko duten lehenengoan, berdegunea asfaltatu egingo dute eta estalkia Labegaraietatik desmuntatu eta garbitu ostean, kokaleku berrian muntatuko dute. Fase horren aurrekontua 30.000 euro ingurukoa da Madariagak azaldu duenez, eta bi hilabeteren buruan, apirilerako, eginda egotea nahi dute "eta dagoeneko erabiltzen hasi", Madariagaren arabera. Bestalde, hasiera baten, sabaia bakarrik jarriko dute, hau da, pareta bareko estalkia izango da. Dena den ez dute baztertzen behar izanez gero aurrerago alboetako itxiturak jartzea.

Bigarren fasean argiztapena jarriko dute. Horrek, baina, itxaroan egin beharko du: "Aurten ez dago horretarako dirurik eta argiarena datorren urterako laga dugu". Ordura arte, ekitaldiren baterako argia behar denetan momenturako jarriko dute.

Muniben jarri izan den estalki txikiagoa, beste betebehar batzuetarako erabiliko dute Seminariokoa jartzen denean. Modularra da, hiru zati ditu, eta, ondorioz, leku ezberdinetara egoki daiteke: San Antonio eta San Blas auzoetako jaietan erabili izan da dagoeneko eta beste herri batzuei ere alokatu izan zaie.

## 'Hunger' filma domekan gaztetxeko zineklubean

Etzi, domeka, 2008an Steve McQueen-ek zuzendutako *Hunger* filma ikusteko aukera egongo da gaztetxeko zine -klubean, 18:00etan. Bobby Sandsek gidatuta, IRAko kideek egindako gose grebaren harira, 1981ean Ipar Irlandako segurtasun goreneko Maze Prision-en bizi izandako egoerak kontatzen dira filmean.

## Domekan kiroldegian patinatzeko aukera Hanka-Labankarekin

Domekan, hilaren 24an, Labegaraietako kiroldegian patinatzeko aukera egongo da Hanka-Labanka patinatzaile taldearen eskutik. Ekimenean ume zein nagusiek har dezakete parte, 09:15etik 10:45era bitartean. Interesa duten herritar guztiek Labegaraietako hitzordura azaldu besterik ez dute egin behar.

## Ipintzako ikasleen zozketako zenbaki sarituak atera dira

DBHko laugarren mailako ikasleek hilaren 9an ikas-bidaiarako dirua ateratzeko zozketatutako saskien zenbaki sarituak hauek dira: 744, 199, 404, 1163, 156, 611, 1.028, 598, 1.243 eta 475. Sariak Ipintza Institutuan jaso behar dira eta horretarako azken eguna hilaren 28a, eguena, izango da.





Martxari sostengua eman dion herritar taldea Otegiren irudiarekin. | GOIENA

## 'Bateragune'-ko presoak aska ditzatela eskatzeko martxa deitu dute Logroñora

**M.B.** | BERGARA
Iaz bezala, Logroñora martxa antolatu dute martxoaren 2rako, *Bateragune* auzian espetxeratu zituzten bost lagunak libre uztea eskatzeko: Arnaldo Otegi, Arkaitz Rodriguez, Rafa Diez, Miren Zabaleta eta Sonia Jazinto. Presoon senitarteko eta lagunek eta Arnaldo Askatu, Politika Askatu plataformak antolatuta, bilkura egingo dute Logroñoko espetxe aurrean, 12:00etan, *5ak askatu* lelopean, hantxe daude-eta preso Otegi eta Rodriguez. Bada, bergarar batzuek, ekimenari sostengua emanez, autobusa antolatu dute. 09:30ean abiatuko da, frontoitik. Kortazar, Arrano, Depor eta Bule tabernetan eman daiteke izena.

# 85 familiarengana iristen da Acesmako elikagai bankua

Espainolez berba egiten duten atzerritarrak dira elkarteko kide gehienak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Proiektu ezberdinak ditu esku artean Acesma elkarteak (Asociacion Cubano Extranjera Sierra Maestra) sortu zenetik, eta horietako bat da elikagien bankua. Une honetan, herriko 85 familiak jasotzen dute laguntza bide horretatik. Horietatik 66 elkarteko familiak dira eta 19, gizarte laguntza behar duten herriko beste familia batzuk.

**Laguntza**

Elkarteko kide Ibis Rodriguezen esanetan, bide ezberdinetatik lortzen dute laguntza elikagaien bankua mantentzeko: "Bergarako elikagai bankuko laguntza dugu, eta baita FEGA federazioarena ere. Tamalez, baina, gero eta eskaera gehiago dago Euskal Herrian ere, eta azken minutuko zerbitzuak bezala ezagutzen diren horiek, adibidez, ez zaizkigu beti iristen".

Hilean behin banatzen die herritarrei elikagai laguntza Acesma elkarteak. "Denetariko jakiak ematen ditugu. Herriko lau komertziok ematen dizkigute, eta, nolabait, birziklapen lana ere egiten dugu. Izan ere, denda horiek bota egingo lukete janari kopuru hori, eta, guri emanda, aprobetxatu egiten da", kontatu du Ibis Rodriguezek. "Instituzioen laguntza, eragileena edo herritarrena, izan dugun laguntza guztia eskertzen dugu, eta horrekin batera gogoratu gura dut gure elkartea zabalik dagoela edozein herritarrendako", gehitu du.



Acesma elkarteko kideak, Ultzegin duten lokalean. | O.E.

**Bazkideen diagnosia**

Duela urte eta zortzi hilabete sortu zuten Acesma, eta, elikagai bankuaz gain, beste proiektu batzuk ere baditu. Horien artean daude, adibidez, sustrai kulturalak indartzeko ekimena, euskara ikasteko Udalak jarritako proiektuarekiko atxekimendua eta Sandy urakanak Kuban egin zituen kalteak arintzeko antolatu duten kanpaina. Apirilean, elkarteko bazkideen diagnosi ekonomikoa egiten hasiko dira.

## Festa dominikarra bihar plazan

Dominikar Errepublikaren independentziaren 169. urteurrena ospatzeko, festa dominikarra egingo dute bihar Oñatin. 11:00etan, bandera altxatzea, kantuak, dantzak eta umeendako jolasak egingo dituzte Foruen plazan eta 15:00etan, bazkaria berdura plazan. EAEko dominikar guztiak daude gonbidatuta festara, eta baita oñatiar guztiak ere.



Joan den astean egindako elurtean ateratako argazkia. | MIREIA BIKUÑA

# Elurteetarako herritar taldeak gura ditu Udalak

Asmoa da Udaleko larrialdi planeko taldetik programa koordinatu bat abian jartzea

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak herritar taldeak gura ditu elurteek sor ditzaketen arazoei aurre egiteko. Asmoa da Udaleko larrialdi planeko taldetik programa koordinatu bat abian jartzea, balizko elurte bati ahalik eta berme handienarekin eta egokien auzolanean erantzuteko.

Horretarako, herria lau gunetan banatu dute, eta gune bakoitzerako udal langileak eta makineria izendatu. Euren egitekoa izango da gune horietako zutabe edo arteria garrantzitsuenak garbi eta seguru mantentzea, eta boluntarioen laguntza ere beharko dute.

**Izena eman daiteke**

Etxe eta komertzioen atarietatik arteria nagusi horietara bidea zabaltzeko behar dute boluntarioen laguntza, eta palak eta gatza bezalako beharrezko materialak jarriko dituzte euren eskura. Auzolanerako boluntario brigada horietan izena ematen duten herritarrek aseguru bat izango dute egun horietarako. Parte hartzeko interesa dutenek e-posta bat bidali beharko dute *partehartzea@oinati.net* helbidera, izen-abizenak, bizi den auzoa, NA zenbakia eta harremanetarako e-posta eta telefonoa adierazita.

Udal Gobernutik diote udal baliabide eta pertsonak mugatuak direla eta elurte baten aurrean ezin direla gune guztietara eta landa eremuko auzoetara nahi bezain azkar iritsi, eta herritarrak horren jakitun egotea komeni dela. Horregatik hartu dute auzolanerako deia egiteko erabakia.

# Martxorako lehen sei auzo-konpost guneak

O.E. | OÑATI

Udalak definitu ditu dagoeneko herriko lehen sei auzo-konpost guneak. Haien kokalekuak izango dira: Ugarkalde, Olakua, Errekalde, San Lorentzo, Bidebarrieta eta Zubibarri. Asmoa da martxoaren 12an egotea erabilgarri lehen sei guneak. Horietara ekarpena egingo duten herritarrek ikastaroa izango dute datozen bi asteren barruan.

**Eskarien %32 ase**

661 familiak eman dute izena orain arte konposta egiteko, eta sei gune horiek eskarien %32 aseko dute. Eskaria egin duten gainerako herritarrek ere izango dute konposta egiteko aukera, baina lehenengo sei gune horiek erritmoa hartzen duten heinean zabalduko dituzte besteak.

Bestalde, landa-auzoetan egingo dituzte auzo-konposterako egutegia finkatuta dago. Herriko 15 auzok jasoko dute informazioa martxoaren 11tik 26ra bitartean egingo dituzten bilera eta ikastaroetan.



Olakuako 17. zenbaki ondoan egongo da guneetako bat. | O.E.

## Udal langileen arteko topaketak

Udal langileek II. topaketak egin dituzte, iazko balantzea egin eta 2013rako talde bakoitzak dituen egitasmoak eta horiek burutzeko daukan aurrekontua aurkezteko. 10 talde sortu ziren. Koldo Saratxagaren gizarte ekintza proiektua ere ezagutu zuten.



OÑATIKO UIDALA

## 197/2006 doktrina salatuko dute gaurko elkarretaratzean

Herrirak deituta, azken ostiraleko elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean, Foruen plazan. 197/2006 doktrina salatu eta Jaenen preso dagoen Xabin Usandizaga preso oñatiarrari babesa emango diote ekitaldian. Bestalde, martxoaren 16rako antolatu dute Jaenera irteera Usandizagari elkartasuna adierazteko.

## Elkar Heziko zazpi ikasle Europako Gazte Parlamentuan bihar

Elkar Hezi ikastetxeko DBHko 4. mailako zazpi ikaslek Europako Gazte Parlamentuan parte hartuko dute bihar. Bilbon izango da, eta bost ikastetxek hartuko dute parte lurraldekako hautaketa prozesuan. Ingelesez, Europari eragiten dion gai bat defendatu beharko dute. Onenak estatuko mailara pasako dira.


Izaskun Muxika ipuin kontalaria. | GOIERRIKO HITZA

# Umeek ipuinekin goza dezaten dator Ostegun Kontalariak

O.E. | OÑATI

Ipuin kontalariak etorriko dira haur liburutegira hileko azken eguenetan. Ostegun Kontalariak du izena ekimenak eta hilabete honetan, otsailean, izango da lehen hitzordua. Datorren eguenean, hilak 28, izango da, 18:00etan.

Ostegun Kontalariak ekimeneko ipuin kontaketak 3 eta 10 urte arteko umeendako izango dira, eta denak euskaraz. Kontalariak, baina, ezberdinak izango dira. Otsailekoa, adibidez, Izaskun Muxika urnietarra izango da. Lapiko bat ekarriko du, baina ez da zoparik ez babarrunik egongo barruan. Lapiko berezia da; handiagoa izan nahi duen untxia edota desberdina sentitzen den hipopotamoa daude lapiko barruan. Datorren hileko ipuina, bestalde, berdintasunari buruzkoa izango da.

**Gonbidapenak behar dira**

Umeen adinaren arabera, bi talde egingo dituzte; hau da, ipuin kontaketa batzuk izango dira 6 eta 10 urte arteko umeendako eta beste batzuk 3 eta 5 urte artekoendako. Denetara joateko, baina, gonbidapenak behar dira. Haur liburutegian hartu behar dira; otsailekoak dagoeneko jaso daitezke. Saio bakoitzean 35 ume ingururendako tokia egongo da.

# Gaztelekuko aldaketak zehazteko batzarra bihar

Izen berria, ekintzak antolatzeko era, tabernaren kudeaketa... adostuko dituzte, 11:00etan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaztelekuan herri batzarra egingo dute bihar, zapatua, goizean, hainbat gai eztabaidatu eta zehazteko. Gai horien artean daude, esaterako, gaztelekuak izango duen izena erabakitzea, bertan egingo dituzten ekintzak koordinatzea edota tabernaren kudeaketa definitzea. 11:00etan hasiko da batzarra, eta herritar guztiek parte hartu ahal izango dute.

**Izen berria**

Joan den urtean martxan jarritako Gazteria Herrijorran ekimenean sortutako ideiak edo zalantzak argitu gura ditu zapatuko batzarrak, hein handi batean. "Batetik, gaztelekuak adin mugarik ez izatea, anitza izatea... argi ikusi zen prozesu horretan, eta gaztelekuak izango duen izen berri horrek hori ere jasotzea da asmoa. Proposamenak jasotzeko epea zabalik dago eta ideia batzuk jaso ditugu, baina biharko batzarrean ere sor daitezke berriak. Bozketa bidez erabakiko dugu izen berria", azaldu du Jon Lopezek, Gazteriako udal teknikariak.

**Tabernaren kudeaketa**

"Herrijorran prozesutik ateratako beste ideia bat izan da gaztelekua aisialdi gune bakarrik izan beharrean, norberak ikusi edo entzun gura hituen hitzorduak antolatzeko gune ere izatea. Horrela, zehaztuko dugu jendeak zer gura duen: edo egun funtzionatzen duen moduan jarraitu, edo aukera izan norberak antolatzeko gustukoa duen ekitaldi bat. Gainera, kultur ekipamendu moduan ixten denean ere gaztelekua zabalik egotea posible da, aukera hori badago", jarraitu du Lopezek. Parte-hartzaile kopuruaren arabera erabakiko dute koordinadora moduan edo batzar moduan antolatu kudeaketa.

Beste puntu bat taberna da. Tabernaren kudeaketari buruz, irabazi asmorik gabeko herriko eragile guztiendako dago zabalik aukera.

## Oñatiko ikasleak ere badoaz Andoaingo piano lehiaketara bihar

Zazpigarren urtez joango dira Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak Andoaingo piano lehiaketara. 11 urte azpikoen kategorian lau ikasle lehiatuko dira eta 11tik 14ra bitartekoan, bat. Andoaingo Bastero kulturgunean izango da lehiaketa bihar, zapatua. Parte-hartzaile bakoitzak pieza bat joko du.


Andoainera joango diren ikasle eta irakasleak. | KONTZEJUPETIK

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## 'Ezetz hirurak egin?' erronka bihar goizeko fitness jaian

O.E. | OÑATI

Fitness jaia egingo dute bihar, zapatua, goizean Zubikoan. Jai berezia izango da, hiru proba eskainiko dituelako. Horrela, *Ezetz egin hirurak???* lelopean egingo dute, eta kirolariei erronka bota.

Gimnasia harmonikoa, bosu tonifikazioa eta fit bikea egingo dituzte biharko jaian. Saio bakoitzak ordubeteko iraupena izango du, eta gidatuak izango dira. Lehenengoa 10:00etan hasiko da, bigarrena 11:00etan eta hirugarrena 12:00etan. Parte hartzeko izena eman behar da kiroldegiko harreran, eta zein saiotan parte hartuko den ere zehaztu behar da. Kirol ekintzetan parte hartzen dutenendako doan izango da; ikastaroetara joaten diren bazkideek lau euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek eta ikastaroetan parte hartzen ez dutenek, berriz, zortzi euro.

Bestalde, martxoan kirol ezberdinetan izena emateko asmoa duten herritarrendako hastapen astea hasiko da astelehenean.

# Anje Duhalde eta Doke asteburuan, Korrikaren alde

Duhaldek gaur joko du gaztelekuan, 22:30ean, eta Dokekoen antzezlana domekan da Santa Anan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gitarra eskuan duela etorriko da Anje Duhalde gaur gaztelekura. 22:30ean hasiko da kontzertua, eta sarrerak sei euro balioko du. Korrikaren alde Oñatin antolatu diren ekitaldietako bat izango da Iparraldeko kantariaren kontzertu hori.

Arratsaldean helduko da Anje Duhalde Oñatira, iluntze partean soinu probak egiteko gaztelekuko soinu tekniariarekin batera. Gaurko kontzertuan Korrika batzordeko kideak egongo dira gaztelekuko tabernan lanean, eta ateratako etekina Korrikarendako izango da.


Duhalde, Espaloian, 2008an | GOIENA

### Doke antzerki taldea

Anje Duhalderen kontzertuaz gain, baina, Korrikaren barruan antolatu den beste hitzordu bat ere badago Oñatin asteburu honetan. Domekan, hain zuzen, Arrasateko Doke antzerki taldeak azken antzezlana eskainiko baitu Santa Anan, 19:30ean.

Joan den urteko ekainaren 1ean estreinatu zuten Doke antzerki taldeko kideek Oñatira ekarriko duten antzezlan hori: *Paradisuko atean*. Heriotzaren gaia jorratzen du antzezlanak eta komedia eta drama nahasten ditu. Antzezlana tanatorio batean kokatzen da eta hildako bat dago. Tanatoriora hildakoaren lagun eta familiartekoak gerturatuko dira eta hildakoak guztia ikusi eta entzungo du.

Josemari Velez de Mendizabalek idatzitako antzezlana da.

### Martxoak 16

Martxoaren 14an hasiko da Korrika 18 Andoianen eta 24an iritsiko da Baionara. Bide horretan Oñatitik ere igaroko da, martxoaren 21ean, hain zuzen, 04:00etan. Eta Oñatiko Korrika batzordeak lanean jarraitzen du euskararen aldeko jai horren alde.

Martxoaren 16rako, Korrika asteburua antolatu dute. Goizean hasi eta bazkal ordura arte, Oñatz dantza taldekoek Korrikaren aurkezpena egingo dute Foruen plazan, txarangarekin herri poteoa egongo da eta Korrikaren materiala ere egongo da salgai. Eguerdian, herri bazkaria egingo dute, berdura azokan. Oraindik zehazteke dago bazkariaren prezioa, baina laster jarriko dituzte txartelak salgai. Bazkal ostean, bertsolariak egongo dira. Arratsaldean, herri kirolak eta gauean, kontzertuak. Martxoaren 20an, berriz, Korrika Txikia egingo dute herriko umeek.

## Screaming'Targets taldeak Pako tabernan joko du domekan

Screaming'Targets taldeak Pako tabernan joko du domekan, otsailak 24. Power pop eta rockabilly estiloak jorratzen dituen talde donostiarrak *Heartbreak* single berria aurkeztuko du. Estilo zaharrekin josìtako lan bizia, dantzagarria eta melodia bikainez osatutako abestiak dituen lana.

Pako tabernak garai berri bat hasi du, eta garai berriko lehen kontzertua da hau. Domeka iluntzean izango da, 19:30ean.

## Aurtengo Arrano Eguna domekan da, Arrano-Aitzen

Domekan, otsailak 24, ospatuko dute Arrano-Aitzen aurtengo Arrano Eguna.

Goizeko 09:30ean botako dute etxafuegoa Santa Marinan, eta oinez abiatuko dira Arrano-Aitzera. 11:30ean, omenaldi txiki bat egingo diete lehengo eta oraingo gudariei. Ondoren, salda eta txorizoa egongo da etxolan, joango diren guztiendako.

Arrano-Aitzera autoz joan gura duenak Korosoko aparkalekuan edo Lizargarateko bidean utzi beharko du.

CALIDAD TURISTICA
leku eta egun ahaztezinak

Etxe-Aundi
Hotela · Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com






**Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea**

Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak
- Parking handia
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…

Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, 2013an ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute.

# Hiru mozioak onartu zituzten ezohiko osoko bilkuran

'Parot doktrina', Mendebaldeko Sahara eta Emakumeen Nazioarteko Eguna ziren gaiak

**A.T.** | ARETXABALETA
Asteon ezohiko osoko bilkura egin dute Aretxabaletan. Bertan hiru mozio onartu zituzten; hirurak aho batez, zinegotzi guztien aldeko botoekin.

### 197/2006 doktrina
Hasteko, 197/2006 doktrina edo, ezagunagoa den moduan esanda *Parot doktrina*, bertan behera uzteko eskaera egin zion Aretxabaletako Udalak Espainiako Auzitegi Konstituzionalari. Bilduk aurkeztu zuen mozioa eta bertan zioen dagoeneko 83 euskal preso politikori ezarri zaiela doktrina eta gaur egun 67 direla doktrina hori aplikatuta kartzelan dauden presoak. Mozioaren bitartez eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak "berehalakoan" aske uzteko eskatu zuten.

### Mendebaldeko Sahara
Aralarrek aurkeztu zuen bigarren mozioa; Mendebaldeko Saharari buruzkoa. Mozio horrekin Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren giza eskubideen aurkako erasoen salaketa eta "gaitzespen bortitzena" adierazi zuten. Preso politiko saharar guztiak aske gera daitezen ere eskatu zuten, besteak beste, mozioan.

Era berean, adierazi zuten azken urteetan egin izan duten bezala, aurten ere hilaren 27an bandera jarriko dutela udaletxeko balkoian, egun osoan ikusgai egoteko.

### Martxoaren 8a
Azkenik, Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko mozioa onartu zuten aho batez. Aretxabaletako Udalak gogora ekarri nahi izan zuen emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazioak indarrean jarraitzen duela eta Ana Bolinaga alkateak esan zuen lanean jarraitu behar dutela sistema "kapitalista eta patriarkala" errotik aldatzeko. Mugimendu feministak emakumeen eskubideen alde egindako erresistentzia eta borroka ere eskertu zuten, baita ere, mozioaren bidez.



Bigarren mozioaren alde bozkatzen. | A.T.




Erakusketa ireki dute Arkupen, Ideia Zaparradako ekarpenekin. | Z.V.D.M.

# Atez atekoaren aldeko apustua Aretxabaletan

Gaikako bilketa sistema nola ezarri aztertu eta garatuko duen Hondakinen Mahai plurala eratuko dute

**ZURIÑE V.D.M.** | ARETXABALETA
Aretxabaletako Udalak Ideia Zaparra deituriko ekimena eraman du aurrera azken hilabeteotan. Hau da, herritarrei dei egin zieten zaborraren gaikako bilketaren inguruan zituzten ideia eta proposamenak aurkeztu zitzaten. Atzo eman zituzten aditzera jasotako iradokizunak, eta baita Debagoieneko Mankomunitateak guzti horiei helarazitako erantzunak ere. Den-denak, gainera, irakurgai daude otsail amaiera arte Arkupen irekitako erakusketan.

### Atez atekoaren aldeko apustua
Lau ezaugarri bete behar zituzten parte hartzaileen iradokizunek: hondakinen bilketa gaika egin behar izatea, herritarren %100ek parte hartzea, bilketa pertsonalizatua izatea eta, gutxienez, %80ko birziklatze-tasa lortzea.

Sei proposamen jaso zituzten Aretxabaletako Udalean, eta, askotarikoak izan diren arren, Ana Bolinaga alkateak adierazi zuenez, bat berak ere ez ditu lau baldintzak betetzen. Hala, Aretxabaletan atez ateko sistema ezarriko dutela eman zuen aditzera atzo Bolinagak: "Lau ezaugarriak betetzen dituen sistema delako".

Orain aretxabaletarren txanda dela adierazi zuen alkateak, guztien artean sistema egokitzeko. Horretarako, gainera, Hondakinen Mahaia eratuko dute, "herriko zabor bilketaren ezarpena zehaztu eta garatuko duen mahaia", Lore Martinez alkateordeak adierazi zuenez. "Udaleko alderdi politikoek eta herriko merkatari, ikastetxe, ostalari, industria eta plataforma ezberdinek hartuko lukete parte; tartean, *zero zabor* edota bosgarren edukiontziaren aldekoek". Eta gainera, Ideia Zaparradako ekarpenak ere kontuan hartuko dituztela eman zuten aditzera.

Oraindik ez dute zehaztu noiz hasiko den lanean mahaia, baina lehenbailehen izatea gura dute Udaleko ordezkariek.

## Osasunean inbertitu beharra

Ana Bolinaga alkateak azpimarratu gura izan zuen ez dela garrantzitsua hiri hondakinen sistemaren izena, helburuak betetzea baizik. Hala, "ingurumen osasungarrian bizitzea eskubide bat" dela esan zuen, egungo hiri hondakinen sistemak ez duela aipatutako eskubidea bermatzen, errausketak ez duela arazoa konpontzen eta osasunean inbertitu beharra dagoela adierazi zuen. Zaborra erre edo birziklatzearen artean aukeratu behar izanez gero, "Bilduk oso argi dauka zaborra murriztu, berrerabili eta birziklatu egin behar dela".

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

zenbaki
aholkulariak-abokatuak
CERT ISO 9001
GARANTIA DE ALQUILER
• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.
• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.
**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12**
**www.zenbaki.es**

### Haurren emozioen inguruko hitzaldirako izen-ematea

Gurasoendako hitzaldia egongo da martxoaren 4an, 17:30ean, Kukumiku elkartean, Nerea Mendizabalen eskutik. Hitzaldirako izena ematea eskertuko da, eta martxoaren 1a baino lehen egin beharko da *kukumikuelkartea@gmail.com* helbidera idatzita edo 650 93 96 93 telefonora deituta. Haurren emozioez eta mugez hitz egingo dute bertan.



Benjamin Duinat eta Iñaki Gaminde, argazki bat komentatzen. | LORAMENDIKO SUSTAPEN TALDEA

# Euskalkiari eta memoriari buruzko 'Nire argazkia' bihar Arkupen

Dokumentalaren egileak izango dira aurkezpenean azalpenak ematen

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aretxabaletako Loramendi Euskara Elkarteko Sustapena taldeak *Nire argazkia* izeneko dokumentalaren gaineko emanaldia antolatu du biharko, zapatua, Arkupen. Ikus-entzunezkoaren egile Benjamin Duinat eta Jokin Etxeberria lapurtarrek dokumentala aurkeztuko dute kultura etxeko Zaraia aretoan, eta, jarraian, ikusleen galderei erantzuteko gertu egongo dira. 18:30ean hasiko da emanaldia.

Euskalkiei eta memoriari buruzko lana da *Nire argazkia*. 52 minutuko iraupena duen proiektu horretan, Azpeitia, Lekeitio eta Donapauleko familia banako hainbat senitarteko elkarrizketatu dituzte. Bada, bakoitzak etxean duen argazki bat hartu du, eta horrek sortzen dizkien oroitzapenen inguruan mintzo dira familiako kideak; hainbat istorio askotariko euskalkietan jasotzen dira. Egileen esanetan, "mintzaira eta gizarte memoriaren parte bat artxibatzea" dute helburu.

**Euskararen egoera**

Elkarrizketez gain, ikus-entzunezko berean parte hartzen duen Euskal Herriko Unibertsitateko Iñaki Gaminde hizkuntzalariak gaur egungo euskararen egoeraren inguruko argibideak eman ditu. Urtebete baino gehiago behar izan dute egileek emaitza "sakon, aberasgarri eta dibertigarria" eskaini ahal izateko. Horren harira, Benjamin Duinatek eta Jokin Etxeberriak azpimarratu dute esandako helburua lortze aldera, egitasmoan parte hartu duten familiekin luze egon behar izan dutela. Honakoa azaldu dute lapurtarrek: "Egitasmoa jendea eta gure mintzaira hertsiki eta hobeki ezagutzeko egina da: biak batean joaten baitira, ezin bereizizko bikotea osatuz". Gaineratu dute asmoa ez dela "sentsazionalista" izatea: "Beti euskara bere osotasunean erakutsi nahi izan dugu".

**Bigarren atala labean**

JOK Films ekoizpen-etxeak egin ditu dokumentalaren ekoizpen lanak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin. Joan den urte amaieran, Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuten, eta ordutik hona, Euskal Herriko herri askotan ezagutarazi dute. Telebistan ere laster ikusi ahal izango da.

Azpimarratzekoa da bihar Arkupen ikusi ahal izango den lana lehendabizikoa dela, hastapena, eta dagoeneko bigarren atala egiten dabiltzala orain, laguntzaile berarekin.

## Lanbide Eskolak elikagaiak batuko ditu hil amaierara arte

Aretxabaletako Lanbide Eskolak elikagaiak batzen dihardu. Otsail amaiera arte eroan ahal izango dira jakiak, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 08:00etatik 21:00etara. Lanbide Eskolakoek gogorarazi dute edozeinek parte hartu ahal izango duela eta jasotzen dena Gipuzkoako Elikagai Bankura eroango dela. Horrekin batera, jakinarazi dute dagoeneko 150 kilo janari baino gehiago bilduta dutela.

## Bat-bateko sorkuntza saioa dago etzi kuartel zaharrean

Jaiki elkarteak antolatuta, bat-bateko sorkuntza saioa izango da etzi, domeka, Aretxabaletako kuartel zaharrean, honako ordutegian: 17:30etik 19:30era. Jaikitik gogorarazi dute hileko azken domekan egiten dela, eta musika, dantza, antzerkia eta arte ederrak gustuko dituztenei zuzenduta dagoela, jolasa berreskuratu eta sormena askatzeko espazio bila dabiltzanendako. Horren harira, esan dute ez dela beharrezkoa eskarmenturik izatea.

Gemes
Irudi aholkulariak

Ilargi plaza 2 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 99 18

LASER DIODOA
Saio gutxitan, emaitza ezin hobeak!

Zatoz galdetzera!

Saio bakoitzeko, jarraipena izango duzu.



Ahinara Zubizarreta eta Ugutz Usandizaga| Teatro Kanapeko kideak

# "Antzerki dinamizatzaileak gara eta topaketa gertatzen gabiltza"

Herriko eraikinak oinarri hartuta, 10 bat minutuko antzezlanak egingo dituzte maiatzerako; interesatuak sorkuntzaz arduratuko dira, eta taldea baliabideez

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Lau kidez osatuta dago Eskoriatzan martxan berri jarri duten Teatro Kanape egitasmoa: Ahinara Zubizarreta, Olatz Pagaldai eta Iraia Arzamendi eskoriatzarrak, eta Ugutz Usandizaga aretxabaletarra. Datozen lerroetan proiektuaren nondik norakoaz egin dute berba.

**Zertan datza Teatro Kanape?**

**Ahinara Zubizarreta:** Gu lehenago herritar moduan ezagutzen ginen, eta bagenekien bata eta bestea zertan zebilen. Orain bakoitzak dauzkan interesak batu ditugu teatro dinamikoaren bueltan. Bururatu zaigu polita izan daitekeela bailara mailan, antzerkiari haize bolada freskoa ematea, sustapen taldea sortuz.

**Ugutz Usandizaga:** Moldeak apurtu daitezkeela erakutsi gura dugu, eta antzerkia ez dela orain arte ikusi den moduan. Asmoa ez da talde bat sortzea, eta antzoki batean ikusten den ordubeteko emanaldia prestatzea. Gu dinamizatzaileak gara eta maiatzerako topagune bat prestatuko dugu. Interesa dutenak guregana etorriko dira, eta lagunduko diegu. Esaterako, Olatzek aktore lanak erakutsiko ditu, eta Iraiak agertokiarekin lotutako guztiarekin lagundu egingo ditu interesatuak. Ahinara, berriz, idazlea denez, 10-12 minutuko antzerki lanak egingo ditu.

**Eta maiatzeko pentsamendu eta sorkuntza topagunea zertan oinarrituko da?**

**A.Z.:** Eskoriatzako eraikinak izango ditugu aurten oinarri. 10 minutuko antzerki talde txikiak egingo dira, baina antzerkirako leku ez ohikoetan. Esaterako, herriko eliza. Parte hartu behar dutenei elizari buruzko historia eskainiko diogu, eta hortik abiatuz, antzerki zaleek hamar minutu inguruko sorkuntza egingo dute. Geuk gaiak eramango ditugu, eraikinaren edo lekuaren istorio eta anekdotak; parte-hartzaileak ideia gabe baldin badaude erabil dezaten baina beraien pentsamendu, kexa edo praktika kulturalekin nahastu ahal izatea da helburua.

**U.U.:** Ikusleak antzezlanak ikustera doazenean, antzerkiaz beste modu batean gozatzeaz gain, eraikin baten historia ezagutuko dute. Gainera, antzezlan txiki horiek gertatzeko tailerra gertatuko dugu aurretik; sorkuntza parte-hartzaileen esku egongo bada ere, gu laguntzeko gertu gaude. Ikastaro pertsonalizatuak eskainiko ditugu: nahi dutena egin ahal izango dute, baina baliabideak jartzeaz gain, hainbat bide jartzen ditugu.

**Zelakoa izango da topaketa?**

**U.U:** Batetik, gertatutako antzezlanak ikusten datozenendako egitaraua izango da; bestetik, egitasmoan parte hartu dutenendako beste bat prestatuko dugu. Azken hori egun osokoa izango da.

**Nori dago proiektua zuzenduta?**

**U.U.:** Edonori, antzerkian interesa duten edozeini. Agian jendeak ez du gogorik antzerki talde batean sartzeko eta ordubeteko lana ikasteko. Gu baliabideak jarriko ditu, eta beraiek sorkuntzaz bakarrik arduratu beharko dira. Modu horretan jendearengana errazago helduko garela uste dugu.

**A.Z..:** Irekia da: Erretiratuak, familiak, lagunak, bakarka... Hamar minutuko antzezlanak direnez edozeinek egin ditzake. Gainera, ez da bakarrik eskoriatzarrendako, eta hizkuntza aldetik ere, irekiak gaude. Baldintza bakarra da lotsa ez izatea.

**Interesa dutenek nola jarri daitezke harremanetan zuekin?**

**A.Z.:** Internetez: *teatrokanape@gmail.com* da gure helbidera. Jendeak posta horretara idatzi behar du. Dagoeneko hainbatek idatzi dute, eta proiektuari buruzko azalpenak eman dizkiogu. Laster izen-ematea zabalduko dugu.



Teatro Kanape laukotea. | M.B.

**"Polita izan daiteke bailarako antzerkiari haize bolada freskoa ematea"**

**"Interesa dutenak Internetez jar daitezke gurekin harremanetan"**

# Atez atekoaren kontra, zabor poltsak balkoietan

Eskoriatza Garbiak ekintza hori aurrera eroateko dei egin du; egubakoitzean jarri zituzten lehenak

**M.B.** | ESKORIATZA

Ibarreko beste hainbat herritan moduan, Eskoriatzan ere hasi dira zabor poltsak etxebizitzetako balkoietan zintzilikatzen. Atez ateko sistemaren kontra daudela agerian uzteko jartzen dituzte, protesta gisa.

Joan den egubakoitzean Eskoriatza Garbia plataformak deituta egindako elkarretaratzearen ondotik dator ekintza hori. Herriko plazan zabor poltsak zintzilikatuta egin zuten protesta ehun lagunek baino gehiagok. Bilkura amaitzean, plazan erabilitako poltsak hartu, eta balkoietan jartzen hasi ziren hainbat eskoriatzar. Plataformako bozeramaile Rafa Salidok azaldu du herritarrek hartu zutela euren kabuz erabakia. Honakoa dio: "Herritarrek atez atekoaren kontrako iritzia eman nahi zuten, eta orduan erabaki zuten plazako zabor poltsak euren etxeko balkoietan jartzea. Eta orain, plataformak ere ekintza hori bultzatu gura du".

**Hurrengo ekintza, barikuan**

Salidoren arabera, eskoriatzar asko "minduta" daude atez atekoaren kontra 1.500 bat lagunek sinatu badute ere, urtarrileko osoko bilkuran udalbatzak atzera bota zuelako horren harira Eskoriatza Garbiak aurkeztutako mozioa. Eta ondorioz, herritarrek prozesuan parte hartzeko asmoa dutela iragarri du. Hain justu, datorren egubakoitzean egingo dute hurrengo ekintza: hiri hondakinei buruzko informazio mahaiak jarriko dituzte, atez atekoa zertan datzan eta bosgarren edukiontziaren abantailen berri emango dute.



Zabor poltsak Aranburuzabala kaleko balkoietan. | M.B.

## OHARRAK

**KIROL HITZORDUAK**

Lau hitzordu daude asteon; horietako hiru bihar: 10:30ean, kadeteen saskibaloi partidua dago, Eskoriatza-Arizmendi eta Askatuak artean; 16:00etan, areto futboleko lehen erregionalean, etxekoek Amurrioko Arcada en la Gradakoak hartuko dituzte; eta 18:00etan, saskibaloian, seniorrak Tecnun taldearen kontra lehiatuko dira. Etzi, berriz, areto futbolean, gazteek jokatuko dute, 10:30ean; Aurrera Vitoria izango dute aurrean.

**URETAKO PARKEA**

Puzgarriak jarriko dituzte etzi kiroldegiko igerilekuan. 16:00etatik 17:15era, 7 urtetik beherakoen txanda izango da; 18:30era arte, 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoena; eta 20:00ak arte, 14 urte artekoena. Kiroldegiko bazkideek bi euro ordainduko dituzte; eta gainerakoek, hiru.

**'Balitzen hioa' ikuskizuna aurkeztuko dute gaur ilunkeran unibertsitatean**

Korrika Kulturalaren harira, *Balitzen hioa* antzezlana estreinatuko dute gaur unibertsitatean, 19:30ean. Ainhoa Agirreazaldegi, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariek testu batean sakondu dute, eta gaur, prestatutako gidoi hori agertokira eroango dute Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Untzueta aktoreek.

## NIRE USTEZ



**LOREA DIAZ DE GEREÑU**

# Zaborrak eta gezurrak

Bada hainbat arrazoi gure herrian jendartea mobilizatzeko; batzuk aipatzearren, etxeen desjabetzeak, banketxeen gehiegikeriak, frackinga, ustelkeria eta langabezia. Eskoriatzan, ordea, zerk mobilizatuko herritar talde bat, eta, hondakinak jasotzeko sistemak, ondo! Hala ere, harrigarria, sinesgaitza, *pa flipar* esango nuke, gizarte kontsumista eta eroso honen isla den *ekoiztu-erabili-bota* eredua izan da herritar hauek mugiarazi dituena.

Balkoietan zabor poltsak! Zer esan nahi duen ez daukagu argi, errauskailuaren alde edo ohiturak aldatzearen kontra dauden. Ze errebindikatzen dute zabor poltsekin? Akaso betiko zabor poltsa tradizionala edo orain arte bezala zaborra sortzen jarraitu nahi dutela.

Ze burukomin ematen digun ohiturak aldatzeak. Orain arteko bilketa sistemak emaitza txarrak eman baditu, bosgarren edukiontzia jartzeak mirariririk egingo duen itxaropena izango du norbaitek. Mirariririk ez, gezurrak alde batera utzi eta ontzi marroia ezarrita dagoen herrietako datuak ikusi eta onartu besterik ez. Ondoan daukagu Aretxabaleta bosgarren edukiontziarekin, eta haratago Antzuola, atez atekoaz. Udaletxera jo eta datuak eskatu, biak konparatu eta emaitzak aztertu. Nola da posible zerbaiten aurka egitea hau ezagutu gabe? Eman diezaiogun aukera atez atekoari. Eta gogoratu: zaborrik onena, sortzen ez dena.

**"Ze burukomin ematen digun ohiturak aldatzeak"**

# Bi milioi euroko aurrekontua du aurten Udalak

Lehentasuna hirigintza eta argiteria planek dute; Errekalden dagoeneko aldatu dituzte farolak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bilduren aldeko bost botorekin onartu zituzten Antzuolako 2013-ko aurrekontuak martitzeneko osoko bilkuran; EAJko bi zinegotziak, aldiz, abstenitu egin ziren eta alderdi sozialistako kide Carlos Urrestarazu ez zen bilkuran izan. 2.604.499 euroko aurrekontua du aurten Udalak Antzuola kudeatzeko, iaz baino ehun mila euro pasatxo gehiago, hain zuzen ere (2.505.769,92 euro iaz). Aurten, inbertsio errealak igo egin dira. Iaz baino 69.000 euro pasatxo gehiago: 195.386,43 euro. Herritarrei aurkeztutako hasierako aurrekontuetan, baina, Lege Organikoaren ondorioz aldaketak egin behar izan dituztela azaldu digu Ima Beristainek, Antzuolako alkateak: "Lotuta geneuzkan gastuak eta sarrerak aurrekontuan, eta herritarrei ere aurkeztuta, baina Lege Organikoaren arabera 103.000 euro gutxitu behar izan ditugu gastuetatik. Proiektu batzu kendu egin behar izan ditugu. Sarrerak, baina, aurreikusita daudenez, aurreikusitakoak gauzatzeko aukera izango dugu".

EAJko Maria Eugenia Arrizabalagak "kea saltzen" dabiltzala leporatu zien. Autobus geltokiaren lanak eta Biomasa proiektua finantzatzeko dirulaguntzak ez daudela lotuta esan zuen: "Inbertsio horiek –autobus geltokia eta biomasa– finantzatzeko nolabaiteko dirulaguntzak espero dituzte, baina ez daude lotuta, ez dakigu eskatuta dauden, baina inolako ziurtasunik ez dago lortuko dituztela. Beraz, asmo bezala, azal daitezke nonbait, baina ez, behintzat, aurrekontu proiektu batean. Gauza berririk ez dute markatzen aurrekontu hauek".

**Biomasa proiektua**

Propanoari alternatiba bilatu nahi dio Udal Gobernuak. Hala, faktura erdira jaistea da helburura. "Urtetik urtera igotzen doa faktura eta herritarrak beste irtenbide batzuk bilatzen dabiltza. Lantzen ari gara, erronka polita izango da. Gure legealdian ez da gauzatuko, baina hurrengo legealdian segitzeko modua bilatu gurako genuke", dio Beristainek. EAJk, aldiz, horrelako proiektu baten gainean zalantzak dituela dio: "Planteamenduaren inguruan zalantza dugu, ez dugu horrelakorik ikusi inoiz udal aurrekontu batean".

**Hirigintza eta argiteria planak**

Lehentasuna, baina, irisgarritasun planak eta Errekalde auzoan dagoeneko abiatu duten argiteria planak daukate aurten. "Aurtengo argiteria gastua erdira jaitsi nahi dugu eta hori da gure beste erronka nagusietako bat".

Autobusa herritik ateratzea ere lehentasuna da Udalarendako; hala, alkateak azpimarratu digu horretan buru-belarri dabiltzala Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin lanean.

Skate parkea ere proiektuen artean dute eta sarreren arabera gauzatuko dela azaldu dute.

Baserrietarako ur-sareko lanek ere izango dute jarraipena; 40.000 euro daude kudeaketarako.

**ESANAK**

**"Herriko argiteria gastua erdira jaitsi nahi dugu aurten"**

IMA BERISTAIN | ALKATEA

**"Zenbait inbertsiotarako laguntzak ez daude lotuta"**

M. EUGENIA ARRIZABALAGA | EAJ



Errekalden urtarril bukaeran jarri zuten argiteria berria. | MAIDER ARREGI

## Argiteria berria jarri dute Errekalden

Argi kontsumoa eta faktura erdira jaistea da Udal Gobernuak esku artean daukan argiteria planaren helburua. Hala, lehen lanak abian dira Antzuolan. Lehen argiteria aldaketa Errekalde auzoan egin dute. Hilabete —otsaila— daramate argiteria berriarekin eta hurrengo faktura %60 jaistea espero da. "21 farolatan jarri da argiteria eta aurten amortizatuko da kostua", azaldu digu Iñaki Iartzak, Hirigintza zinegotziak. Laster, Beheko auzoko argiteria aldatuko dute. 53.000 euro daude bideratuta.

## A8M antolakuntza taldeak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei eta lasterketako parte-hartzaileei

"A8Mko antolakuntza taldetik eskerrak eman nahi dizkizuegu, domekako mendi lasterketan laguntzeagatik. Lasterketak izan zuen arrakasta handiaren parte aktibo izan, eta hau posible egin zenuten guztioi. Jendetza irauli zineten lasterketan eta inguruko ekintzetan; kale, mendi eta gainerako bazter guztiak giro bikainaz jantzi ziren eta herriari bizi ikaragarria eman", diote.

## Arrola mendi taldearen batzar orokorra eta 'Pura Vida' dokumentalaren emanaldia gaur iluntzean

Gaur, egubakoitza, Arrola taldeak urteko batzarra egingo du; 18:30ean lehen deialdia Olaranen; bigarrena 19:00etan. Gauean, aldiz, *Pura vida* dokumentala euskaraz ikusteko aukera egongo da Torresoroan. Zortzi eskalatzaile adituk Otxoa de Oltza erreskatatzeko lan itzelak egin zituzten. Euren bizitza arriskuan jarri zuten mendizalea salbatzeko. Bertako benetako gertakarietatik abiatuta, Pablo Uraburuk eta Migueltxo Molinak sortutako istorioa kontatzen da *Pura vida*-n, gaur, 22:00etan.

## Antzuolako odol-emaile elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete diru-batzean parte hartu dutenei

Aratuste-domekan, herriko odol-emaile elkarteak urteko diru batzea egin zuen. "Jende asko ibiltzen da egun horretan eta horregatik aukeratu genuen diru-batzea egiteko; egun aproposa izan zen, zalantza barik, eta oso pozik gaude. Eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei", azaldu digu Begoña Lete odol-emaile elkarteko kideak. "84 lagunek, gazte zein helduk, eman dute odola". Hurrengo hitzordua martxoaren 23an izango da.

**NIRE USTEZ**

PATXI KORTABARRIA



## A8M lasterketa

Jaixak balia bezela, Alardeko kanoi baten tiro batekin abiau ginan plazatik gora. Gu Ibarreko bihurgunera ailegau orduko, lehenenguakAitzako aldapia ixotzen hasita zian. Kaxetako aldapia oinez igo ondoren, gustora hartu ginuan trenbidia, abixada lasai baten Galardiraino juteko. Bagenkixen gero zer zetorkigun: aldapa luze eta gogorrauak. Laster korrika baino denpora gehixao oinez gindoiatzela konturau ginan, ondio zati zailenera iritsi aurretik. Ze zan Santa Barbara gaineko pinudi haura? Aldapia eta belar bustixa medio, bi pauso aurrera baina beste bat atzera. Begi bistan kurutza bat azaldu zanian, kanposantua pentsau jakun, Irimoko kurutzia zala konturau ginan arte.

Ze gozamen elurtutako goiko parajetan korrika ibiltzia! Atsaldian batek esan zoztan Aitzgorri garbi garbi ikusten zala, naiz eta nik nehikua neukan nun zapaltzen neban zaintziakin.

Trekutzerako jeitsiera bixkor ein ondoren, gehixenbat inertziagaittik, ur trago bat edan eta Astorixako azkenengo aldapia oinez igota, betiko pistak hartu kalerako bidian. Pistetatik politiko askon moduan erten ginan, leporaino lokaztuta! Kalian gae. Oin fresko aurpegixa jarri eta helmugaraino esprintau. Benetan gogorra baina ederra.

Mila esker eskina guztitan animuak emoten zendetenoi eta karrera dotore hau antolatzen ibili zaten danoi. Lan bikaina!

## Birziklagarriak diren hondakinen bilketak goraka jarraitzen du

M.A. | ANTZUOLA

Antzuolako Atez Ateko Batzordeak 2012ko balorazioa kaleratu du. Batzordetik azpimarratu dute, 2011rekin alderatuta, birziklagarriak diren hondakinen bilketak –beira, papera eta ontzi arinak,– igotzen jarraitzen duela %10. Eta hondakin kopurua, guztira, %2 igo dela. Errefusa, aldiz, txikitzen doa %30. Organikoari dagokionez, 2011n 142.240 kilo bildu zen eta 2012an, 192.860 kilo, %35 gehiago.

Hala, 2012an 67.040 kilo zabortegira eraman dira, –2010ean 422.000 kilo eraman ziren, 2012an baino 6,3 bider gehiago.

2010arekin alderatuta, paperaren (%36) eta beiraren (%39) birziklapenek gora egin dute; ontzi arinen kasuan, bikoiztu egin da igoera hori (%106); ondorioz, ondakin kopurua ere, guztira, %16 jaitsi da.

**Hilean batez beste**

2012ari dagokionez, honakoa da batez beste hilean batutako hondakinen kilo kopurua:

Organikoari dagokionez, batez beste, 16.072 kilo batu dira hilean; beira 6.497 kilo; papera eta kartoia 6.257 kilo; ontzi arinak 4.729 kilo; eta errefusa 5.587 kilo.

**OHARRAK**

**FUTBOLA**

Zapatuan, Antzuola-Amaikak Bat. 16:00etan, Eztalan.

**ANTZERKIA**

*Ispilua* antzezlana gaur, 20:00etan, gaztetxean.

**IPUIN KONTALARIA**

Ernesto Agirre ipuin kontalariaren saioa domekan, hilaren 24an, 19:00etan, Torresoroa aretoan.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# Saneamendua eta berritze lanak dira lehentasunak aurten

Lehenengoz abiatu da parte-hartze prozesua; Udal Gobernua, "pozik" dago


Lehen parte-hartze prozesuarekin pozik dago Udal Gobernua. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Otsailaren 14an egindako osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onarpena 2013ko aurrekontuari. Aho batez onartu zen, oposizioko kide bakarra, EAJko Iñaki Nafarrate, ezin izan zelako bertan egon: "Ez nuke aurrekontuaren kontra bozkatuko, onarpena ez oztopatzeko agindua dudalako bizi ditugun garai latzak direla-eta. Baina alde ere ez nuen bozkatuko, ez dut uste aramaioarrek behar duten aurrekontua denik".

Aramaioko Alkartasuna alderdia Udal Gobernuaren barruan dago, eta, beraz, Jose Ramon Uribe eta Martin Ibabe bat datoz: "Diputazioak zenbait dirulaguntza atzeratu ditu eta auzoetan beharrezkoak diren hainbat saneamendu lan ezingo dira egin. Aldundiak ez badu dirurik ematen Udalak ezin die gastu horiei aurre egin, normalean obraren kostu osoaren %60 baino gehiago ematen du-eta Aldundiak. Udalaren aldetik egin zitekeen guztia egin da", adierazi du Uribek. Honakoa ere gaineratu du: "FOFEL delakoa, Diputazioak biztanle bakoitzeko Udalari bideratzen dion diru kopurua, ez dago argi zenbatekoa izango den. Agian, datorren urtean zati bat itzuli beharko da... Ez dakigu".

### Iaz baino %20 gehiago

Udalak Aramaio kudeatzeko iaz baino diru gehiago izango du, %20 gehiago. Igoera hori Diputazioaren ekarpenaren gorakada –FOFEL delakoa– eta basoetatik jasoko den diru kopurua hazi egin delako dator bereziki. Hala, Udalak bi milioi euro pasa izango ditu herria kudeatzeko –2.191.528,12 euro, hain justu. Iaz 1.820.180,94 euro izan ziren.

Udalaren 2013rako lehentasunak izango dira Muruko saneamendua eta Ibarrako argiteria eta kiroldegia berritzen hastea. Baina horrez gain, bide publikoen eta Udalaren jabetzen inbentarioa egin beharra dago, artxibo berria martxan jarri, eskola inguruko baranda berritu, Udalaren webgune berria abiarazi, Uema eguna antolatu –udalerri euskaldunen mankomunitatearen garrantziaz jabetzeko kanpaina berezia egingo dute–... Proiekturik ez da falta. Bestalde, Udal Gobernuarendako "urtez urte" lehentasun direnak eta aurrerantzean izango direnak ere aurrekontuan sartu dituzte: Aramaio Basarri Barri fundazioa indartzea eta herriko auzo eta talde ezberdinei ahalik eta gehien laguntzea, besteak beste.

### 110.000 euro eskaeretarako

Udal Gobernuak parte-hartze prozesua abiatu du aurten lehenengoz, herritarren eskaera eta beharrak aztertzeko. Eskaera guztiak ez, noski, baina batzuk onartu dira; 110.000 euro bideratuko dira eskaera horiei erantzuteko: auzoetako eskaerak (21.800 euro), Sastiñarako eta kiroldegirako berogailu sistema jartzea (3.200 euro) gaztetxean konponketak egitea (2.000 euro), ABB fundazioarendako eguna antolatzea (2.000 euro), Bidezko merkataritzaren aldeko eguna antolatzea (1.000 euro) eta Kultur etxean berritze lan txiki batzuk egitea (1.400 euro), besteak beste.

Erantzun bako eskaera da Zaharren egoitza: "Diagnostikoak agerian utzi du egoitzaren beharra. Krisian gaude eta ongizate zinegotzia beste herri batzuetako ordezkariekin harremanetan jarri da egoitza egin daitekeen edo ez ikusteko. Aldundiarekin negoziatu gura dugu", dio alkateak.

---

**RAMON AJURIA** | ALKATEA

## "Asko eskertzen dut herritarrek izan duten jarrera eta parte-hartzea"

Aurrekontua onartzeko lehenengoz abiatu den parte-hartze prozesuak izan duen erantzun ona nabarmendu gura izan du Ramon Ajuria alkateak. Datozen urteetarako aurrekaria izango dela uste du.

**Aurten lehenengoz abiatu duzue parte-hartze prozesua. Nola joan da?**

Oso ondo. Aurrekontua da Udaleko urteko jardunaren bizkarrezurra, egitura markatzen duena. Horregatik, nahiko zaila da ulertzea aurrekontuen mamia osotasunean. Hori dela-eta aurten ahalegindu gara modu sinplean aurkezten eta espero dugu urtez urte, jendeak gehiago jakin ahala, parte-hartze prozesua hobetzen eta garatzen joatea.


ARTXIBOA

**Herritarren parte-hartzea horren garrantzitsua dela uste duzu?**

Asko eskertzen dut herritarren parte-hartzea eta jarrera. Azken finean, Udalak herriaren beharrak ase behar ditu eta herriak Udalean ez badu parte hartzen edota Udalak ez badio herritarrari aukera hori ematen, zerbait gaizki doa. Horregatik, herritar guztiak animatu gura ditut parte hartzera. Guk ere Udala egunez egun parte-hartzaileagoa egiten joateko konpromisoa hartzen dugu.

**Iaz baino %20 gehiago dauka Udalak herria kudeatzeko. Zerk eragin du igoera hori?**

FOFEL [Diputazioaren ekarpena] delakoan gorakada txiki bat izan da iazkoarekin alderatuz gero, opor fiskalak direla-eta. Diru hori izango litzateke herriei kendu zigutena itzultzea. Baina gorakada handiena suposatu duena izan da basoen ustiapena. Iaz jaso zitekeen ekarpen hori guztia baina 2013ra atzeratzea erabaki genuen, krisi egoera honetan diru sarrera gehigarri bat izateko.

**Hala ere, zergak igo dituzue.**

Bai, zergak igo ditugu. Ulertu behar dena da gastuak igo egiten direla; BEZa ere igo egin da, esaterako. Baina herritarrek jakin behar dute zergak igotzen direla zerbitzuak ordaintzeko. Orduan, gastuak igo ahala, zergak ere igo egin behar dira. Bestela, ez litzateke bideragarria izango Udalarendako.

---

## AURREKONTUA BATZORDEKA

| | AURREKONTUA | % |
|---|---|---|
| Ogasuna | 739.293 | %33,70 |
| Zerbitzuak | 548.029 | %26,63 |
| Hirigintza | 387.737 | %17,68 |
| Kultura eta kirolak | 175.440 | %8,00 |
| Ongizatea | 81.021 | %3,69 |
| Euskara eta hezkuntza | 79.800 | %3,64 |
| Ingurumena eta nekazaritza | 65.322 | %2,98 |
| Mendiak | 44.685 | %2,04 |
| Parte hartzea eta auzoak | 24.800 | %1,13 |
| Gazteria, migrazioa eta emakumeen eskubideak | 11.400 | %0,52 |

---

## 2013rako inbertsio nagusiak

**MURUKO SANEAMENDUA**

Aramaio izan da Zuia Koadrilako herri bakarra Diputaziotik halako obra baterako dirua jaso duena. Bi fasetan egingo dira lanak, Diputazioak bi urtetan zehar emango duelako dirulaguntza. Obraren aurrekontu osoa 384.493 euro da; aurten erdia erabiliko da eta beste erdia datorren urtean. Saneamendu eta zolatze lanak egingo dira; izan ere, auzorako bidea oso egoera txarrean dago. Auzotarrek aspaldi egindako eskaerari erantzuna ematera datorren obra izango da.

**IBARRAKO ARGITERIA**

Ibarra auzoko argiteria berritzeko lehen fasea burutuko da aurten. 42.524 euro inbertituko dira, eta, horrela, legedi berrira egokituko da argiteria. Argiaren kontsumoa murriztuz ingurumenari mesede egingo zaio, eta, noski, Udalak dirua aurreztuko du epe luzera.


Muru auzorako bidea. | J.B.

**KIROLDEGIA BERRITZEKO LANEN HASIERA**

Kiroldegiko berritze lanetan 36.000 euro inbertituko dira aurten. Gimnasioa handitzeko eta goiko komunak ondo jartzeko bideratuko da diru hori. Gogoan izan behar da osoko bilkuren aretoa erabili izan dela hainbat alditan pilates edota antzeko ekintzak egiteko. Beste alde batetik, kiroldegian bertan beste obra txiki batzuk egiteko dirulaguntza eskatu du Udalak Aldundian; 35.000 euro inguru. Eskaera onartuz gero, beheko aldagelak txukunduko dituzte. Udalak argi dauka kiroldegia "oso zaharkitua" geratu dela eta ahal den heinean txukuntzen joan behar dela.

---

**IÑAKI NAFARRATE** | EAJ-KO ZINEGOTZIA

## "Gastu arrunta handiegia da bizi dugun krisi garairako"



"Ez da aramaioarrek behar duten aurrekontua. Gastu arrunta handiegia da bizi dugun krisi garairako. 510.000 euro aurreikusi dira soldatetan eta beste 390.000 euro kanpoko zerbitzuetarako; garbiketa, kiroldegiaren kudeaketa... Kopuru horiek handiegiak dira 2.100.000 euroko aurrekontu batendako. Bestalde, maileguek sortzen dituzten interesak direla-eta urtero ordaindu beharrekoa gehiegizkoa da –108.000 euro– eta asko baldintzatzen du Udalaren inbertsiorako gaitasuna. Bat aipatuko dut: 1983an eraikitako Ibarrako hobi septikoa zaharkituta dago; premiazkoa da araztegi bat jartzea. Diputazioak 2010ean onartutako Azkoagako lanak ere ez dira 2013ko aurrekontuan sartu. Etxaguen eta Muruko obrak begi onez ikusten ditugu, berandu hasi badira ere. Bestalde, EAJk ez du ulertzen zenbait zerga igo izana; ondasun higiezinen gainekoa eta ibilgailuena, besteak beste. Aramaioarren errealitatea ez da aintzat hartu. Aurrekontuak onartzeko osokoan ezin izan nintzen egon, baina argi utzi gura dut EAJk oposizioko lan eraikitzailea egingo duela Udalean, aramaioarren bizi kalitatea hobetzeko ".



Guraso talde bat eguazten arratsaldean Sastiñan, informazioa emateko egindako bilera hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

# Eskolako jangela zerbitzua hobetu eta merkatu guran

'Catering'-aren ordez guraso elkarteak kudeatuko duen eredua aztertzen ari dira

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

San Martin eskolan dauden 140 ikasleetatik 85 dira jangela zerbitzua erabiltzen dutenak. Guraso elkartea zerbitzua kudeatzen duen *catering* enpresaren ordez beste eredu bat ari da aztertzen. Horretarako bilera egin zuten eguaztenean Sastiñan. Jaurlaritzak guraso elkarteek kudeatzen duten jangela zerbitzua onartzen du, baina ez du inongo dirulaguntzarik ematen. Beraz, kostua oso altua da gurasoendako.

Aramaioko kasuan, bi dira eredua aldatzera bultzatu dituzten arrazoi nagusiak: haurren kalitatezko elikadura bermatzea eta herriko ekonomia sustatzea: "Argi daukagu ez dela eskola guztiendako eredua. Halakorik ezin duzu Gasteizen edo Arrasaten planteatu. Baina ez da justua Jaurlaritzaren dekretu batek Aramaiori behartzea Gasteizko edo Arrasateko eredua. Eskatzen duguna da eredurik ez inposatzea eta baliabide zein laguntza berdinak eskaintzea bi ereduei", adierazi du Ander Elortondo guraso elkarteko kide ohiak. Jangela zerbitzua eurek kudeatuz gero, aldea gurasoek ordaindu beharko lukete: "Sekulako karga ekonomikoa sortuko luke, Aramaioko guraso gehienondako jasanezina dena".

**ESANAK**

**"Errazena eta erosoena dena garestiena da aldi berean"**

**ANDER ELORTONDO** | GURASOA

**Bertakoa, onena eta merkeena**

*Catering* enpresarekin ume bakoitzak lau euro ordaintzen du egunero eta garraiatuak direnek –auzoetatik autobusean joan behar direnek– 2,3 euro. Euren kontu eginez gero 7,5 euro izango litzateke prezioa; garraiatuak ez direnendako urtean ia 1.200 euro inguru gehiago.

Gainera, Elortondok gogora ekarri du okerrena dela Jaurlaritzarendako merkeagoa izango litzatekeela zerbitzua eurek kudeatzea, Aramaioko produktuak erabiliz: "Arazoa kudeatu nahi ez duten teknikariak dira muga. Eurendako errazena da lehiaketa deitu eta *catering* enpresa bat kontratatzea. Baina errazena, aldi berean, garestiena da; txarrena osasun aldetik, txarrena ekonomikoki eta herriko ekonomia sustatzen ez duena. Hori bai, oso erosoa da eurendako".

## ARETO FUTBOLA

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | C.D. Lagran | 37 | 14 |
| 2 | Colegio San Prudencio Bat | 35 | 14 |
| 3 | Izar Gorri | 30 | 14 |
| 4 | Aramaixo | 25 | 14 |
| 5 | Bar Uriarte | 19 | 14 |
| 6 | Autoescuela Gasteiz | 17 | 14 |
| 7 | Alavesa Maquinaria | 16 | 14 |
| 8 | Arizmendi | 16 | 14 |
| 9 | Bar La Paloma | 12 | 14 |
| 10 | Bar Copo | 12 | 14 |
| 11 | C.D. River | 11 | 14 |
| 12 | Orlegi | 9 | 14 |

**EMAITZA**

Aramaixo 4 -4 Colegio San Prudencio Bat

**PARTIDUAK**

HILAK 24, DOMEKA

**12:15** C.D. Lagran - Aramaixo

### Liderrari aurre egin, edozein talde mendean har dezaketela erakutsita

Partidu ederra jokatu zuen Aramaioko taldeak lider moduan heldu zen Colegio San Prudencio Bat taldearen aurka. Andoni Elejalde taldeko koordinatzailea pozik dago taldeak erakutsitako mailarekin: "Berdinketa lortu genuen oso partidu serioa egin ostean. Harro nago jokalari guztiek egindako lanarekin. Ea aurrerantzean ildo berari eusten diogun".

### Domekan lehen sailkatuaren kontra, kanpoan

Elejaldek dioen moduan, azken jardunaldiko ildo berari eustea garrantzitsua izango da datorren jardunaldira begira. Izan ere, orain bertan lehen sailkatua den CD Lagran taldearen kontra jokatu beharko dute domekan. Lehen sailkatuen taldetik erabat ez urruntzeko garaipena behar dute aramaioarrek.

## Santa Ageda eskean batutako 665 euroak Harreman eta Caritas erakundeetara bideratuko dira

Azken urteetako Santa Ageda batze herrikoiena eta jendetsuena izan zena arrakastatsua izan da diru bilketari dagokionez ere. Bizente Goikoetxea abesbatzako presidente Bittor Kortabarriak jakinarazi duenez, 665 euro batu ziren guztira. Harreman eta Caritas erakundeetara bideratuko dute diru hori, 332 euro bakoitzari. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete borondate ona erakutsi zuten herritarrei, Bertso Eskolari, Trikitixa Eskolari eta Bizente Goikoetxea abesbatzari.



Santa Ageda bezpera ospatzeko Iturrietan bazkaldu zuten. | ARRITXU BARRUSO

# Arabako mus jokalari onenak datoz bihar

**J.B.** | ARAMAIO

Euskal Herriko Mus txapelketaren barruan, Arabako finalak jokatuko dira bihar Aramaion. 34 bikote etorriko dira, herri kanporaketetan onenak izan direnak. Hamar bikote baino gehiago izan dituzten herrietan bi bikote sailkatu dira finalerako. Aramaion 11 bikotek hartu zuten parte eta beraz, lau aramaioar izango dira bihar lehiatzen: Mikel Ruiz de Azua eta Aitor Ayastui batetik, eta Juan Luis Nafarrate eta Dani Zaldibar bestetik.

11:00etan hasiko dira finalak; zortzi mahai jarriko dituzte Eki tabernan eta beste zortzi Añain. Arratsalderako zortzi bikote sailkatuko dira eta horiek guztiek Dukiena jatetxean bazkalduko dute, antolakuntzaren kontu. Bazkalostean Ekin jokatuko dira kanporaketa erabakigarriak. Bikote irabazleak, txapela, garaikurra eta Lesakako Atxaspi hotelean egonaldia izango ditu sari. Bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, otar bana jasoko dute.




Eki tabernako Itziar Axpe Arabako lehen hiru bikoteendako sariekin. | J.B.

## Martxoaren 8ko kartel lehiaketan izena emateko epea otsailaren 22ra arte egongo da zabalik

Martxoaren 8ko kartel lehiaketan parte hartu gura dutenek otsailaren 22ra arte izango dute horretarako aukera. 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira lanak, udaletxean. Bi kartel onenak sarituko dituzte: lehenak 200 euro jasoko du eta bigarrenak, berriz, 100 euro. Kartel guztiekin erakusketa egingo da, eta, antolatzaileek gogora ekarri dutenez, lehiaketaren oinarriak tabernetan eta udaletxean kontsulta daitezke.

## Orixol mendizale elkartea oso pozik dago joan den asteburuko eski irteerak eman zuenarekin

Orixolen esanetan, arrakasta borobila izan zen joan den asteburuko eski irteera. Formigal, Astun eta Candanchu aldean ibili ziren, giro ederrean: "Sekulako eguraldia egin zuen, oso gustura ibili ginen eta ez zen inor lesionatu", diote. Aramaioarrez gain, Arrasate eta Bergarako jendeak ere egin zuen bat deialdiarekin. Guztira, 41 lagun elkartu ziren, iaz baino 13 gehiago. Orain, mendi eta sagardotegi irteera antolatzen dihardute.

ELGETA

# Herriko neska-mutikoen parte hartzearekin 161 lagun futbitoan

## Helduek aste bukaerako norgehiagokekin emango diote amaiera ligaxkari

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Helduendako futbito txapelketa azkarra egitea zen hasierako asmoa; pare bat aste bukaeratan jokatzea, alegia. Erantzuna, ordea, ustekabea izan zen: gizonezkoen txapelketan zazpi taldek dihardute (76 lagun), eta emakumezkoenean lauk (38 lagun). Azkenean, beraz, ligaxka, finalerdiak eta finala jokatuko dira.

Hori bakarrik ez: umeek ere futbitoan egin gura dute, eta laster batean antolatuko dituzte taldeak, guraso arduradun eta guzti. Hala, aste honetako albistea da neska-mutikoen arteko partiduak ere jokatuko direla. Sei talde osatu dituzte (47 lagun), eta Udalaren laguntzarekin eta gurasoen ardurapean bina partidu jokatuko dituzte. Taldeak dira Karramarroak (11 neska-mutiko), Txapeldunak (7 mutil), Superneskak (7 neska), Kontuz neskak (7 neska), Xelebreak (9 mutil), eta Lamoskagau (6 neska-mutiko). Lehenengo partidua hurrengo barikuan, martxoak 1, jokatuko dute, eta bigarrena nagusien txapelketako finalen aurretik.



Haurrak futbitorako gertu. | L.Z.

### Txapelketa

| AZKEN EMAITZAK | |
|---|---|
| Astuan Villa - Intxorta's Crew | 11-3 |
| Tzibaz United - La Kokotxa | 7-16 |
| Txapela - Jaitxo | 3-5 |

**ZAPATUKO PARTIDUAK**

**16:30** Gaztiak - Bandoleira. **Etxaon**

**17:30** Intxorta's Crew - Naste Borrasate. **Astuan Villa**

**DOMEKAKO PARTIDUAK**

**10:30** Jaitxo - Tzibaz United. **Naste Borraste**

**11:30** La Kokotxa - Astuan Villa. **Jaitxo**

**Gaur, saskibaloi saioa**

Gaur, barikua, haurrendako otsaileko saskibaloi saio irekia gidatuko du Aitor Gorostizak kiroldegian. 18:30ean 19:30era egingo du saioa gimnasioan.

# Gerra garaiko errekreaziorako boluntario gehiago behar dira

**L.Z.** | ELGETA

Tropa frankisten atzeraldia irudikatu gura dute apirilaren 28an Elgetan, eta prestaketa lanetan murgilduta dabiltza Intxorta 1937 kultur elkartea eta Udala.

Errekreazioan, 1937ko apirilaren 20tik 24ra bitarteko borrokaldiak irudikatuko dituzte. Hau da, tropa frankisten atzeraldia. *Intxortako atea* eskulturaren aurrean dagoen belardian egingo dute antzezpena, eta helburua da boluntarioekin egitea. 60 bat lagun behar dira, eta gizonezkoek zein emakumezkoek har dezakete parte. Materiala, berriz, antolatzaileek ipiniko dute. "Garaiko 30 fusil eskatuta daude —1916ko Mauser markakoak—, baita beste horrenbeste gerrako kasko ere. Arropak eta bandoetako banderak-eta egiten hasita daude", esan du Lazkanok.

**Deia elgetarrei**

Boluntarioek martxoaren 8ra arte dute izena emateko. Momentuz, hogei bat lagunek eman dute izena. Bergaratik, Arrasatetik eta Ugaotik ere apuntatu dira. Interesatuek Haizea tabernan, Espaloia kafe antzokian edo *turismoa@elgeta.net* helbidean eman dezakete izena.

# Gatazka egoerak nola gainditu landuko dute gurasoek eguenean

**L.Z.** | ELGETA

Hamahiru gurasok hartu zuten parte otsailaren 14an Maala elkarteak Baikara guraso federazioarekin elkarlanean antolatutako hitzaldian. Baikarako Iñaki Saezek hainbat azalpen eman zituen motibazioaren inguruan. Besteak beste, aholkatu zuen haurraren interesgune berriak topatzea, kooperatzen irakastea eta negoziazioa lantzea.

Motibazioak haurrarengandik irten behar duela esan zuen, eta gurasook kontuz ibili behar dugula haurrarengan eratzen ditugun espektatibekin. Errefortzu positiboa lantzeko eta autoestimua zaintzeko ere aholkatu zien Saezek gurasoei.

**Gatazkak gainditzen**

Hiru hitzaldi antolatu ditu Maala guraso elkarteak ikasturte honetarako. Hurrengoa, bigarrena, otsailaren 28an, eguena, egingo dute. Gaia hau izango da: *Nola lagundu seme-alabei euren gatazkak gainditzen*. 18:30ean hasiko da, Herri Eskolako musika gelan, eta, aurrekoaren moduan, ordu eta erdi iraungo du. Seme-alabendako zaintza zerbitzua behar duten gurasoek zabalik aurkituko dute udal ludoteka, 18:15etik 20:00etara.

## OHARRAK

**AZKEN BARIKUA**

Preso politikoen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea. Gaur, barikua, herriko plazan, 20:00etan.

**MENDI IRTEERA**

Kantsatzekek antolatuta bihar, zapatua, buelta emango diote Aloña mendiari Elgetatik 08:00etan abiatuta. Eguaztenean, berriz, bazkidetza eta federatu txartelak tramitatuko dituzte kultura etxean, 19:00etatik 20:00etara.

**BISITA GIDATUA**

Domekan, otsailak 24, Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatua, ele bitan. Izen-emateak 943 71 89 11 zenbakian.



L.Z.

# Elgetarrak Andoaingo jaialdira

Lorea Gallastegi, Kattalin Otxoa, Egoitz Mañarikua, Maialen Alkorta eta Mikele Arkarazo aste bukaeran Andoainen egingo den piano jaialdian izango dira. Lorea Larrañagaren ikasleak dira guztiak, eta eguaztenean egin zuten entsegu orokorra. Jendaurreko agerraldietan trebatzeko aukera polita da Andoaingoa. Arrasate Musikalek antolatutako Debagoieneko piano emanaldian ere izan dira aurten.

LEINTZ GATZAGA

# Astelehenean bukatuko da aisialdirako ortuetarako izena emateko epea

## 14:00ak baino lehen eman behar da izena, udaletxeko Erregistro Orokorrean

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

"Herritarren eskaerari erantzuna emanez", Gatzagako Udalak udal partzela batzuk zozkatuko ditu herritarrek aisialdirako ortu moduan erabiltzeko.

Halako bat eskuratzeko interesa dutenek astelehena baino lehen eman behar dute izena, Udaletxeko Erregistro Orokorrean, 09:00etatik 14:30era bitartean.

**Baldintzak**

Eskaera egiteko badira bete beharreko lau baldintza: adinez nagusia edo emantzipatua izatea; eskaerak aurkezteko azken eguna aurretik Gatzagako Udalean urtebeteko antzinatasunez eta jarraian erroldatuta egotea (genero-indarkeriaren biktimak salbuetsita daude eta, era berean, bi urte lehenago askatasun pribatutasunaren pena bete duten pertsonek ez dute egiaztatu behar epealdi hori presoen gizarteratzea hobetze aldera); orturik jabetzan ez izatea edo beste orturik ez ustiatzea; eta laugarren eta azkenik, Udalarekin zorrik ez izatea.

Horrez gain, familia bakoitzak eskari bakarra egin ahalko du.

Esan beharra dago, baita ere, partzela bat genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen dutenendako gordeko dutela.

**Zozketa publikoa**

Interesa dutenen izenak hartuta, eta zuzendu beharreko akatsak zuzenduta, zozketan parte hartuko dutenen zerrenda argitaratuko dute udaletxeko iragarki taulan eta udal webgunean.

Horrekin batera jakinaraziko dituzte zozketaren lekua eta ordua, zozketa publikoa izango da-eta. Eta zozketan bertan zehaztuko dute esleipendun bakoitzari zein udal partzela egokituko zaion.

**Doako erabilera**

Ortuok lau urterako esleituko dituzte, "zozketako egunetik aurrera kontatzen hasita". Eta epe hori bukatu baino lehen orturen bat libre geratuko balitz, itxaron zerrendako hurrengo eskatzaileari lagako diote ortua.

Ortuen erabilerarengatik ez da ezer ordaindu beharrik izango. Hori bai, esleipendunek 60 euroko fidantza jarri beharko dute.

**Bertako barietateak gordetzea**

Ekimenaren helburu nagusia da berezkoa duten onura soziala eta "bertako barietateak gordetzeak eta interes handiko nekazaritza ekosistema mantentzeak dakarren ingurumen eta ondare onura uztartzea".

Eta helburu orokorrak ere baditu Leintz Gatzagako Udalaren ekimenak: "Helduen denbora librea modu praktiko eta aberasgarrian betetzea; nekazaritza tradizionalaren erabilera eta ohitura batzuk berreskuratzea; produktu naturaletan oinarritutako elikadura osasungarria bultzatzea; konpostaje bultzatzea eta jasangarritasuna kontuan izatea".

**DATUA**

**4**

URTE

Aisialdirako ortuak lau urte naturalerako adjudikatuko ditu Gatzagako Udalak.



Asier de la Iglesia saskibaloi jokalaria, Oñatiko kiroldegian, asteleheneko entrenamendua bukatu ostean. | ARATZ LOSADA

SASKIBALOIA

**Asier de la Iglesia** | Natra Oñatiko jokalaria

# "Gogorrena etxekoei eta lagunei gaixotasunaren berri ematea izan da"

- Zumarragako jokalariari esklerosi anizkoitza diagnostikatu diote
- Bihar, zapatua, Ademgi elkartearendako dirua batuko dute Oñatin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Asier de la Iglesia (Zumarraga, 1983) Natra Oñati taldeko jokalaria da. Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten abenduan, eta Ademgi esklerosi anizkoitzaren alde lan egiten duen Gipuzkoako elkarteko kide egin zen. Saskibaloiaz disfrutatzen segitzen du, eta, hori baliatuz, elkartearendako dirua batuko dute zapatuan Oñatin. Asteleheneko entrenamenduan egin genuen berba harekin.

**Zer moduz zaude?**

Ondo. Animatuta eta aurrera egiteko gogo handiarekin.

**Eskuin eskuko hatz potoloan antzeman zenituen lehen sintomak.**

Irailean, siestatik jaiki eta hatz potoloa lokartuta nuela ikusi nuen, baina ez nion garrantzirik eman. Hurrengo egunean, potoloaren ondoko hatzean sintoma berbera nuen, eta handik egun batzuetara, ukalondoraino. Orduan arduratu egin nintzen. Fisioterapeutarengana joatea erabaki nuen, hankazpiak lokartuta antzeman nituenean. Tratamendua egin nuen, baina emaitza barik. Ondoren, osteopatarengana joan nintzen, emaitza berberarekin.

Hanketako muskulu bikietan sintomak antzeman nituenean, familia-medikuarengana joan nintzen, eta hark neurologoarengana bidali ninduen.

**Eta orduan heldu zen diagnostikoa.**

Bai. Hainbat proba egin zizkidan; besteak beste, hiru erresonantzia magnetiko. Horietako baten esklerosi anizkoitzaren arrastoak ikusi zituzten. Diagnostikoa egin aurretik, buruko erresonantzia egin, eta diagnostikoa konfirmatu zidaten. Dagoeneko hasi naiz medikazioarekin.

**Eta nola erreakzionatu zenuen?**

Ondo. Lasai. Neurologoa ere harrituta geratu zen nire erreakzioa ikusita. Gurasoei, neskalagunari eta lagun batzuei kontatu nien. Orain arte egindako bidaian, hori izan da une gogorrena: etxekoei eta lagunei gaixotasunaren berri ematea.

**Nola erreakzionatu zuten haiek?**

Kezkatu egin ziren, batez ere ama. Dena den, nire aurrean, ez dugu gaiaren gainean berbarik egiten. Aurpegi ona ipintzen dute. [Barre]

**Natra Oñatiko taldekideendako gogorra izan zen zure diagnostikoa.**

Eurek bazekiten arazo fisikoak nituela, eta arduratuta zeuden. Diagnostikoa jaso eta 15 egunera elkartu nintzen eurekin, entrenamendu baten bukaeran. Zer nuen kontatu, eta saskibaloian jokatzen jarraituko nuela esan nien, animatzeko.

> "Eskuin eskuko hatz potoloa lokartzea izan zen lehen sintoma"

> "Esklerosi anizkoitz guztiak dira ezberdinak; ez daude bi berdinak"

**Ez duzu kirola utziko, hortaz. Lagungarria izango zaizu?**

Diagnostikoa jaso nuenean, kirola egiten jarraitu ahal izango nuen galdetu nion neurologoari. Baietz erantzun zidan. 16 urte nituenetik daramat saskibaloian, eta kantxan jarraitu gura dut. Egia da eskuineko eskuarekin arazoak ditudala baloia hartzeko orduan. Gainera, askoz nekatuago sentitzen naiz. Berdin du hiru orduko entrenamendua egin edo ohetik jaiki berri egon. Nekea da esklerosi anizkoitzaren beste sintometako bat.

**Egun, ondo zaudela diozu. Baina nola eragin diezazuke esklerosi anizkoitzak?**

Esklerosi anizkoitz guztiak ezberdinak dira. Ez daude bi berdinak. Hori horrela, eraginak askotarikoak izan daitezke. Noizbehinka agerraldia izango dut, eta, duten agresibitatearen arabera, eragina handiagoa edo txikiagoa izango da. Akaso, muletekin egongo naiz urte batzuk barru, edo sintomak eramangarriak izango dira. Gaixotasunak modu ezberdinean eragin dien bi pertsona ezagutzen ditut. Oraingoz, lasai nago. Egunerokoaz disfrutatzen dut, etorkizunera begiratu barik. Orain arte egin izan dudana egiten jarraituko dut, gaixotasunak gogor astintzen ez nauen arte.

**Ademgi elkarteko kide zara.**

Eurengana jo nuen diagnostikoa jaso nuenean. Aholkularitza bila joan nintzen: zer medikurekin egon, elikaduraren gainean galdetu, zalantzak argitu... Eta hara heldu nintzenean konturatu nintzen errekurtso gutxi dituen elkartea dela. Ademgiri laguntzeko proposamena egin nien saskibaloi sailekoei, eta hortik dator biharko hitzaldiarena eta partiduarena: dirua batu eta gaixotasuna ezagutzera ematea.

## EBAko sarrera ordaindu beharko da

Natra Oñatik eta Zornotzak bihar, zapatua, 18:00etan, Zubikoan jokatuko duten partiduko sarrera ordaindu egin beharko da. Zale guztiek bazkide direnak eta ez direnak: helduek bi euro eta umeek euro bat. Gainera, EBA mailako partidua ikustera doazenek Natrak emandako txokolatea eta Eroskik emandako opila jateko aukera izango dute, euro baten. Urdaiazpikoaren zozketan batutako dirua ere Ademgi elkartearendako izango da.

Goizean, 12:00etan, esklerosi anizkoitzari buruzko hitzaldia egingo dute kultura etxean. Neurologo batek, esklerosi anizkoitza duen oñatiar batek eta Asier de la Iglesiak berak parte hartuko dute berbaldian. Irekia izango da herritarrendako.

SASKIBALOIA

### Azkeneko bi porrotak ahazteko asmoa dauka MUk, bihar irabazita

Josu Larreategiren taldea puntu bakar bategatik galdutako azken bi partiduak ahaztu, eta garaipenaren bila irtengo da bihar (Iturripe, 20:00). Aurrez aurre Gasteiz taldea izango dute. Sailkapenean oso parekatuta daude biak. Etxekoek irabazten badute, hamar garaipenetara helduko dira.

TXIRRINDULARITZA

### Aloña Mendiko ziklismo taldeak aurkeztuko dituzte bihar

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak bihar aurkeztuko ditu denboraldi berrirako taldeak. Etxe Aundi jatetxean izango da, 12:00etan. Oñatiarrek bost talde izango dituzte errepidean. Talde argazkiak egin, eta aurtengo dituzten helburuen berri emango dute zaleen, etxekoen eta lagunen aurrean.

MENDIA

### Alpeetara eski irteera egingo du Besaidek Aste Santuan

Arrasateko Besaidek eski irteera egingo du Aste Santuan, Val Thorens-Mottaret -Courchevel inguruetara. Martxoaren 30etik apirilaren 6ra arte egingo dute, literadun autobusean. Interesatuek Besaideren egoitzan eman behar dute izena, astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 19:30etik 20:30era arte.

MENDIA

### Pol-Pol taldeko beteranoak Villabonara doaz domekan

Bergarako Pol-Pol Mendi taldeko beteranoek urteko lehen ibilaldia egingo dute etzi, domeka. 08:00etan pilotaleku aurretik irtenda, goiz-pasa egingo dute Villabona aldean: hango kanalari itzulia egingo diote. Lau orduko ibilaldian 12 bat kilometro egiteko asmotan joango dira. Zailtasun bako ibilaldia da.

MENDIA

### Eski zeharkaldia egiteko irteera bi Aloña Mendirekin

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak eski zeharkaldia egiteko bi irteera antolatu ditu: martxoaren 2-3ko aste bukaerarako bata eta apirilaren 20-21erako bestea. Lehena Saint Lary inguruetara egingo dute eta bigarrena, Aneto-Posets aldera. Informazio gehiago *www.alonamendi.com* atarian edo Aloña Mendi tabernan izango duzue.

FUTBOLA

# Bergarak, Aloñak eta Antzuolak etxean jokatuko dute; Mondrak eta UDAk kanpoan

Nork bere helburuak lortzeko bidean, puntu inportanteak dituzte jokoan

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Ohorezko Erregional mailako taldeek 22. jardunaldia jokatuko dute aste bukaeran. Mondrak, Aretxabaletak, Bergarak eta Aloñak oso bestelako helburuak dituzte, eta, horiek lortzeko bidean, puntu inportanteak dituzte jokoan. Talde horiek dauden mailara igotzeko bidean ere, Antzuolak pauso garrantzitsua eman dezake Amaikak Bat taldea menderatzen badu (zapatua, 16:00, Estala). Debako taldeak 31 puntu ditu eta antzuolarrek 43. Erregional Preferenteko liga bukatzeko 10 partidu falta dira.


Bergarako jokalaria baloiarekin, Ostadarren kontra. | GOIENA

**Bergarak eta Aloñak, etxean**

Ohorezko Erregional mailan diharduten gure ordezkarien artean, UDA dago goren sailkapenean. Aurreko astean liderraren kontra galdu zuten etxean, eta Hirugarren Mailarako igoeran sartzeko aukera gehiago galdu dituzte. Aste bukaeran ezin dute hutsik egin Tolosaren zelaian (zapatua, 16:30).

Mondrak ere etxetik kanpo jokatuko du. Zarautzen kontra bi puntu galdu ostean, Lutxo Iturrinoren taldeak puntu beharra dauka sailkapenean lasaitzeko. Aurrez aurre izango du Trintxerpe (zapatua, 16:30).

Bergarak eta Aloñak etxean jokatuko dute. Mahoneroek Oiartzunen bisita izango dute Agorrosinen (zapatua, 16:30), eta oñatiarrek Beti Gazterena (domeka, 16:30) Azkoagainen.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKUMEZKOEN BI. MAILA**
Mondra-Zarautz
Domeka. 16:00. Mojategi.

**EUSKAL LIGA, EMAKUMEZK.**
Arizmendi-Beasain
Domeka. 12:00. Ibarra.

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**
Retuerto-Aretxabaleta
Zapatua. 17:45. Barakaldo.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Berazubi.
Bergara-Oiartzun
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Aloña Mendi-Beti Gazte
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Touring-Mondra
Zapatua. 16:30. Fanderia.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Antzuola-Amaikak Bat
Zapatua. 16:30. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA, IGO.**
Ostadar-Aretxabaleta UDA B
Zapatua. 15:30. Mitxelin.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
Zestoa-Bergara
Domeka. 16:30. Iraeta.
**Arizmendi:** Atsedena

**OHOREZKO GAZTEAK**
Bergara-Tolosa
Domeka. 16:30. Ipintza.
Burumendi-Mondra
Domeka. 16:30. San Miguel.
Amaikak Bat-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Errotazar.

**GAZTEAK 1. MAILA, IGOERA.**
Aretxabaleta B- Ilintxa
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**GAZTEAK 1. MAILA, KOPA**
Bergara-Urola
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**OHOREZKO KADETEAK**
Arrasate-Elgoibar
Zapatua. 09:30. Mojategi.
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Altamira.
Real Sociedad-Aretxabaleta
Zapatua. 12:15. Zubieta.

**KADETEAK, KOPA**
Bergara-Arizmendi
Zapatua. 11:00. Ipintza.

Aretxabaleta-Antzuola
Domeka. 16:00. Ibarra.
**Arrasate:** Atsedena

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Kukuiaga
Etxebarri-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Etxebarri.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ford Mugarri-El Pilar
Zapatua. 17:30. Iturripe.
Ereintza-Soraluze BKE.
Domeka. 10:00. Pasai Donibane.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Natra Oñati-Zornotza
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Asesoria SAF-MU
Zapatua. 17:30. Gasteiz.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK**
Hernani-ART
Zapatua. 11:30. Landare.


Jatetxe Gida






Wok Sheng Xing Yuan
Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.
San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29
629 41 59 58

**Eskaintza**
- Itsaski-janak
- Frijituak
- Plantxa
- Sushia
- Parrilladak
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.



Iturrieta sagardotegia
Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

**Eskaintza**
- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Santa Ana Hotela
Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Uxarte jatetxea
Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**







Ezkontzako zeremoniaz gainera, koktela, dantzaldia... egin daitezke gune idiliko horretan, itsaso parean.

# Zure ezkontza agertoki perfektuan egiteko aukera

## Beti amestu izan duzun moduko ospakizuna egin daiteke Aisia Deba hotelean; paraje paregabean, gainera

Hondartzaren ondo -ondoan eta itsaso parean, hotel honetako profesionalek ahalegin guztiak egingo dituzte zure ezkontzako jaia beti amestu izan duzun modukoa izan dadin.

### ERABAT PERTSONALIZATUA

Udalerri horretako hondartzaren ondoan, itsaso parean eta bista erabat ikusgarriekin, Aisia Debak zure ezkontza hasieratik bukaerara pertsonalizatzeko aukera ematen dizu. Ingurune idiliko horretan egin daiteke zeremonia zibila, baina, era berean, koktela, menuak, musika, dantzaldia… ere pertsonaliza daitezke.

Zure ezkontzako edozein parte bakarra izango da; izan ere, Aisia Deban, gustu, desio eta aurrekontu guztietara moldatzeko gaitasuna daukate.

### KALITATE GASTRONOMIKOA

Banketeari dagokionez, eskaintzen duten kalitate gastronomikoa nabarmendu beharra dago.

Suen (sutegien) gidaritzan Xagit Andonegi chef ezagunak dihardu; zaporez betetako plater tradizionalak prestatzeko kalitaterik goreneko lehengaietan oinarritzen da hura.

Jangelan, berriz, Mireia Azpiazuren zuzendaritzapean profesionalez osatutako lantalde batek lan egiten du, banketea primeran atera dadin. Gainera, Aisia Deban ez dira zaporeengatik bakarrik kezkatzen; kokteleko pintxoekin eta banketeko plateren aurkezpenarekin ere kezkatzen dira, ukitu originala emanda.

> **Ospakizun guztiak erabat pertsonaliza daitezke**

### HASIERATIK BUKAERARA

Instalazioei dagokienez, ingurune paregabeaz haratago, jangela bera nabarmendu beharko litzateke: 200 lagunendako lekua dauka, eta hara doazen guztiek gustuko izango dituzten bistak ere badituت.

Gainera, saloietan bertan gauerdia baino beranduagora arte luza daiteke ospakizuna. Hori dela eta, Aisia Deban, hasieratik bukaerara ospatu ahal izango duzu ezkontza.

### OSPAKIZUN INTIMOAGOAK

Baina hotel hori ez da ospakizun handietarako bakarrik egokia, etxeko eta lagun kutunenekin bestelako ospakizunak antolatzen ere adituak dira; adibidez, jaunartzeak, bataioak, enpresa edo lagun arteko bazkariak…

> **Ospakizun handiak eta intimoagoak egiteko lekua**

Eta ezkontzekin gertatzen den moduan, gainontzeko ospakizunak ere norberaren gustuaren arabera pertsonaliza daitezke. Izan ere, Aisia Deban, norberaren neurrirako alternatibak dituzte, beharrak edozein izanda ere.

### GUNE TERMALA

Bukatzeko, hotelak duen gune termala ere nabarmendu beharra dago, establezimenduak berezkoa duen eskaintza zabala gustuko duen bezeroarendako kontuan hartzeko gainbalioa.

aisia
HOTELES
DEBA
Markiegi 6
943 60 80 52
deba@aisiahoteles.com

Zure ezkontza Aisia Hoteletan,
arrakasta ziurtatua



943 60 80 52
www.aisiahoteles.com

# KULTURA

# Aramaioarrak txapelketaren jabe egingo dira bihar

▸ Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa da bihar

▸ Amilburu, Agirre eta Arriolabengoak kantatuko dute



Manex Agirre, erdian, aurreko kanporaketa saioan. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

JON BEREZIBAR | ARAMAIO

Aramaioko bertsozaleentzako egun zoragarria izango da biharkoa, Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa etxean jokatuko baita (18:00etan Kultura Etxean). Berezia ez da Aramaion delako –finalaurrekoetako bat beti izaten baita herrian–, Aramaion eta Aramaioko bertsolariekin jokatuko delako baizik. Iazko txapelduna, Manex Agirre, esperientzia handia eta taxuzko bertso-moldea duen Andere Arriolabengoa eta aurtengo sorpresa gaztea izan den Paula Amilburu igoko dira kantatzera. Saioan Ander Solozabal, Zigor Enbeitia eta Unai Mendibil ere izango dira.

**Aramaioko harrobi oparoa**

Arabako bertsolaritza gazte eta oraindik, konparazioz, apalean Aramaio potentzia denik gutxik ukatuko dute. Bertso eskola sendo eta langilea dute Aramaion eta Agirre, Arriolabengoa eta Xabi Igoa bera –txapelketan txukun ibili da, baina laga egin du– azken belaunaldietako kideak dira eta izen ezagunak bertso giroan. Aurten zerrenda horri Paula Amilbururen izena ere gehitu behar zaio. 18 urteko gaztearen lehen urtea da eta ezin txukunago dihardu Amilburuk. Haren ibilbidea oso gertutik jarraitu dutenek, ostera, ezusteko gutxi izan dute. 7 bat urte darama bertsotan Amilburuk eta Gasteizera bizitzera joan arte Aramaioko Bertso Eskolan ibili da. Ez zuela espero dio hark, eta ez dakiela zelan hartu.

Zapatuan alboan izango ditu Agirre eta Arriolabengoa. Paula Amilburuk dio ezin dela konparatu eurekin eta "saiatuko" dela ondo pasatzen. Manexekin erne egon beharko du, halere, Amilburuk kontatzen duenez, "aizkorakadaren bat edo beste" etor baitakioke txapeldunaren aldetik, txantxetan azaltzen duenez. Agirrek, baina, eztenkadak baino laudorioak ditu gehiago adiskide gaztearentzat, eta, hark ikusi duenez, txapelketak kikildu barik "puztu egin du Paula". Andere Arriolabengoak ere ez du beste munduko sorpresarik hartu eta Amilbururen "garra eta ironia berezi hori" nabarmentzen ditu.

**Herritar eta lagunen epeletan**

Biharkoak saio benetan polita izateko aukera guztiak ditu. Horretan bat datoz hiru bertsolariak. "Urduritasuna gainditu eta norberak egiten dakiena egitea", horixe, lortu beharrekoa, Manex Agirrek dioenez. Kanporaketetan, behintzat, "oso lasai" egon zela dio Agirrek. Horretan zalantza handienak Amilburuk ditu, txapelketa izatea, jaioterrian abestea eta lagun eta senideen aurrean izateak ez daki "mesede edo kalte" egingo ote dion. Hirurak, baina, lagun artera disfrutatzera doaz. Giro ona dagoenean "beste modu batera kantatzen" dela baieztatzen du Agirrek. Horretan haren besteko esperientzia du Andere Arriolabengoak bere aldetik eta elkarrekin asko jardundakoak dira. Erronka baino gehiago, txapeldunarekin kanta-

**ESANAK**

**"Jaioterrian kantatzeak ez dakit kalte edo mesede egiten ote duen"**

PAULA AMILBURU
BERTSOLARIA

**"Paularen kasuan, txapelketan kikildu baino puztu egin da"**

MANEX AGIRRE |
BERTSOLARIA

**"Erronka baino plazera izango da aspaldiko lagunen artean kantatzea"**

ANDERE ARRIOLABENGOA |
BERTSOLARIA


Paula Amilburu. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

**BEGIRATU BATEAN**

## AUKERA GUZTIAK SAIO EDERRERAKO


LIERNI ALTUNA
GAI-JARTZAILEA

Aurtengo txapelketako zenbait saiotan gai-jartzaile jardun du Altunak. Herrikideak ondo ezagutzen ditu hark, eta zertzeladak eskatu dizkiogu.

**MANEX AGIRRE**

- Irabazitako txapelaren itzala dauka. Ez dakit berak presio hori sentituko duen.
- Bertsolari moduan oso helduta ikusten dut eta finalerako aukera asko dauzka berak, aukera guztiak ez badira.
- Nik uste dut gauzak asko okertzen ez baldin badira Manex finalean egongo dela. Egiten dakiena egiten badu eta hanka-sartze nabarmenik ez badu egiten, ziur, finalean egongo da.
- Arabako bertsolari erreferenteetako bat da.

**ANDERE ARRIOLABENGOA**

- Anderek ere maila eta izena badauzka dagoeneko eta asko ibilitakoa da.
- Bere urduritasuna kontrolatzea lortzen badu saio ederra egingo du, zalantza barik. Aukera onak dituela pentsatzen dut eta gauza da aurrera egiteko.
- Berez, finalera sartzeko aukera nahikoak dituela uste dut, maila badauka-eta. Txapelketan haren saiorik entzuteko aukerarik ez dut izan, baina Anderek maila ona duela badakigu.

**PAULA AMILBURU**

- Eskola artekotan fin ibili da, baina ikusteko zegoen txapelketan nola jardungo ote zuen.
- Oso urduria da. Anderek moduan, urduritasuna kontrolpean badarama saio polita egingo du.
- Bide asko daki eta nahi izanez gero egurra ematen ere ondo daki.
- Ezustekoa izan da, ze kanporaketan puntu gehien eskuratu baitituen bertsolaria izan da.
- Bere herrian egoteak saio polita egiteko motibatu egingo duela uste dut.

MONOLOGOA | Dani Mateoren ikuskizunerako sarrerak agortu dira | 34





Andere Arriolabengoa. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

tzea "plazera da" Arriolabengoarentzat. Hark ere disfrutatzea helburu, lagun arteko saio moduan ikusten du biharkoa. 2011ko txapelketan ere finalaurrekoetara iritsi zen baina kontu pertsonalak tarteko, laga egin behar izan zuen. Aurrekoan ezin izan zena lortzeko bihar izango du, hortaz, aukera Arriolabengoak. Hartara, ez du prestakuntza berezirik egin aurten eta bere "prestakuntza bakarra bertso saioetara joan eta gozatzea izan" dela dio eta bere burua "ondo" ikusi duela orain arteko saioetan. Zalantzarik ez du berezia izango dela biharkoa, "jende asko dabilelako Aramaion eta inguruan bertsoaren bueltan". Bertso eskolak berak urtea asko darama eta horregatik Manex Agirrek dio ez dela "kasualitatea finalaurreko baten hiru aramaioarrek topo egitea". Finalera heltzeko aukerak ere ez dira gutxi.

**Txapeldunaren erronka**

Txapelketa ona egiten dabil bere aldetik Manex Agirre, patxadaz, eta bihar saiokide izango dituen bi lagun bertsolariek finalean egoteko aukerekin ikusten dute. Hark "erantzukizun puntu bat, agian" sentitzen du, "zeozer frogatu beharra", baina segidan aitortzen du horrek ez duela agobiatzen. Plaza, saio eta ekitaldi ugaritan zaildutako bertsolaria da Agirre, baina esaten du faltan igartzen duela "aurreko txapelketan ezer irabazi ez duenak galtzeko ezer ez duelako sentsazio hori". Taldea baloratzen du hark, eta giroa, "guztia norberaren esku" dagoela berretsita. Bihar konfiantzazko giroa egongo dela dio eta horrek guztiei egingo ei die mesede, haren ustez.

**Finala, martxoaren 26an**

2013ko txapelketako hiru finalaurrekoetatik bigarrena da Aramaiokoa. Aurreko saioa Izarran izan zen lehengo astean eta zuzeneko txartela Asier Otamendik, Gasteizen bizi den urretxuarrak, eskuratu zuen. Aramaioko saiotik beste finalista bat aterako da eta Dulantziko martxoaren 2ko saioan erabakiko da, hirugarren zuzeneko finalistarekin batera, puntuazioaren arabera saio definitiboan nortzuk hartuko duten parte. Martxoaren 26an Gasteizko Printzipal antzokian izango da txapelketako finala.

## Arabako bertsolaritza gazte eta berria

Bi urtean behin egiten da Arabako Bertsolari Txapelketa eta azkenaldian belaunaldi gazteek indarberritu dute Arabako bertsozaletasuna, izatez orain arte tradizio txikiko lurraldea izan dena. Iazko txapeldunak berak onartzen du indarra gaur egun zabalkundean egiten dutela. "Estrategia kontua" dela dio Agirrek: "Sarri esaten da garrantzitsua litzatekeela bertsolari gazte bat hartu, trebatu eta elite mailara aurkeztea, baina hori ez da lehentasuna", azaltzen du hark. "Araban ez da momentua bertsolariak indibidualki potentziatzeko", dio, "lehenengo gauza zabalkundea da" eta elite maila ez du ezinbestekotzat hartzen Arabako bertsolaritzaren egoera ona dela esateko. Andere Arriolabengoak honen inguruan dio Arabari buruzko ezjakintasun handia dagoela. Azaltzen du "jende askok uste" duela "Araban euskararik ere egiten ez" dela eta arazo bat ikusten du pertzepzio horretan. Kontu honetan gai polemikoetako bat dela onartzen du Arriolabengoak. Kontuak kontu, garbi dagoena da Aramaio harrobi oparo eta garrantzitsu izan dela, gaur egun badela, eta izaten jarraituko duela aurrerantzean ere.

# Korrika Kulturalean jinkanarik ez, baina bi antzerki aukera gurean

Bertan behera gelditu da Arrasaten egitekoa zen Debagoieneko jinkana

**A.A ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Korrika 18 Andoaindik abiatu bitartean, hainbat dira Korrika Kulturalaren izenean antolatutakoak; horietako bat, bihar Arrasaten egitekoa zen Debagoieneko jinkana, baina, beharrezko talde kopurua osatu ez denez, bertan behera geratu da. Martxoaren 2an Irunen egingo dute finalaurrekoa eta finala Baionan, martxoaren 24an.

Egitarau berean, baina, bi dira egunotarako proposatutako antzerki emanaldiak: hitzen balioaz hausnartzen duen *Balitzen hioa* izango da gaur, egubakoitza, Eskoriatzako unibertsitatean, 19.30ean; eta *Pisukideak* komedia, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean, otsailaren 26an, 19:00etan.

**Komedia gazi-gozoa Arkupen**

Markos (Jon Zubiaga) eta Matilde (Sonia Villamor) salgai dagoen Markosen amonaren etxean elkarrekin bizi diren bi lagun dira; aterpea konpartitzen dute etxea husteko abisuaren zain dauden bitartean. Hortik abiatzen da ordubeteko iraupena duen istorio gazi-gozoa; izan ere, egileek komedia hurbil moduan definitzen badute ere, badira egunerokotasuneko kontakizunean puntu dramatikoak ere. Publiko zabalarentzako ikuskizuna da

Ezereza, hutsa, erakutsi gura izan dute taularen gainean; horregatik, euren etxea irudikatzen duen kubo zuri txiki bat besterik ez dute aktoreek lagun. Ander Garaizabal teknikariaren laguntzarekin osatuko dute Peru Magdalena idazleak jositako istorioaren eszenografia.

Gasteizen estreinatu zuten, eguaztenean, Bernat Etxepare antzokian, eta Euskal Herriko hainbat herritan erakutsiko dute, Korrika Kulturalaren egitarauan sartzeko proposamena onartuta. Bada, Debagoienean, oraingoz, Aretxabaletan bakarrik dute lotuta.

**JON ZUBIAGA 'OSORON'** | AKTOREA

## "Korrika 15ean ezagutu genuen elkar"



ENEKO AZKARATE

Jon Zubiaga arrasatearra da 'Pisukideak' antzezlaneko protagonistetako bat.

**Zeintzuk dira Markos eta Matilde?**

Markos sormen handi gabeko idazle xelebrea da eta Matilde, berriz, aktore izateko bidean dagoen neska berezia. Era berean, nolabaiteko okupak dira biak. Errealitatearen zentzugabetasuna erakutsiko digute.

**Sonia eta Jon, berriz, aspaldiko lagunak?**

Korrika 15erako egin genuen antzerki batetan ezagutu genuen elkar. Harez gero, hainbat haur ikuskizun egin ditugu elkarrekin; aspaldik geneukan, horrelako istorio bat kontatzeko gogoa. Azkenean prestatu eta Korrika Kulturaleko egitaraurako proposatu ziguten gero..



Maliciak eta Nanik osatzen dute Las Grecas bikotea egun. | LAS GRECAS

## Las Grecas bikotearen flamenko doinuak entzuteko aukera gaur Tartufo aretoan

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

70eko hamarkadan Carmela eta Tina Muñoz ahizpek sortu zuten Las Grecas bikotearen ondorengoak izango dira gaur, egubakoitza, Bergarako Tartufo aretoan, 21:00etan.

Taldearen hirugarren belaunaldia osatzen duten Maliciak eta Nanik ere flamenkoa eta beste musika estilo batzuen nahasketa egiten dute.

**Erkidegoan kontzertu bakarra**

*Autenticas* da bikoteak kaleratu duen hirugarren lana eta gaur Tartufon aurkeztuko duena. Bergarakoa erkidegoan egingo duten emanaldi bakarra da.

Kantu berriekin batera, hastapenetako kantuekin osatzen dute errepertorioa; hori horrela, *Te estoy amando locamente* ezaguna ere entzuteko aukera izango dute gaur zaleek.

## 'Herrixa dantzan' gaur Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean

Portaloi Elkarteak antolatuta, gidatutako dantzaldi irekia eta doakoa izango da gaur, 20:00etatik 21:30era, Garaiako taberna-jatetxean. Adin askotariko herritarrak dantzaz gozatzera gonbidatu gura dituzte. Taberna eta aparkalekua erabilgarri izango dira; herri-busak ordu erdian behin du han geldialdia.

## TICK kultura kluba: kulturaren aldeko klub pribatu sortu berria

Kultura bultzatzeko helburuarekin sortu zuten Bilbon, orain hiru hilabete, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin, TICK kluba. Sarreretan deskontuak, zozketak, opariak eta bestelako abantailak eskaintzen dituzte, besteak beste. TICKek 160 kolaboratzailetik gora ditu dagoeneko eta Euskadi osorako lan egiten du.

## Dani Mateo | Monologista

# "Publikoarekin interaktuatzen dut, ez dakit beste modu batera lan egiten"

- Zapatuko eta domekako emanaldietarako sarrerak agortuta daude
- Elurra eginez gero, Bergarako bidea garbitzen elur-makina ibiliko da

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | ELGETA

*40 Principales* irratirako bidean topatu genuen eguneroko irratsaioa egitera zihoala. Lanak behartuta, astean zehar hirian bizi da; aktore izateaz gainera, telebista eta irratiko esataria da. Gustuko lanak dituela aitortzen du. Asteburuetan, berriz, ederto egoten da Guadalix de la Sierran duen etxean. Sarritan, baina, monologista lana izaten du asteburuetan. Kontatu digunez, lan horiekin familia planak egiten saiatzen da, eta Elgetara emaztearekin (Elena Ballesteros aktorea) eta alabarekin etorriko da. Bi emanaldi egingo ditu: zapatuan 22:30ean eta domekan 19:30ean. Sarrerak agortuta daude.

**Elgetara *PK 2.0: Que dios nos coja confesados* ikuskizunarekin zatoz. Aurrera egiguzu apur bat.**

Aurreko ikuskizunaren bilakaera logikoa da. Aurrekoan, mundua bukatu behar zela uste nuela kontatzen nuen. Oraingoan, berriz, ziurtasunez diot bukatu egin behar dela; beraz, gertatuz gero, zer egin ahal dugun kontatzen dut; gerorako aukerak eskaintzen dizkiet. Erlijioek aukera asko ematen dituztela ikertu dut, eta, horregatik, erlijio ezberdinetako aukerak aurkezten dizkiot publikoari. Gertuen duguna hobeto ezagutzen dugunez, hortik tiratzen dut. Bekatu kapitalen inguruan jarduten dudala besterik ez dizut aurreratuko.

**Publikoarekin etengabe interaktuatzen duzu.**

Duda barik, ez dakit-eta beste modu batera egiten. Katalana naizenez, hasteko, diruagatik egiten dut; horrelakoak gara. [Barre] Egia esan, ederto pasatzen dut, publikoaren erantzunaren araberako gidoi aldaketa gimnasia hori gustuko dut. Hala ere, azkenaldian, atseden hartzeko unean ote nagoen galdetzen diot nire buruari. Beldurra ematen dit leku askotan nagoenez jendea nitaz aspertzea.



Dani Mateo monologistak bi emanaldi egingo ditu Elgetan. | DANI MATEO

> "Beldurra ematen dit leku askotan nagoenez jendea nitaz aspertzea"

> "Wyoming-zale amorratua naiz, erreferente moral aparta da niretzat"

**Ez dut uste. Sarrerak aspaldi agortu ziren eta azkenaldian beste leku batzuetan ere agortu dituzu.**

Asko pozten naiz, ba! Baina ez pentsa, ez da beti horrela izaten; aurrekoan, Logroño ondoko herri batetan egon ginen eta 20 lagun bakarrik etorri ziren.

**Zein da, baina, zure sekretua?**

Ez dago sekreturik, baina truku on bat telebistan agertzea da. Bereziki igarri nuen nik *Se lo que hicisteis* saioan agertzen hasi nintzenean. Areto batean 20 ikusle izatetik, areto kanpoan jende ilarak izatera pasatu nintzen, egun batetik bestera.

**Euskal Herria gustuko duzula diozu, eta euskal publikoa?**

Euskal Herria ederra da aspektu askotan; bai, horixe! Euskaldunak bereziak zarete. Euskal publikoaren zintzotasunak ez du mugarik; beste leku batzuetan ez moduan, pentsatzen duena aurpegira esaten dizu ikuskizuna gustatu edo ez. Gogorra da batzuetan, baina hobetzen ikasteko baliagarria. Barre egiten duzue, baina ez beste lekuetan besteko algaraz; zuen isiltasuna ere gordinagoa da.

**Telebista, irratia, aretoak... Preferentziarik baduzu?**

Ez, asko kostatzen zait gauza bakar bat egitea; elkar elikatzen dutela esango nuke, gainera. Telebista egiten baduzu, jende gehiago joango da aretoetara eta aretoetako eskarmentua, gero, igarri egiten da mikrofono aurrean. Ez gaude, gainera, lanari ezetz esateko garaian.

**Telebista aipatuta, derrigorrean zure aita pontekoaz galdetu behar: zer diozu Wyomingi buruz?**

Asko da niretzako. Komiko moduan betidanik izan naiz haren zalea. Orain, berriz, pertsonalki bilakatu naiz haren zale: erreferente moral aparta iruditzen zait. Sekulako talentua du.

**Familiaren eta lanaren arteko kontziliazioa nola lortzen duzu?**

Familiaren meritua da, duda barik! Asteburuko lanak familia-plan bilakatzen saiatzen naiz. Oraingoa, esateko, Elgeta inguruko nekazari turismo eder batean igaroko dugu elkarrekin. Eta elurra iragarrita dagoela esan didazunez... perfektua!

## Zuhaitz Gurrutxaga Bergarako Zabalotegi aretoan

Espaloiko monologo saioaz gainera, asteburuan beste bat ere bada: Bergaran, gaur, egubakoitza (22:00), Zuhaitz Gurrutxaga futbolari elgoibartarrak *Conferencias de un futbolisto* saioa egingo du Zabalotegi aretoan. "Nire futbol ibilbidean bizitako anekdotak kontatu ohi ditut. Esaten dudan guztia benetan gertaturikoa da. Umore puntu batez esplikatu ohi ditut bizipen hauek, eta jendeak gustura entzuten ditu. Normalean futbolari batek kontatzen ez dituen istorioak ditut hizpide", aurreratu du.

**Bielsaren bitartez, Athleticen**

Futbolariek eurek ere gustura entzuten dituzte Gurrutxagaren kontakizunak: "Bielsak pertsonalki deitu zidan ea Athleticeko lehen taldearen aurrean bakarrizketa aurkeztuko nukeen galdetuz. Benetan polita izan zen emanaldia, barre asko egin zuten bai jokalari eta bai entrenatzaileek ere".

**Agertokia, "adikzio" iturri**

Eta taula-gainean gogoz jardungo duela aurrera genezake, aitortu digu-eta adikzioa eragiten diola horrek: "Futbolean urte asko daramat eta ez dut orain 15 urte neukan ilusio bera. Halere, gustura nabil Beasain taldean. Abestiak konposatu eta kantatzea asko gustatzen zait, eta taldekide bikainak dauzkat alboan (Vanpopel taldean). Baina, agian, orain gustukoen dudana bakarrizketalariaren esparrua da. Bakar-bakarrik agertokira igotzeak sortzen du halako adikzio bat". Bukatzeko, Bergarako Udalari eskerrak eman gura dizkio saioa egitera gonbidatzearren.




Monologoaren iragarpena. | Z. GURRUTXAGA

## Aurten ez dute Mundumira jaialdirik antolatuko

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Mundumirak, Munduko Kulturen Festak, etenaldia izango du aurten. Atzo, eguena, jakinarazi zutenez, proiektua indartu egin gura dute: "Etorkizunari begira proiektua indartzeko eta datozen edizioetako oinarriak eta ereduak ezartzeko helburuarekin, aurten Mundumira jaialdia ez antolatzeko erabakia hartu dugu".

**Zikloa itxita**

Horrekin batera, antolatzaileek adierazi dute zortzi urteren ostean jaialdiaren ibilbidearen lehen zikloa itxi egin dela: "2005an izan zen Arrasaten lehen Mundumira, Munduko Kulturen Festa. Zortzi urteren ostean, jaialdiak ibilbidearen lehen zikloa itxi du, Gipuzkoako Debagoieneko eskualdea osatzen duten zortzi udalerrietatik pasa eta gero".

**Erabakia, "aho batez"**

Eta azpimarratu dute, baita ere, "erabakia aho batez" hartu dutela jaialdiaren antolatzaileek: Debagoieneko Mankomunitateak, *Euskal Herria* aldizkariak eta Ginmusica musika sustatzaileak, hain zuzen.

**Arrasate-Gatzaga**

Arrasaten izan zuen estreinaldia Mundumirak, eta Leintz Gatzagan borobildu du orain arteko ibilbidea, iaz.

## Musika elektronikoa entzungai, bihar, Laino skate parkean

Alemaniako *dark tekno* musikan inspiratuta jarduten duen La Tox bergararrek eta *dark metal* motako musika elektronikoa eta rocka uztartzen dituen Donostiako Krell musika taldeak hartuko dute, oraingo honetan, Bergarako Laino skate parkeko taulagaina. Bihar, zapatua, da hitzordua, 22:30ean hasita. Sarrera doan da.

## 'Sicario': marjinazioa eta biolentzia oinarri dituen filma Arrasaten

Askapena elkartearen eskutik, Jose Ramon Novoaren (Uruguay, 1954) *Sicario* filma emango dute etzi, domeka, Arrasateko gaztetxean. 18:30ean da hitzordua. Marjinaziotik eta miseriatik ihes egiteko biolentziara jotzen duen nerabe baten istorioa kontatzen du 105 minutu irauten duen drama horrek.

## ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
**- Profesionalen moduluak.**

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Aita Gabirel Jauregi kalean etxebizitza salgai, errentan emateko aukerarekin. 70 metro koadro. Bi logelakoa. Guztiz jantzia. Ganbara eta garajearekin. 679455762 (Ruben) edo 664749023 (Naiara)

**Arrasate.** Apartamentua salgai erdigunean, Uharkape kalean. 53 metro koadro erabilgarri. Egongela-sukaldea, bainugela, logela bat, balkoia eta jantzi-gela. Igogailuarekin. Berokuntza indibiduala. Jantzita. Ondo zainduta. Bizitzera joateko prest. 130.000 euro. Garajea aukeran. 619 18 14 86 edo 665 74 82 43

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Inarran. 80 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Terraza eta balkoiarekin. 162.273 euro. 666 53 95 39 edo 696 55 53 67

**Oñati.** Erdigunean 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde guztiz hornitua, egongela, bi logela eta komuna. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 215.000 euro. Garaje itxia, 35 metro koadrokoa, aukeran. 659 72 06 64

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Zarugalden, 60 zenbakian, etxebizitza errentan ematen da. Igogailua, logela bat, bainugela bat, sukaldea eta egongela. 656 75 00 94

**Oñati.** 60 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela, sukalde-egongela eta komun bat. Igogailuarekin. Deitu arratsaldez mesedez. 651 70 90 53

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikotea pisu bila Aramaion. Deitu zenbaki honetara:. 620 15 13 11

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 400 euro inguru ordain ditzaket. Daniela.727 74 42 36 edo 686 07 39 33

**Bergara.** Bikote euskalduna etxe bila alokairuan, gerora erosteko eskubidearekin. 695 72 55 96

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. 638 93 11 48

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa. Urgentea da. 608 02 24 69

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxea osatzeko logela ematen da errentan. 699 11 45 14

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 629 80 77 73

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko erdialdean. Jone. 636 05 36 18

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 230 euro dena barne. Deitu 670 85 86 68 telefonora.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Oñati.** Atzeko kalen 17 metroko garaje itxia salgai. Deitu 665 71 77 98 telefonora.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia errentan edo salgai Kontzezino parean, Iturbide egoitza parean. 15 metrokoa. 943 77 08 02 edo 628 14 92 74

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara edo Aretxabaleta.** Mutila gertu tabernan laguntzen edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientziaduna. 662 08 22 03

**Arrasate.** 18 urteko neska euskalduna goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 943 79 52 50

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. 699 54 17 27

**Bergara.** 48 urteko neska lanerako gertu. 606 24 79 09

**Bergara.** Bergarako emakumea gertu gauetan emakumeak zaintzeko. 665 75 41 32

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile tituludun gizona, antzuolarra, San Juan de Diosen lan egindakoa, lanerako gertu. Deitu 639 66 57 88 edo 943 78 62 19 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Erizain titulua daukan neska lan egiteko gertu. Gauean edo egunean zehar ospitalean edo etxean nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 688 80 27 01 edo 943 25 02 96 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzailea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. Etxeko garbitasunak ere bai. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Mutil arduratsu eta eskarmentuduna egun osoz lanerako gertu. Denetariko lanak egiteko gertu. Legezko paperak ditut. 602 48 36 75

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko paperekin, lanerako gertu: igeltsari edo nekazaritza laguntzaile, zerbitzari zein nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa. 648 75 24 96

**Debagoiena.** Mutila gertu makanikari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta berritze lanak egiteko ere. 691 795 334

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen edo atariak garbitzen lan egingo nuke. 679 30 65 28

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95 edo 943 71 53 74

**Debagoiena.** Neska arduratsua geru garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketak, atariak eta abar. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ditut. 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 636 80 87 68

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna lan bila etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko moduan. 727 74 42 36 edo 686 07 39 33

**Debagoiena.** Neska euskalduna, esperientzia eta informeekin, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Baita gauez ere. Disponibilitate osoa, gidabaimen eta autoarekin. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan. 632 09 72 93

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan. 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Eibarren bizi naiz. 631 22 32 92

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Nagusi edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egun osoz. 672 70 71 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauez, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 674 93 20 47

**Gizonezkoa lana egiteko gertu.** Astelehenetik egubakoitzera arratsaldez lan egiteko gertu nago, eta baita asteburuetan ere. Edozein lan egiteko gertu. 636 60 48 51

**Lan ezberdinak egiteko prest.** Basoan lan egiteko, margo lanak eta elektrizitate lanak egiteko mutila eskaintzen da. Esperientzia handia eta orduka edota jornada osoa lan egiteko prest. Deitu 697 74 79 61 telefono zenbakira

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Frantsesa.** Neskatila batentzako frantses irakasle bat behar dugu, zerotik hasteko. Deitu 634 43 80 66 telefono zenbakira.

### 502. EMAN

**Bergara.** Euskal Filologian lizentziatua, euskara irakasle hainbat urtetan euskaltegietan, gaur egun eskola publikoan irakasle eta IVAPen euskara azterztaile. Euskara, latina eta gaztelania eskolak ematen ditut Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan. Baita Hizkuntza Eskakizunak prestatzeko eskolak ere. 629 97 98 86 .

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katuak opari.** 2012ko uztaileko katu txikiak opari. Deitu 660 92 70 71 telefono zenbakira.

**Txakurrak opari.** "Bodegero Andaluz" arrazako txakurrak emango nituzke opari. Bi hilabete dituzte. 600 05 50 74

**Txakurkumeak.** Arratoi-txakurkume bat eta artzain-txakurkume bat ematen dira opari. Deitu: 685 75 86 49.

### 704. BESTELAKOAK

**Setter txakurra galdu da Oñatin.** Setter arrazako txakurra galdu zen Oñatin ostiralean, otsailaren 8an. Zuri kolorekoa da eta lepoko laranja dauka. Aurkitu edo ikusi baduzu deitu telefono zenbaki honetara:678 62 40 07

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Etxetresnak eta ohea.** Garbigailua, oso egoera onean dagoena, hozkailua, koltxoia eta somiarra salgai. Arrasaten. Interesatuok deitu 943 79 52 99 edo 626 19 56 82 telefono zenbakietara

**Ipad-a.** Appleren Ipad Wifi 16 GB salgai. Estreinatzeke. Beltza. 628 14 92 74

**Taxi lizentzia.** salgai Bergaran. 617 42 97 45

### 802. EROSI

**Trikitixa erosiko nuke.** Trikitixa bat erosiko nuke, 4 ahotsekoa eta SIb-en afinatua. Ahal izanez gero Zero Sette markakoa. Erabiltzen ez duzun trikitixa hori saltzea erabakiko bazenu, jarri kontaktuan: 678 82 29 95.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000 €
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000 €
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m2. 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

### 806. GALDU

**Belarritako baltzak Aretxabaletan.** Igande karnabaletan galdu nituen. Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara. Eskerrikasko. 675 00 66 03

**Bideo kamera Arrasaten.** Otsailaren 9an, bideo kamera bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, BAZen utzi edo deitu: 616 81 21 25

### 808. BESTELAKOAK

**Lekuko bila Bergaran.** Astelehenean, otsailak 18, Ibargarai 11 kalean, fruta denda parean autoa kolpatu zidaten aparkatuta nuela. Eguerdi aldera. Norbaitek zerbait ikusi badu mesedez deitu zenbaki honetara. Mila esker. 660 04 77 70

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasateko elkarte gastronomiko baten plaza erosiko nuke.** Zure plaza saltzeko asmoa baduzu nik erosiko nizuke. Alde zaharrean bada hobe, baina ez ditut beste aukerak baztertzen. 667 95 73 16 .

arantzazuGaur
fundación arantzazu gaur fundazioa

**Arantzazu Gaur Fundazioa** Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Udalak, Mondragon Taldeak, Kutxak eta Frantziskotarrek osatzen dute, eta honakoa dute helburu: Arantzazu sustatzeko eta berritzeko prozesua bultzatzea, dinamizatzea, kudeatzea eta koordinatzea. Hori dena, ikuspegi orokorra eta etorkizuneko ikuspegia izanik eta Santutegiko identitate historikoa eta frantziskotarren printzipioak errespetatuz, betiere transformazio soziokulturalei irekita egonik. Fundazioak lanpostu honetarako pertsona bat behar du:

**"GANDIAGA TOPAGUNEA" BATZAR-ZENTROA KUDEATZEKO LAGUNTZAILEA**

**FUNTZIO NAGUSI HAUEK IZANGO DITU:**
- Bezeroen arreta telefonoz, emailez eta Gandiaga Topaguneko bulegoan beren beharrei erantzuteko.
- Administrazio-lanak: aurrekontuak eta fakturak prestatu, inguruko hotelekin eta turismo-eragileekin bezeroen beharrak koordinatu, hornitzaileen subkontratazioa, kalitateko programa jarraitu.
- Gandiaga Topaguneko ekitaldietarako gelak eta kafe-atsedenaldiak prestatu.
- Eraikinaren mantenimendua eta garbiketa kudeatu.
- Arantzazu Gaur Fundazioko idazkaritzan lagundu.

**ESKAKIZUNAK:**
- Frogatzeko moduko esperientzia izatea bezeroen arretan, administrazio- eta komertzial-lanetan edota ekitaldiak antolatzen.
- Elebiduna izatea: euskaraz nahiz gazteleraz ahoz eta idatziz adierazteko gaitasuna izatea.
- Ibilgailu propioa.

**KONTUAN IZANGO DIRA:**
- Arantzazu ezagutzea eta haren ingurune kulturalaren, naturalaren, artistikoaren eta espiritualaren berri izatea.
- Oñatin edo inguruan bizitzea.

**EZAUGARRIAK:**
- Aldi baterako kontratua, astean 30 orduko lanaldiarekin.

Emandako datuak, dagokien bezala isilekoak izango dira, abenduaren 15/1999 Legeak, hots, Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

Interesdunek *arantzazugaur@arantzazu.org* helbidera bidali behar dute curriculum-a, martxoaren 4a baino lehen. 15 eguneko epean aurrez aukeratutakoei bakarrik erantzungo zaie.

GOIMEK

**CNC FRESADORA LANGILEA**
(Erref.: DG 0044)

Goimek zehaztasun handiko mekanizazio lanetan aditua den kooperatiba bat da. Mekanizaziorako irtenbide osoak, kalitatea, doitasuna eta zerbitzua bermatzen ditugu. Gure jarduna bideratzen dugu makina-erreminta, aeronautika eta trenbide sektoreentzako doitasunezko pieza handien mekanizaziora.

**Zereginak:** fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorreko makinak edo mandrinatzekoak), bai arbastatze eragiketa eta baita akaberakoetan esperientzia duena ere.

**Eskatzen da:**
- Titulazioa: goi mailako heziketa-zikloko trebakuntza.
- Hizkuntzak: euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanposturen batean.
- CNC Heidenhain menperatzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Egiaztapen tresnak erabiltzeko ezagutzak izatea (alexometroak, mikrometroak, etab.).

**Eskaintzen da:**
- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**Epea:** interesatuok bidali curriculuma Giza Baliabideen Departamentura: *ecarballo@goimek.com*

DANOBATGROUP

## ASTEA GOIENAN


GOIENA

### 'Egunkaria'-ren itxieraren erreportajea

Eguaztenean bete ziren 10 urte *Egunkaria* itxi zutela. Hiru debagoiendarrek nola bizi izan zuten kontatuko dizuegu. Idoia Etxebarria oñatiarra eta Fermin Lazkano eta Mikel Lizarralde bergararrekin izango gara saioan, besteak beste.

**'AsteOn'**
Egubakoitza, 21:30



GOIENA

### Maider Undari elkarrizketa

*Harmailatik* kirol saioan Maider Unda elkarrizketatuko dugu. Besteak beste, iritzia eskatuko diogu diogu borroka librea Joko Olinpiarretatik kanpo utzi nahi dutela-eta; asteburuko Espainiako Txapelketa ere izango dugu hizpide.

**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 22

**12:00** Magazinea
**12:20** Zorion Agurrak
**13:05** Gurean gaur
**13:10** Onein
**13:40** Bizitegia
**14:03** Ikusmira
**14:33** Zorion Agurrak
**14:43** Berriak
**14:45** Eguraldia
**15:05** Planik bai?
**15:08** Berbetan
**15:28** Laino arteko plana
**16:05** Beranduegi.tv
**16:35** Zorion Agurrak
**16:55** Berriak
**17:00** Eguraldia
**17:20** Planik bai?
**17:23** Esatea libre
**17:43** Zorion Agurrak
**19:01** 28.Klip
**19:04** Beranduegi.tv
**19:36** Zorion Agurrak
**20:00** Berriak
**20:03** Eguraldia
**20:23** Planik bai?
**20:25** Hitzlandia
**20:45** Beranduegi.tv
**21:08** Gurean gaur
**21:30** AsteON
**22:00** Berriak
**22:30** Eguraldia
**22:50** Klaketa
**22:53** AsteON
**23:28** Planik bai?
**23:58** Berriak

### ZAPATUA, 23

**10:00** 28 klip
**10:31** Zorion agurrak
**10:36** Ekogune
**11:06** AsteON
**11:46** Planik bai?
**12:06** Onein: Olagarroa plantxan
**12:29** Berriak
**12:44** Magazinea
**13:44** Hitzlandia
**14:07** Laino arteko plana
**14:37** Zorion agurrak
**14:42** Berriak
**14:57** Onein: Kalabaza krema
**15:24** Planik bai?
**15:44** Laino arteko plana
**16:14** Zorion agurrak
**16:19** Berriak
**16:34** Beranduegi.tv
**16:58** Magazinea
**17:58** Planik bai?
**18:18** Hitzlandia
**18:41** AsteON
**19:17** Beranduegi.tv
**19:41** Magazinea
**20:41** Planik bai?
**21:01** Jaiak: Aratusteak 2013
**21:51** Aratuste Kontzertua
**23:26** Magazinea
**00:26** Planik bai?

### DOMEKA, 24

**10:00** Jaiak: Aratusteak 2013
**11:00** Zorion agurrak
**12:00** Onein: Olagarroa plantxan
**13:00** Magazinea
**14:00** Planik bai?
**14:20** Berriak
**14:35** Onein: Kalabaza krema
**15:02** Aratuste Kontzertua
**16:37** AsteON
**17:12** Zorion agurrak
**17:17** Jaiak: Aratusteak 2013
**18:07** Ekogune
**18:37** Berriak
**18:52** Magazinea
**19:52** Beranduegi.tv
**20:16** Magazinea
**21:16** AsteON
**21:51** Zorion agurrak
**21:56** Jaiak: Aratusteak 2013
**21:51** Ekogune
**21:56** Magazinea
**22:46** Berriak
**23:16** Magazinea
**00:16** Berriak
**00:31** Magazinea

### ASTELEHENA, 25

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean Gaur
**13:15** Zorion agurrak
**13:20** Onein: Torradak
**13:41** Laino arteko plana
**14:11** Ekogune
**14:41** Zorion agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion agurrak
**15:18** AsteON
**15:58** Bizitegia
**16:28** Zorion agurrak
**16:33** Berriak
**16:58** Eguraldia
**17:01** Onein:Menestra
**17:27** Berbetan: Igor Elortza
**18:09** Ekogune
**18:39** Hitzlandia
**19:00** Beranduegi.tv
**19:20** Onein: Bakailo kurruskaria
**19:51** Berriak
**20:16** Eguraldia
**20:18** Magazinea
**21:01** Gurean Gaur
**21:30** AsteON
**22:00** Harmailatik
**22:45** Berriak
**23:05** Eguraldia
**23:08** Magazinea
**23:53** Harmailatik
**00:38** Berriak
**00:58** Eguraldia

### MARTITZENA, 26

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean Gaur
**13:15** Zorion agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion agurrak
**14:45** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:55** Onein: Torradak
**16:16** Berbetan: Igor Elortza
**16:58** Berriak
**17:18** Eguraldia
**17:21** Esatea libre
**18:39** Beranduegi.tv
**18:59** Harmailatik
**19:44** Zorion agurrak
**19:49** Berriak
**20:09** Eguraldia
**20:14** Magazinea
**20:59** Gurean Gaur
**21:29** Hitzlandia
**21:52** Berriak
**22:12** Eguraldia
**22:17** Magazinea
**23:02** Bizitegia
**23:30** Berriak
**23:50** Eguraldia

### EGUAZTENA, 27

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean Gaur
**13:10** Harmailatik
**13:55** Sagarrondotik
**14:40** Zorion agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Jaiak: Aratusteak 2013
**15:58** Onein: Bakailo kurruskaria
**16:29** Harmailatik
**17:14** Sagarrondotik
**17:47** Zorion agurrak
**17:52** Berriak
**18:12** Eguraldia
**18:14** Iruñeako hotsak: Paris 365
**18:59** Hitzlandia
**19:22** Bizitegia
**19:52** Zorion agurrak
**19:55** Berriak
**20:20** Eguraldia
**20:22** Magazinea
**21:07** Gurean Gaur
**21:38** Sagarrondotik
**22:20** Ekogune
**22:50** Berriak
**23:10** Eguraldia
**23:12** Magazinea
**23:57** Harmailatik
**00:42** Berriak
**00:47** Eguraldia
**00:50** Magazinea

### EGUENA, 28

**12:00** Magazinea
**12:50** Gurean Gaur
**13:20** Sagarrondotik
**14:03** Ikusmira: Turdaibai
**14:15** Onein:Menestra
**14:41** Zorion agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Iruñeako hotsak: Paris 365
**15:53** AsteON
**16:33** Berriak
**16:53** Eguraldia
**16:56** Onein: Bakailo kurruskaria
**17:27** Iruñeako hotsak: Paris 365
**18:12** Planik bai?
**18:32** AsteON
**19:12** Zorion agurrak
**19:17** Beranduegi.tv
**19:37** Berriak
**19:57** Eguraldia
**19:59** Planik bai?
**20:21** Magazinea
**21:06** Gurean Gaur
**21:36** Laino arteko plana
**22:05** Planik bai?
**22:25** Berriak
**22:45** Eguraldia
**22:48** Magazinea
**22:33** Jaiak: Aratusteak 2013
**00:23** Berriak
**00:43** Eguraldia

## ARRASATE IRRATIA

### Arrikrutz kobak ikusteko sarrerak ditugu zozketan

Oñatiko Arrikrutz kobak bisitatu nahi badituzue, Arrasate Irratian zuen artean banatzeko bi sarrera ditugu. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Animatu, parte hartu zozketan eta zorte ona izan dezazuela!

### Asteari gainbegiratua, zapatu eta domekan

Aste honetan elkarrizketen geltokian izandako elkarrizketak eskainiko dizkizuegu zapatu eta domekan, 10:00etan. Josu Pereda Arrasateko Ingurumen batzordeburuaren elkarrizketa entzun ahal izango duzue, gaikako hondakin bilketaz.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 22** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Zapatua, 23** | RUIZ | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| **Domeka, 24** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Astelehena, 25** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Martitzena, 26** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Eguaztena, 27** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguena, 28** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 22** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 23** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 24** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 25** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 26** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 27** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 28** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 22** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 23** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 24** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 25** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Martitzena, 26** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 27** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguena, 28** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



**Max.** 3º
**Min.** -1º

**ZAPATUA, 23**
Hotz galanta eta elur-lapatsa egingo du maila baxuetan zapatuan. Termometroak balio oso baxuetan mugituko dira.



**Max.** 3º
**Min.** -1º

**DOMEKA, 24**
Tenperatura zapatuan izandakoaren antzekoa izango da, baina baliteke elur gutxiago egitea domekan.



### Tere eta Anton

Anton Azkarate eta Tere Morras 1963ko otsailaren 23an ezkondu ziren, Arrasateko parrokian. Urrezko ezteiak ospatuko dituzte 23an, zapatuan. 13:00etan meza, Zigorrolako San Isidro elizan, eta gero, bazkaria Arteagan. Zorionak, familiakoen partetik.





### Miguel eta Felisa

Miguel Larrañagak eta Felisa Narvaizak otsailaren 20an 50 urte bete dituzte ezkonduta. Zapatuan familiarekin ospatuko dute, San Martin elizan meza entzunda eta gero bazkari eder batekin. Familia guztiaren partetik, musu handi bat; bereziki, Mirenek, Markelek, Mikelek, Julenek eta Ibonek.

## HILDAKOAK

**Isabel Gil Zorrilla.** Arrasaten, otsailaren 5ean. 88 urte.
**Jose Luis Vicuña Madina.** Oñatin, otsailaren 6an. 75 urte.
**Jose Manuel Martin Serafin.** Oñatin, otsailaren 7an. 65 urte.
**Mirentxu Zabala Amutxastegi.** Bergaran, otsailaren 7an. 81 urte.
**Maria Etxaniz Aizpurua.** Arrasaten, otsailaren 7an. 83 urte.
**Valeriana Lopez Lopez.** Arrasaten, otsailaren 10ean. 91 urte.
**Ramona Elkoro Ansola.** Elgetan, otsailaren 11n. 93 urte.
**Benito Perez Romeo.** Aretxabaletan, otsailaren 11n. 68 urte.
**Miguel Egaña Guridi.** Oñatin, otsailaren 12an. 61 urte.
**Jesus Altuna Madinabeitia.** Bergaran, otsailaren 12an. 50 urte.
**Iker Lasaga Llamas.** Arrasaten, otsailaren 13an. 35 urte.
**Javier Bartolome Yarza.** Oñatin, otsailaren 13an. 70 urte.
**Manuel Espiñeira Varela.** Arrasaten, otsailaren 14an. 77 urte.
**Vitoriano Zubia Iñurrategi.** Eskoriatzan, otsailaren 14an. 86 urte.
**Francisca Arabaolaza Inaza.** Arrasaten, otsailaren 15ean. 93 urte.
**Jose Ramon Alberdi Basterrika.** Bergaran, otsailaren 15ean. 69 urte.
**Antonio Salaberria Agiriano.** Arrasaten, otsailaren 17an. 77 urte.
**Patrizia Igarza Iturrino.** Arrasaten, otsailaren 17an. 86 urte.
**Luis Mari Zubizarreta Letona.** Eskoriatzan, otsailaren 17an.
**Celestino Agirre Irasuegi.** Bergaran, otsailaren 18an. 82 urte.
**Dolores Iñarra Lizarralde.** Bergaran, otsailaren 18an. 90urte.
**Rufino Muñoz Ruano.** Bergaran, otsailaren 20an. 73 urte.

---

MEZA

## Jesus Olalde Lizarralde



2013ko otsailaren 4an hil zen, 84 urte zituela.

Haren aldeko meza zapatuan izango da,
otsailaren 23an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

---

ESKER ONA

## Rufino Muñoz Ruano



2013ko otsailaren 20an hil zen, 73 urte zituela.

Rufinoren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik,
sendiarengana hitz lasaigarriekin hurbildu ziren guztiak
eta hileta elizkizunera agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

**Angiozarren, 2013ko otsailaren 22an.**

---

ESKER ONA

## Jose Luis Vicuña Madina



'Txopekua'

2013ko otsailaren 6an hil zen, 75 urte zituela.

Jose Luisen familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Hileta-elizkizunetara hurbildutakoei eta samin-agurrak bidali
dizkiguzuen guztioi, eskerrik asko.

Zapatuan, otsailaren 23an, 19:30ean, meza ospatuko dugu agustindarren elizan.

*Aitaita Luis, gure bihotzean egongo zara beti.*

**Oñatin, 2013ko otsailaren 22an.**

---

ESKER ONA

## Vitoriano Zubia Iñurrategi



Arrasaten hil zen 2013ko otsailaren 14an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta
samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Eskoriatzan, 2013ko otsailaren 22an.**

---

ESKER ONA

## Luis Mari Zubizarreta Letona



2013ko otsailaren 17an hil zen.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta
samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Eskoriatzan, 2013ko otsailaren 22an.**

---

ESKER ONA



## Jose Ramon Alberdi Basterrika



'Mieka'

Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 15ean, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta
samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2013ko otsailaren 22an.**

---

ESKER ONA

## Patricia Igarza Iturrino



Arrasaten hil zen 2013ko otsailaren 17an, 86 urte zituela.

Momentu hauetan sentitu dugun hurbiltasun eta maitasunagatik,
guztioi mila esker.

**Senarra, seme-alabak eta bilobak.
Arrasaten, 2013ko otsailaren 22an.**

---

OROIGARRIA

## Luis Mari Zubizarreta Letona



'Arrupe'

*Lauhazka trotean zaldiak
Trikuharriak dardaraka
Artaldia egon ezinaz
Inguruenian bueltaka*

*Energi erraldoi bat badoa
Kargalekuruntz zeharka
Han zainduko gaitu Arrupek
Haize guztietan hegazka.*

**Gatzagako lagunak.
Leitz Gatzagan, 2013ko otsailaren 22an.**

---

OROIGARRIA



## Jose Ramon Alberdi Basterrika



'Mieka'

Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 15ean, 69 urte zituela.

*Maite zaitugu, aitxitxa,
beti gogoan izango zaitugu.*

**Eki eta Alen.
Bergaran, 2013ko otsailaren 22an.**

---

OROIGARRIA

## Patricia Igarza Iturrino



M. Sol eta M. Jose Etxabe lankideen ama.

Arrasaten hil zen 2013ko otsailaren 17an, 86 urte zituela.

*Har beza familiak gure atsekabe-mina.*

arizmendi ikastola

**Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2013ko otsailaren 22an.**

---

OROIGARRIA

## Javier Bartolome Yarza



2013ko otsailaren 13an hil zen, 70 urte zituela.

*Zure oroimena
beti izango da gure bihotzetan.*

**Zure familia.
Oñatin, 2013ko otsailaren 22an.**

---

URTEURRENA

## Angel Altuna Lazkano-Iturburu



Oñatin hil zen 2012ko otsailaren 21ean, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
otsailaren 23an, 19:00etan, Oñatiko
Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

---

URTEURRENA

## Enrike Anduaga Zelaia



Oñatin hil zen 2012ko otsailaren 22an, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
otsailaren 23an, 19:00etan, Oñatiko
Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

**BERGARA Zuhaitz Gurrutxagaren monologoak**
Zuhaitz Gurrutxaga futbol jokalari ohiak bakarrizketa saioa egingo du, *Monologos de un futbolisto* delakoa. Jokalari izandako bizipenak kontatuko ditu. Realean, Rayo Vallecanon eta Real Unionen jokatu ondoren, musikari eta monologoen bideari heldu dio Gurrutxagak.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.


GOIENA


GOIENA

**OÑATI Anje Duhalderen zuzenekoa**
*Ibilean* zuzeneko grabaketa erakutsiko du Anje Duhaldek Oñatin. Kantu tradizionalaren eta rockaren arteko zubia eraikitzeko gai izan da Iparraldeko kantaria. Kantu berriak eta betikoak eskainiko ditu.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

# NON-ZER

OTSAILA 22
OTSAILA 28

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Latox eta Krell taldeen kontzertua**
Bergarako Latox eta Donostiako Krell taldeek zuzenekoa egingo dute.
Bihar, zapatua, Laino Skate parkean. 22:30ean

**ARRASATE 'Pedro eta otsoa' musika emanaldia**
Arrasate Musikaleko Bandak Sergei Prokofieve-ren poema sinfonikoa aurkeztuko du. Julu Lopez izango da narraitzailea, eta Oier Balbas marrazkigilea.
Etzi, domeka, Amaia Antzokian, 12:30ean

**OÑATI Scremin'Target, Pako tabernan**
Power pop eta rockabilly estiloak jorratzen dituen talde donostiarrak *Heartbreak* single berria aurkeztuko du.
Etzi, domeka , Pako tabernan, 19:30ean

## ANTZERKIA

**OÑATI 'Paradisuko atean' antzezlana, Korrika Kulturalaren barruan**
Arrasateko Doke taldeak emanaldia egingo du. Sarrerak salgai, aldez aurretik, *www.barrabarra.eu* atarian.
Etzi, domeka, Santa Ana aretoan, 19:30ean

**ARETXABALETA 'Pisukideak' antzezlana**
Egoerak muturreraino eramanda, umorezko antzezlan honek Markos eta Matilde pisukideen balentriak taularatzen ditu. Sarrera, 4 euro. Korrika Kultural barruko ekitaldia.
Otsailaren 26a, martitzena, Arkupeko Zaraia aretoan,19:00etan

## DANTZA

**ARRASATE 'Herrixa dantzan'**
Gidatutako dantzaldi irekia, Euskal Herriko eta Europako beste eskualde batzuetako dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, korruan, taldean, bikoteka... denetarik. Sarrera doan eta parte hartzea libre. Antolatzailea: Portaloi elkartea.
Gaur, egubakoitza, Garaia taberna-jatetxean, 20:00etan

## IKUSKIZUNAK

**ANTZUOLA Ernesto Agirre ipuin kontalaria**
Ernesto Agirre ipuin kontalaria. 19:00etan, Torresoroan.
Etzi, domeka, Torresoroan, 19:00etan

**ARAMAIO Arabako Bertsolari Txapelketa**
Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa jokatuko dute. Manex Agirre, Paula Amilburu eta Andere Arriolabengoa aramaioarrek parte hartuko dute. Horiekin batera Ander Solozabal, Zigor Enbeita eta Unai Mendibilek jardungo dute bertsotan, finalerako txartel bila.
Otsailak 28, eguena, liburutegian, 18:00etan

## OSPAKIZUNAK

**OÑATI Independentzia ospakizuna**
Acesma kubatarren elkarteak antolatuta, Dominikar Errepublikaren independentziaren 169. urteurrena ospatzeko jaialdia egingo dute. Egun osoko festa egingo dute: goizean, umeendako puzgarriak; eguerdian, dominikar folklorearen erakustaldia; eta, azkenik, bazkaria Dominikar Errepublikako jakiekin.
Bihar, zapatua, Foru plazan, 10:00etan

## UMEAK

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
3-12 urte bitarteko gazteentzat eta tutore eta gurasoentzat ludoteka ibiltaria egingo dute, Txatxilipurdik antolatuta. Musakolako azkena izango da. Hurrengo astetik aurrera, lau zapatutan, San Andresko ludotekan egingo dute.
Bihar, zapatua, Musakolako gaztetxokoa, 10:30ean

## LITERATURA

**OÑATI Karmele Jaioren liburuari buruzko gogoeta eta tertulia**
Karmele Jaioren *Ez naiz ni* izeneko liburuari buruzko gogoeta eta tertulia egingo dute, Antixenako irakurle taldearekin.
Gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean, 18:30ean

## IRTEERA

**ELGETA Bisita gidatua Intxortako frontera**
Hiru orduko bisita da, eta komeni da, aldez aurretik, izena ematea: 943 71 89 11 edo 943 79 61 63 telefonoetan, edo *turismoa@debagoiena.com* helbidean.
Etzi, domeka, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan,10:00etan

**ARAMAIO Idiazabalgo Gazta Museora irteera**
Zuiako Koadrilak antolatuta, Idiazabalgo Gazta Museora joateko aukera egongo da. 0 eta 10 urte artekoek lau euro ordaindu beharko dute eta 11 urtetik gorakoek, berriz, zortzi euro. 10 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute.
Etzi, domekan, kiroldegian, 09:45ean

**OÑATI Paleofaunaren inguruko hitzaldi-paseoa Arrikrutz kobazuloko alde turistikoan**
Oñatiko XVIII. Ingurumen jardunaldien barruan, Natur Eskolak antolatuta. Hizlaria: Trinidad Torres paleontologoa.
Bihar, zapatua, Oñatin,10:00etan


DANI MATEO

**ELGETA Dani Mateoren emanaldi bikoitza**
Elgetako I. Monologo Mostraren azken ikuskizuna egingo du Dani Mateo ezagunak. *PK2: Que Dios nos coja confesados* delako emanaldia egingo du. Bi saio izango dira, zapatuan 22:30ean eta domekan 19:30ean. Sarrerak: *www.espaloia.com.*
Zapatua, Espaloia, 22:30ean eta domeka, Espaloia, 19:30ean

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Plesittozeneko fauna Arrikrutz eta inguruko kobazuloetan' hitzaldia**
Oñtiko XVIII. Ingurumen jardunaldien barruan. Hizlaria Trinidad de Torres paleontologoa izango da.
Gaur, egubakoitza,kultura etxean, 19:00etan

**OÑATI Esklerosi anizkoitzaren gaineko hitzaldia**
Aloña Mendi Saskibaloi Sailak Ademgirekin, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartearekin, elkarlanean berbaldia egingo dute. Neurologo batek, Asier de la Iglesia Natra Oñatiko jokalariak eta esklerori anizkoitza duen oñatiar batek parte hartuko dute.
Bihar, zapatua, kultura etxean,12:30ean

**OÑATI 'Ehiztari-batzaile taldeak Gipuzkoako historiaurrean' hitzaldia**
Oñatiko XVIII. Ingurumen jardunaldien barruan, Natur Eskolak antolatuta. Hizlaria: Alvaro Arrizabalaga, Arkeologia irakaslea EHUn eta Lezetxikiko indusketen arduraduna.
Otsailaren 26a, martitzena, kultura etxean, 19:00etan

**OÑATI 'Labar-artea esparru franko-kantabrikoan' hitzaldia**
Oñatiko XVIII. Ingurumen jardunaldien barruan, Natur Eskolak antolatuta. Hizlaria: Marcos Garcia Diaz, Historiaurrean doktorea eta irakaslea EHUn.
Otsailaren 27a, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan.

**BERGARA Haurren obesitatea, "pisatzen" duen elikadura txarra**
Haurren artean, helduen artean bezala, obesitatea osasun publikoaren arazo garrantzitsua bihurtu da azken urteetan, hazkunde handia izan duelako eta herri garatuetan hazteko duen joeragatik. Daniel Jimenezek –Debagoieneko ESIko Obesitate eta Pediatria-Endokrinologia Klinikako arduraduna– eta Agustin Rodriguez eta Lisette Delgado pediatrek azalduko dute obesitatea zer den, Euskadin gaur egun duen egoera eta diagnostikoa zein den eta heldutasunean sor daitezkeen arazoak zeintzuk diren.
Otsailaren 27a, eguaztena, Irizar Jauregian, 19:00etan



LAS GRECAS

**BERGARA Las Grecas bikotearen flamenko doinuak**

70eko hamarkadan Carmela eta Tina Muñoz ahizpek sortutako Las Grecas bikotearen ondorengoek egingo dute zuzenekoa. Hain zuzen ere, hirugarren belaunaldia osatzen duten Maliciak eta Nanik. Flamenko doinuekin beteko dute Tartufo.

Gaur, egubakoitza, Tartufon, 21:00etan.

## DEIALDIAK

**ARRASATE Azken ostiraleko elkarretaratzea**

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko dute Herriko Plazan, azken egubakoitza izanik.

Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:30etan

**ANTZUOLA Arrolaren urteko batzarra eta 'Pura vida' dokumentala**

Arrolak urteko batzarra egingo du. 18:30erako lehen deialdia egin dute. Ondoren, *Pura vida* dokumentala euskaraz ikusteko aukera egongo da. Zortzi eskalatzaile adituk Otxoa de Oltza erreskatatzeko lan itzelak egin zituzten. Euren bizitza arriskuan jarri zuten mendizalea salbatzeko. Bertako benetako gertakarietatik abiatuta, Pablo Uraburuk eta Migueltxo Molinak sortutako istorioa kontatzen da dokumentalean.

Gaur, egubakoitza, Olaranen eta Torresoroan, 18:30ean

**OÑATI Gaztelekurako izena aukeratzeko batzarra**

Proposatutako izenak aztertu eta bat aukeratuko dute.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 11:00etan

**OÑATI European Youth Parliament**

Elkar Heziko DBH 4ko zazpi ikaslek, Gazteen Europar Parlamentuak antolatutako batzarrean parte hartuko dute. Ingelesez Europari eragiten dion gai bat defendatu beharko dute. Ondoen egiten dutenak estatuko EYPeko hautaketetara pasatuko dira.

Bihar, zapatua, Bilbon, 09:30ean

**ARETXABALETA 'Nire argazkia' dokumentala**

Euskalkiei eta memoriari buruzko lana da *Nire argazkia* dokumentala. Jokin Etxeberria eta Benjamin Duinat zuzendariek parte hartuko dute emanaldian eta ondorengo tertulian. Sarrera, debalde. Loramendiko Sustapen taldeak antolatu du.

Bihar, zapatua, Arkupeko Zaraia aretoan, 18:30ean.

**ANTZUOLA Txistularien diana**

Txistularien diana herrian zehar. Kalerik kale ibiliko dira domeka goiza alaitzen.

Etzi, domeka, kalerik kale, 10:00etan

## IKASTAROAK

**ARETXABALETA Bat-bateko sorkuntza saioa**

Jaiki elkarteak antolatuta batbateko sorkuntza saioak egingo dituzte hilabeteko azken dometan, kuartel zaharrean. Musika, dantza, antzerki edo arte ederren zaleendako saioak dira eta ez da inolako eskarmenturik eskatzen. Debalde da.

Etzi, domeka, koartel zaharrean, 17:30ean

## KIROLA

**OÑATI 'Ezetz hirurak egin?' fitness jaia egingo dute**

Gimnasia armonikoa, bosu tonifikazioa eta fit-bikea egingo dituzte. Guztira, hiru ordu eta erdi iraungo du. Ikastaroetan dabiltzanendako, doan.

Bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian,10:00etan

**ELGETA Kantsatzeke: bazkidetza eta federatu txartela**

Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak bazkidetza eta federatu txartela ateratzeko aukera emateen du eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara, kultura etxeko bigarren solairuan.

Otsailaren 27a, eguaztena, kultura etxeko 2. solairuan, 19:00etan

**OÑATI Hastapen astea hainbat kirol zerbitzutan**

Fit-bike, gimnasia abdominal hipopresibo, bosu tonifikazio eta gimnasia harmonikoetako hastapen ikastaroak egingo dituzte Zubikoa kiroldegian.

Otsailaren 27a, eguaztena, Zubikoan, 09:00etan

**ARETXABALETA Puzgarriak kiroldegiko igerilekuan**

Puzgarriak izango dituzte neska-mutikoek Ibarra kiroldegiko igerilekuan: 3-6 urtekoak 16:00etatik 17:00etara; 7-10ekoak 17:30etik 18:45era; eta 11-12 urtekoak 18:45etik 20:00etara.

Bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian, 16:00etan

**ANTZUOLA Pilota: eskolarteko txapelketa**

Herriko pilotalekuan, eskolarteko txapelketako partiduak jokatuko dituzte. Benjaminak: Antzuola 3 -Plaentxi; eta alebinak: Antzuola 3- Almen-Arizmendi.

Bihar, zapatua, frontoian, 10:00etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La noche mas oscura**
Zapatua: 19:30.
Domeka: 20:30.

**Peso pesado**
Zapatua: 17:00.

**El capital**
Otsailak 26: 20:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Sacame del paraiso**
Domeka: 19:30.

**El gato con botas**
Zapatua: 17:00.

**GAZTETXEA**

**Hunger**
Domeka: 18:00

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Lincoln**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Panico en la granja**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ZARAIA**

**El cuerpo**
Zapatua: 22:00.
Domeka: 22:00.
Otsailak 25: 16:00.

**Lorax**
Zapatua: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Blackie & Kanuto**
Domeka: 17:00.

**Holmes & Watson. Madrid days**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La noche mas oscura**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:15, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO ANTZOKIA**

**Un plan perfecto**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Amigos para siempre**
Domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**GORBEIA**

**La extraña vida de Timothy Green**
Zapatua eta domeka: 15:30.
Zapatua: 00:30.
Astelehenetik eguenera: 17:45, 18:35, 20:00, 20:50,22:15.

**Si fuera facil**
Zapatua eta domeka: 15:40.
Zapatua: 00:10.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

**La jungla: un buen dia para morir**
Zapatua eta domeka: 16:10.
Astelehenetik eguenera: 18:10, 19:30, 21:15, 21:50.

**Un plan perfecto**
Astelehenetik eguenera: 18:15, 19:30, 21:50.

**La trama**
Zapatua: 00:50.
Astelehenetik eguenera: 20:30, 21:40, 22:40.

**El vuelo**
Astelehenetik eguenera: 20:40, 22:15.

**Mama**
Zapatua eta domeka: 15:45.
Zapatua: 00:45.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30.

**El lado bueno de las cosas**
Astelehenetik eguenera: 17:30, 18:40, 19:50.

**Argo**
Zapatua: 00:40.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 20:05.

**Rompe Ralph!**
Zapatua eta domeka: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Django desencadenado**
Astelehenetik eguenera: 21:40, 21:45.

**Lo imposible**
Astelehenetik eguenera: 21:30, 22:25.

**La noche mas oscura**
Astelehenetik eguenera: 21:00, 22:10.

**Blancanieves**
Astelehenetik eguenera: 20:10.

**Lincoln**
Astelehenetik eguenera: 18:50.
Martitzen eta eguenetan: 18:45

**Los miserables**
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Astelehen eta eguazten: 18:30.

**El hobbit**
Zapatua eta domeka: 15:40.

**La vida de Pi**
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Alucinante mundo**
Zapatua eta domeka: 15:40.

**Origen guardianes**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**FLORIDA**

**El lado bueno de las cosas**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 00:35.
Zapatua: 18:00, 20:15, 22:30, 00:35.
Domekatik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Blackie & Kanuto**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:25.

**El cuarteto**
Egubakoitzetik eguenera: 17:15

**Django desencadenado**
Egubakoitza eguenera: 19:00, 21:55

**Dos dias en Nueva York**
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 00:30.
Domekatik eguenera: 20:00.

**No**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Blue Valentine**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.

**Ganster Squad. Brigada de elite**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Domekatik eguenera: 22:30.

**Mama**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 22:30

**Si fuera facil**
Egubakoitza eta zapatua: 18:20, 20:45, 23:15.
Domeka: 18:20, 20:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00, 22:30.

**La jungla: un buen dia para morir**
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 20:15, 22:30.

**Rompe Ralph**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**Siete psicopatas**
Egubakoitzetik zapatura: 18:20, 20:30, 22:30.
Domeka: 18:20, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**BOULEVARD**

**Siete psicopatas**
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitza eta zapatua: 00:40
Astelehenetik eguenera: 18:10, 19:10, 20:20, 21:30, 22:30.

**Si fuera facil**
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitza eta zapatua: 00:15
Astelehenetik eguenera: 18:35, 18:45, 21:30.

**La extraña vida de Timothy Green**
Zapatua eta domeka: 15:45
Astelehenetik eguenera: 17:50, 19:10, 19:55, 21:30.

**La jungla: un buen dia para morir**
Zapatua eta domeka: 16:30.
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 19:00, 20:00, 20:30, 22:30.

**El lado bueno de las cosas**
Astelehenetik eguenera: 17:30, 18:40, 19:55, 21:00, 22:20.

**Mama**
Zapatua eta domeka: 15:45
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Astelehenetik eguenera: 17:45, 19:00, 19:45, 21:15, 21:45.

**La trama**
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.

**Django desencadenado**
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:50, 21:10.

**Gansgter Squad**
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

**El origen de los guardianes**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**The master**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.

**La noche mas oscura**
Astelehenetik eguenera: 22:00

**Rompe Ralph**
Zapatua eta domeka: 15:30:
Astelehenean: 17:45

**Lincoln**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00
Astelehenetik eguenera: 21:00

**El vuelo**
Zapatua eta domeka: 15:50
Astelehenetik eguenera: 21:20

**Blackie & Kanuto**
Astelehenetik eguenera: 18:4

**El alucinante mundo de Norman**
AstZapatua eta domeka: 15:30.

**Las sesiones**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45

## KRITIKA



**AMOR** ★★★★★

**Zuzendaria:** Michael Haneke.
**Herrialdea:** Frantzia.
**Urtea:** 2012.
**Aktoreak:** Jean-Louis Trintignant, Emmanuelle Riva, eta Isabelle Huppert.
**Iraupena:** 127 minutu.

# Istorio mingarria

Hanekeren filmak ez dira errazak ikuslearentzat. *Cache*, *La cinta blanca* eta orain *Amor* lan gogorrak eta latzak dira. Batzuetan gure kontzientziak astintzen ditu eta beste batzuetan, gure sentimendu barnekoienak. *Amor* filmean gizakiaren heriotza prozesura hurbiltzen da. Protagonista adineko bikote bat da. Emakumea gaixorik jartzen da. Gaixotasuna osaezina da. Eta guk gaixotasunaren prozesu guztia ikusiko dugu: emakumearen beherakada fisiko eta psikikoa. Bere ahalmenak galtzen joango da eta guk, senarrarekin batera, poliki-poliki ikusiko dugu pertsona horren argia eta bizitza itzaltzen. Eta egoera horrekin batera ikusleak senarraren sufrimenduaz jabetuko gara. Gizona emaztea zaintzeko bizi da, mundutik eta beste gizakiengandik urruntzen joango da eta bere bizitza gero eta itxiagoa izango da. Ez du nahi inor harreman horietan sartzea. Halako harremanetan askotan osagai banpirizatzailea bat ematen da. Pertsona maitatuaren zainketak beste pertsonaren bizia xurgatzen du. Kasu honetan ederki ikusten da nola gizona alabaren parte-hartzea gutxitu nahi duen, inor euren mundua inbaditu ez dezan.

Goiko lerroak irakurrita antzematen da *Amor* film mingarria izan daitekeela. Agertzen diren egoerak lehenago edo beranduago denei heltzen zaizkigu, eta oso momentu tristeak eta gogorrak izaten dira. Ez gaude ohituta zineman momentu horiek zehaztasunez ikusten eta Hanekek gogor astintzen gaitu eszena horiek erakusterakoan. Ikuslea deseroso sentitzen da, alde batetik, sentitzen duelako pertsonaia horien momentu barnekoienak eta sekretuak ikusten ari delako, eta beste alde batetik, ikusten duelako berak izan dituen sentimendu askotxo film baten azalduak. Haneke beti mugan ibiltzen da: pertsonaiak oso egoera larriak jasaten dituzte eta ikusleak sufrimendu horien uhin hedakorra heltzen zaio.

ANTONIO ZABALA

ana zubillaga ©




goiena"

2013-02-22

BUKATZEKO

# Hiru urrezko domina Debagoienera

▶ Madrilen jokatu den SpainSkills 2013 lehiaketatik hiru urrezko domina etorri dira Debagoienera

▶ Miguel Altunako Roberto Martin eta Javier Ozaeta eta Kevin Sande arrasatearra izan dira sarituak

**ARRITXU BARRUSO** | ARRASATE

Lanbide Heziketak betidanik indar handia izan du Debagoienean, eta, beste behin ere, horixe ikusi da, kasu honetan Madrilen. Otsailaren 10etik 17ra bitartean SpainSkills 2013 lehiaketa jokatu zen Madrilen, Lanbide Heziketako Olinpiadak bezala ezagutzen dena. Bada, Debagoienera hiru urrezko domina etorri ziren Madrildik.

### Igeltsuarekin trebeena

Kevin Sande arrasatearra Gasteizko Eraikuntza Tekniken Institutuan ari da igeltsero izateko ikasten. "Ez nuen espero Madrilen urrezko domina lortzerik. Lehiakideek sekulako maila zuten. Baina, antza, nik maila hobea erakutsi nuen", azaldu digu.

Urrezko domina lanean jarraitzeko motibazio handia izan da: "Sekulako poza eman dit eta etxean oso pozik daude. Eskolak bukatuta, orain praktikak egiten hasiko naiz eta irabazi dudan dominak motibazio handia ematen dit gogor lan egiten segitzeko".

### Miguel Altunara beste bi urre

Miguel Altuna institutuko Erregulazio eta Kontrol Sistemen goi mailako heziketa zikloko ikasle Roberto Martin eta Javier Ozaeta ere urrezko dominarekin bueltatu dira etxera; Mekatronika modalitatean txapeldunak izan dira. Lehiaketa horretan sei probari aurre egin behar izan diete: hiru maketa muntatu, elkarrekin programatu eta mantentze-lanak egiteaz gain, maketaren funtzionamendua optimizatzea lortu zuten, horretarako zituzten zazpi orduetan. Orain, 2013ko uztailean, Alemaniako Leipzigen jokatuko den WorldSkills lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute.



Martin eta Ozaeta, irakaslearekin, muntaketa lanak amaituta. | MIGUEL ALTUNA



Kevin Sande, dominarekin. | K.S.



Miguel Altunako ikasleak sari-banaketaren momentuan. | MIGUEL ALTUNA

### Euskal Herria punta-puntan

Euskal Herriko formazio maila handiaren erakusgarri datuok: zazpi urrezko domina, sei brontzezko eta bi bikaintasun aipamen. Kataluniaren ondoren domina gehien lortu dituen erkidegoa izan da.

AZKEN BERBA



**IDOIA ETXEBERRIA**

## 'Egunkaria'

Iratzargailuak jo zuen: irratian, ahots ezagun bat. Azalpenak ematen, larri. Edurne lankidea zen, Gasteiztik. Esanaz goizaldean Guardia Zibila sartu zela. Gasteizko egoitza prezintatu egin zutela. Itxi. Atxilotuak ere bazeuden. Une hartan Andoaingo egoitza miatzen ari ziren. Kolpera jaiki nintzen ohetik.

Mobila piztu. Amaren dei galduak. Deitu egin nion. "Zure jefia Pello da, ezta?". Bai. Politika sailean nenbilen. Pello zen arduraduna. "Ba detenidu egin dabe". Zer? Paranoia: eta nire bila badatoz? Ostia, ni pijaman! Ri-rau jantzi nintzen.

Andoainera. Ikaratuta. Hantxe zeuden lankideak, errepide ondoan. Pankarta batekin: *Egunkaria aurrera*. Atxilotua beste Pello bat zela jakin nuen, Zubiria. Guardia zibilek oilartuta alde egin zuten. Atean kandatu txiki bat ipini ostean. Ostiko batekin apurtzeko modukoa. Burla.

Egoera surrealista zen. Ezin genuen sinestu. Kalean geunden. Epailearen aginduz. Justiziaren izenean. Nori eskatu laguntza? Ertzainei? Inpotentzia. Amorrua. Gurekin nahi dutena egin dezakete. Euskaldunak garelako.

Sentipen hori ez da desagertu. Eta hamar urte pasatu dira iratzargailuan musika sintonizatu nuenetik.

